

Prozedura  
Kriminalaren  
Legea

Ley de  
Enjuiciamiento  
Criminal

Legge-testuak  
Textos legales





Prozedura Kriminalaren  
Legea

Ley de  
Enjuiciamiento Criminal



Prozedura Kriminalaren  
Legea  
Ley de  
Enjuiciamiento Criminal

Primera edición,  
cerrada al 31 de mayo de 2006

Lehenengo argitaraldia,  
2006ko maiatzaren 31n itxia

2006  
Universidad de Deusto  
Deustuko Unibertsitatea  
Bilbao-Bilbo

Eskubide guztiak erreserbatu daude. Argitalpen hau, zati edo osorik, ezin kopiatu daiteke ez eta bildu edo igorri inola ere, dela elektrikaz, dela mekanikaz, dela fotokopiaz, dela grabazio magnetikoz, dela bestelako informazio biltze eta berreskuratze sistemaz, baldin eta lehendaurrez egileen eta argitaratzailearen baimenik ez bada.

Todos los derechos reservados. Esta publicación no puede ser reproducida, almacenada o transmitida, en todo o en parte, en manera alguna ni por ningún medio, ya sea eléctrico, mecánico, de fotocopia, de grabación magnética u otro sistema de almacenamiento o recuperación de la información, sin permiso previo del editor y los autores.

Argitaraldia: lehenengoa, 2006ko maiatzekoa

Edición: primera, de mayo de 2006

Ale-kopurua: 700

Tirada: 700 ejemplares

© Egileak/autores: Aiora Aristondo, Gotzon Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia

© Euskarazko testua eta aurkibide analitikoak/Texto en euskera e índices analíticos: Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua/Universidad de Deusto. Instituto de Estudios Vascos

© Euskarazko testua eta aurkibide analitikoak/Texto en euskera e índices analíticos: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila/ Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social

ISBN: 978-84-9830-529-6

**Aurkibidea**

**Índice**

<b>Abreviaturas</b> .....	16
<b>Presentación</b> .....	21
<b>Prólogo</b> .....	41
<b>Ley de Enjuiciamiento Criminal, promulgada por Real Decreto de 14 de septiembre de 1882.</b> .....	59
<b>Exposición de motivos</b> .....	61
<b>Libro primero.</b> Disposiciones generales .....	89
<b>Título primero.</b> Preliminares .....	89
Capítulo primero. Reglas generales. ....	89
Capítulo II. Cuestiones prejudiciales .....	89
<b>Título II.</b> De la competencia de los Jueces y Tribunales en lo criminal .....	91
Capítulo primero. De las reglas por donde se determina la competencia . . .	91
Capítulo II. De las cuestiones de competencia entre Jueces y Tribunales ordinarios .....	99
Capítulo III. De las competencias negativas y de las que se promueven con Jueces o Tribunales especiales y de los recursos de queja contra las autoridades administrativas .....	110
<b>Título III.</b> De las recusaciones y excusas de los Magistrados, Jueces, Asesores y Auxiliares de los Juzgados y Tribunales y de la abstención del Ministerio Fiscal .....	112
Capítulo primero. Disposiciones generales .....	112
Capítulo II. De la sustanciación de las recusaciones de los Jueces de Instrucción y de los Magistrados .....	113
Capítulo III. De la sustanciación de las recusaciones de los Jueces municipales	120
Capítulo IV. De la recusación de los auxiliares de los Juzgados y Tribunales .	124
Capítulo V. De las excusas y recusaciones de los Asesores .....	126
Capítulo VI. De la abstención del Ministerio Fiscal .....	127



<b>Laburdurak</b> .....	17
<b>Aurkezpena</b> .....	19
<b>Atarikoa</b> .....	23
<b>Prozedura Kriminalaren Legea, 1982ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez aldarrikatu dena</b> .....	59
<b>Zioen azalpena</b> .....	61
<b>Lehenengo liburua.</b> Xedapen orokorrak .....	89
<b>Lehenengo titulua.</b> Atarikoak .....	89
Lehenengo kapitulua. Erregela orokorrak .....	89
II. kapitulua. Epaitu aurreko arazoak .....	89
<b>II. titulua.</b> Arlo kriminaleko epaile eta auzitegien eskumena .....	91
Lehenengo kapitulua. Eskumena zehazten duten erregelak .....	91
II. kapitulua. Epaile eta auzitegi arruntan arteko eskumen-arazoak .....	99
III. kapitulua. Eskumen-arazo negatiboak eta epaile nahiz auzitegi bereziekin sustatutakoak, eta Administrazioako agintarien aurkako ke- xa-errekurtsoak. ....	110
<b>III. titulua.</b> Magistratuen, epaileen, epaitegi nahiz auzitegietako aholkularien eta laguntzaileen ezespenak eta desenkusak, eta Fiskaltzaren abs- tentzia .....	112
Lehenengo kapitulua. Xedapen orokorrak .....	112
II. kapitulua. Instrukzio-epaileen eta magistratuen ezespenak gauzatzea. . .	113
III. kapitulua. Udal-epaileen ezespenak gauzatzea .....	120
IV. kapitulua. Epaitegi eta auzitegietako laguntzaileen ezespena .....	124
V. kapitulua. Aholkularien desenkusak eta ezespenak .....	126
VI. kapitulua. Fiskaltzaren abstentzia .....	127

<b>Título IV.</b>	De las personas a quienes corresponde el ejercicio de las acciones que nacen de los delitos y faltas . . . . .	129
<b>Título V.</b>	Del derecho de defensa y de la asistencia jurídica gratuita en los juicios criminales . . . . .	136
<b>Título VI.</b>	De la forma de dictar providencias, autos y sentencias y del modo de dirimir las discordias . . . . .	139
	Capítulo primero. De la forma de dictar providencias, autos y sentencias . . .	139
	Capítulo II. Del modo de dirimir las discordias . . . . .	149
<b>Título VII.</b>	De las notificaciones, citaciones y emplazamientos . . . . .	150
<b>Título VIII.</b>	De los suplicatorios, exhortos y mandamientos . . . . .	157
<b>Título IX.</b>	De los términos judiciales. . . . .	161
<b>Título X.</b>	De los recursos contra las resoluciones de los Tribunales y Jueces de Instrucción . . . . .	167
<b>Título XI.</b>	De las costas procesales . . . . .	175
<b>Título XII.</b>	De las obligaciones de los Jueces y Tribunales relativas a la estadística judicial. . . . .	178
<b>Título XIII.</b>	De las correcciones disciplinarias. . . . .	181
<b>Libro II.</b>	Del sumario . . . . .	182
<b>Título primero.</b>	De la denuncia . . . . .	182
<b>Título II.</b>	De la querrela . . . . .	188
<b>Título III.</b>	De la Policía Judicial . . . . .	193
<b>Título IV.</b>	De la instrucción. . . . .	203
	Capítulo primero. Del sumario y de las autoridades competentes para instruirlo	203
	Capítulo II. De la formación del sumario. . . . .	208
<b>Título V.</b>	De la comprobación del delito y averiguación del delincuente . . .	216
	Capítulo primero. De la inspección ocular . . . . .	216
	Capítulo II. Del cuerpo del delito. . . . .	219
	Capítulo III. De la identidad del delincuente y de sus circunstancias personales . . . . .	234
	Capítulo IV. De las declaraciones de los procesados . . . . .	242
	Capítulo V. De las declaraciones de los testigos . . . . .	249
	Capítulo VI. Del careo de los testigos y procesados . . . . .	267
	Capítulo VII. Del informe pericial . . . . .	268
<b>Título VI.</b>	De la citación, de la detención y de la prisión provisional. . . . .	277
	Capítulo primero. De la citación . . . . .	277
	Capítulo II. De la detención . . . . .	278
	Capítulo III. De la prisión provisional. . . . .	283
	Capítulo IV. Del ejercicio del derecho de defensa, de la asistencia de Abogado y del tratamiento de los detenidos y presos . . . . .	297
<b>Título VII.</b>	De la libertad provisional del procesado . . . . .	305
<b>Título VIII.</b>	De la entrada y registro en lugar cerrado, del de libros y papeles y de la detención y apertura de la correspondencia escrita y telegráfica . .	317

<b>IV. titulua.</b>	Nori dagokion delitu eta falten ondoriozko akzioak egikaritzea . . .	129
<b>V. titulua.</b>	Defentsa-eskubidea eta doako laguntza juridikoa, epaiketa kriminaletan . . . . .	136
<b>VI. titulua.</b>	Probidentziak, autoak eta epaiak nola eman, eta desadostasunak nola ebatzi . . . . .	139
	Lehenengo kapitulua. Probidentziak, autoak eta epaiak nola eman . . . . .	139
	II. kapitulua. Desadostasunak nola ebatzi . . . . .	149
<b>VII. titulua.</b>	Jakinarazpenak, zitazioak eta epatzeak . . . . .	150
<b>VIII. titulua.</b>	Suplikatorioak, exhertoak eta manamenduak . . . . .	157
<b>IX. titulua.</b>	Epe-muga judizialak . . . . .	161
<b>X. titulua.</b>	Auzitegiek eta instrukzio-epaileek emandako ebazpenen aurkako errekurtsoak . . . . .	167
<b>XI. titulua.</b>	Prozesuko kostuak . . . . .	175
<b>XII. titulua.</b>	Epaileen eta auzitegien betebeharrak, estatistika judizialari dagokionez . . . . .	178
<b>XIII. titulua.</b>	Diziplinako zuzengarriak . . . . .	181
<b>II. liburua.</b>	Sumarioa . . . . .	182
	<b>Lehenengo titulua.</b> Salaketa . . . . .	182
	<b>II. titulua.</b> Kereila . . . . .	188
	<b>III. titulua.</b> Polizia judiziala . . . . .	193
	<b>IV. titulua.</b> Instrukzioa . . . . .	203
	Lehenengo kapitulua. Sumarioa eta horren instrukzioa egiteko agintari eskudunak . . . . .	203
	II. kapitulua. Sumarioa eratzea . . . . .	208
<b>V. titulua.</b>	Delitua egiaztatzea eta delitugilea nor den ikertzea . . . . .	216
	Lehenengo kapitulua. Begi-ikuskapena . . . . .	216
	II. kapitulua. Delituaren gorputza . . . . .	219
	III. kapitulua. Delitugilearen nortasuna eta haren inguruabar pertsonalak . . . . .	234
	IV. kapitulua. Auzipetuek egindako adierazpenak . . . . .	242
	V. kapitulua. Lekukoek egindako adierazpenak . . . . .	249
	VI. kapitulua. Lekukoen eta auzipetuen arteko bekaldurak . . . . .	267
	VII. kapitulua. Adituaren txostena . . . . .	268
<b>VI. titulua.</b>	Zitazioa, atxiloketa eta behin-behineko espetxealdia . . . . .	277
	Lehenengo kapitulua. Zitazioa . . . . .	277
	II. kapitulua. Atxiloketa . . . . .	278
	III. kapitulua. Behin-behineko espetxealdia . . . . .	283
	IV. kapitulua. Defentsa-eskubidearen egikaritzea, abokatuaren laguntza, eta atxilotuei eta presoiei eman beharreko tratua . . . . .	297
<b>VII. titulua.</b>	Auzipetuaren behin-behineko askatasuna . . . . .	305
<b>VIII. titulua.</b>	Toki itxian sartu eta hori miatzea; liburuak eta paperak miatzea; eta idatzizko posta eta posta telegrafikoa geldiarazi eta irekitzea . . . . .	317



<b>IX. titulua.</b>	Fidantzak eta enbargoak .....	332
<b>X. titulua.</b>	Hirugarren pertsonen erantzukizun zibila .....	341
<b>XI. titulua.</b>	Sumarioaren amaiera eta largespena .....	343
	Lehenengo kapitulua. Sumarioaren amaiera .....	343
	II. kapitulua. Largespena .....	347
<b>XII. titulua.</b>	Aurreko tituluei buruzko xedapen orokorrak .....	352
<b>III. liburua.</b>	Ahozko epaiketa .....	353
<b>Lehenengo titulua.</b>	Delituaren kalifikazioa .....	353
<b>II. titulua.</b>	Aurretiaz erabaki beharreko artikulua .....	361
<b>III. titulua.</b>	Ahozko epaiketa egitea .....	366
	Lehenengo kapitulua. Eztabaidak jendaurrean egitea .....	366
	II. kapitulua. Auzitegiko presidentearen ahalmenak .....	367
	III. kapitulua. Nola egin frogak ahozko epaiketan .....	369
	<i>Lehenengo atala.</i> Auzipetuen eta erantzukizun zibila duten pertsonen aitorpena .....	369
	2. <i>atala.</i> Lekukoen azterketa .....	373
	3. <i>atala.</i> Adituaren txostena .....	381
	4. <i>atala.</i> Agiri-froga eta begi-ikuskapena .....	381
	5. <i>atala.</i> Aurreko lau ataletarako xedapenak .....	382
	IV. kapitulua. Akusazioa, defentsa eta epaia .....	384
	VI. kapitulua. Ahozko epaiketa etetea .....	389
<b>IV. liburua.</b>	Prozedura bereziak .....	392
<b>Lehenengo titulua.</b>	Jarduteko modua senataria edo gorteetako diputatua auzipetzen denean .....	392
<b>II. titulua.</b>	Prozedura laburtua .....	394
	Lehenengo kapitulua. Xedapen orokorrak .....	394
	II. kapitulua. Polizia judizialaren eta Fiskaltzaren jarduna .....	406
	III. kapitulua. Aurretiazko eginbideak .....	411
	IV. kapitulua. Ahozko epaiketa prestatzea .....	417
	V. kapitulua. Ahozko epaiketa eta epaia .....	424
	VI. kapitulua. Epaia aurkaratzea .....	432
	VII. kapitulua. Epaia betearaztea .....	436
<b>III. titulua.</b>	Delitu jakin batzuk azkar epaitzeko prozedura .....	437
	Lehenengo kapitulua. Aplikazio-eremua .....	437
	II. kapitulua. Polizia judizialaren jarduna .....	440
	III. kapitulua. Guardiako epaitegian gauzatu beharreko presa-eginbideak ..	443
	IV. kapitulua. Ahozko epaiketa prestatzea .....	448
	V. kapitulua. Ahozko epaiketa eta epaia .....	453
	VI. kapitulua. Epaia aurkaratzea .....	454

<b>Título IV.</b>	Del procedimiento por delitos de injuria y calumnia contra particulares . . . . .	455
<b>Título V.</b>	Del procedimiento por delitos cometidos por medio de la imprenta, el grabado u otro medio mecánico de publicación . . . . .	458
<b>Título VI.</b>	Del procedimiento para la extradición . . . . .	461
<b>Título VII.</b>	Del procedimiento contra reos ausentes . . . . .	464
<b>Libro V.</b>	De los recursos de apelación, casación y revisión . . . . .	468
<b>Título primero.</b>	Del recurso de apelación contra las sentencias y determinados autos . . . . .	468
<b>Título II.</b>	Del recurso de casación . . . . .	472
	Capítulo primero. De los recursos de casación por infracción de ley y por quebrantamiento de forma . . . . .	472
	<i>Sección primera</i> De la procedencia del recurso . . . . .	472
	<i>Sección 2.<sup>a</sup></i> De la preparación del recurso . . . . .	476
	<i>Sección 3.<sup>a</sup></i> Del recurso de queja por denegación del testimonio pedido para interponer el de casación . . . . .	481
	<i>Sección 4.<sup>a</sup></i> De la interposición del recurso . . . . .	484
	<i>Sección 5.<sup>a</sup></i> De la sustanciación del recurso . . . . .	488
	<i>Sección 6.<sup>a</sup></i> De la decisión del recurso . . . . .	493
	Capítulo II. De los recursos de casación por quebrantamiento de forma . . . . .	500
	Capítulo III. De la interposición, sustanciación y resolución del recurso de casación por infracción de ley y por quebrantamiento de forma . . . . .	500
	Capítulo IV. Del recurso de casación en las causas de muerte . . . . .	500
	<b>Título III.</b> Del recurso de revisión . . . . .	503
<b>Libro VI.</b>	Del procedimiento para el juicio sobre faltas . . . . .	507
<b>Libro VII.</b>	De la ejecución de las sentencias . . . . .	516
<b>Disposiciones adicionales</b>	. . . . .	522
	Primera . . . . .	522
	Segunda . . . . .	523
	Tercera . . . . .	523
	Cuarta . . . . .	524
<b>Disposición final</b>	. . . . .	524
<b>Índices analíticos</b>	. . . . .	527
	<b>Castellano-euskera</b> . . . . .	529
	<b>Euskera-castellano</b> . . . . .	645

<b>IV. titulua.</b>	Partikularren aurkako irain- eta kalumnia-delituen ondoriozko prozedura .....	455
<b>V. titulua.</b>	Inprimatzearen, grabatzearen edo argitaratzeko beste edozein tresna mekanikoren bidez egindako delituen ondoriozko prozedura .....	458
<b>VI. titulua.</b>	Estradiziorako prozedura .....	461
<b>VII. titulua.</b>	Errudun absenteen aurkako prozedura .....	464
<b>V. liburua.</b>	Gora jotzeko errekurtsua, kasazio-errekurtsua eta berrikuspen-errekurtsua .....	468
<b>Lehenengo titulua.</b>	Epaian eta auto zehatz batzuen aurka gora jotzeko errekurtsua .....	468
<b>II. titulua.</b>	Kasazio-errekurtsua .....	472
	Lehenengo kapitulua. Legea hautsi eta forma urratzearen ondoriozko kasazio-errekurtsua .....	472
	<i>Lehenengo atala.</i> Errekurtsua bidezkoa izatea .....	472
	2. <i>atala.</i> Errekurtsua prestatzea .....	476
	3. <i>atala.</i> Kasazio-errekurtsua jartzeko lekukotza eskatu, eta, hori ukatzearen ondorioz, kexa-errekurtsua jartzea .....	481
	4. <i>atala.</i> Errekurtsua jartzea .....	484
	5. <i>atala.</i> Errekurtsua gauzatzea .....	488
	6. <i>atala.</i> Errekurtsua erabakitzea .....	493
	II. kapitulua. Forma urratzearen ondoriozko kasazio-errekurtsuak .....	500
	III. kapitulua. Legea hautsi eta forma urratzearen ondoriozko kasazio-errekurtsua jartzea, gauzatzea eta ebaztea .....	500
	IV. kapitulua. Kasazio-errekurtsua heriotza-auzietan .....	500
<b>III. titulua.</b>	Berrikuspen-errekurtsua .....	503
<b>VI. liburua.</b>	Falta-epaiketarako prozedura .....	507
<b>VII. liburua.</b>	Epaiak betearaztea .....	516
<b>Xedapen gehiarrak</b>	.....	522
	Lehenengoa .....	522
	Bigarrena .....	523
	Hirugarrena .....	523
	Laugarrena .....	524
<b>Azken xedapena</b>	.....	524
<b>Aurkibide analitikoak</b>	.....	527
<b>Gaztelania-euskara</b>	.....	529
<b>Euskara-gaztelania</b>	.....	645

# Abreviaturas

<b>DA</b>	disposición adicional
<b>DT</b>	disposición transitoria
<b>núms.</b>	números
<b>STC</b>	sentencia del Tribunal Constitucional
<b>V.M.</b>	Vuestra Majestad



# Laburdurak

- KAE** Konstituzio Auzitegiaren epaia  
**x. g.** xedapen gehigarria  
**x. i.** xedapen iragankorra  
**zk.ak** zenbakiak



# Aurkezpena

Lan honen aurkezpena egitea eginkizun atsegina da neuretzat eta nire sailarentzat. Poztasunerako arrazoia da, bereziki, Prozedura Kriminalaren Legeari buruzko argitalpen elebiduna aurkeztea, aurreko argitalpenen segidan beste mugarri bat delako. Aurreko horien artean aipatzekoak dira Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko Legea, Erregistro Zibilaren Legea eta Prozedura Zibilaren Legea. Guztiek islatzen dute, islatu ere, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuaren arteko lankidetzaren oparoa, horren begi-bistako fruituak baitira.

Lan sakon eta zorrotz hau bi erakunde horiek sinatutako lankidetzaren hitzarmenari esker gauzatu da. Justizia eta Zuzenbidearen eremuan, argitalpen hau oinarritzeko tresna gertatuko da, arlo horretan hizkuntza-normalizazioa lortzeko. Hari berezik, Adituen Batzordeak txostena argitaratu du, 2005. urteko irailaren 21ean, eta txosten horretan aztertzen da zer-nola betetzen dituen Espainiako Gobernuak bere konpromisoak, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Gutun Europarraren inguruan. Txosten horrek nolabaiteko hutsunea atzematen du, eta hutsune hori betetzeko balio dezake argitalpen honek.

Txostenaren arabera, besteak beste, zenbait gomendio luzatzen dizkie Adituen Batzordeak Espainiako agintariei, Justizia Administrazioaren esparruan euskara erabiltzeaz denaz bezainbatean. Gomendio horien eretxean, neurri egokiak hartu behar dira, estatuko lege-testurik garrantzitsuenak, eta, zehatzago, euskaldunengan beren beregi eragina dutenak, une egokian euskaratuta egon daitezten. Horretarako, neurririk aipatzen bide da, gaztelaniatzko bertsio ofizialarekin batera eta une berean, horren itzulpen ofiziala argitaratzea.

Hori dela eta, lan honek egundoko garrantzia du. Bateko, ukaezineko barne balioa du, zuzenbideko jardule guztientzat, euren jakintza-gaia edozein izanik ere, bai eta gai horretan ikasle direnentzat ere. Besteko, argitalpen honek bere ondoreak zabaltzen ditu beste arlo batzuetara ere. Arlo horietan nabarmentzekoa da

eredu elebidunak prestatzea, zigor-jurisdikzioaren epaitegietan, eta, zehatz esateko, epaitegi horietako prozesu-izapideetan, eredu elebidunak erabili ahal izateko. Sailaren barruan, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak bultzatzen ditu halako ereduak, hala nola, emakumearen aurkako indarkeriaren jurisdikzio berriari dagozkionak.

Ekintza horiek uztartu egin behar dira Justizia Sailak burutzen dituen beste batzuekin, bereziki, hizkuntza-gaikuntzaren arloan gauzatutakoekin edota erabileran-planekin. Ildo horretatik, gaur egun epaitegiek herritarrei luzatzen dizkien agirietatik %20 elebidunak dira. Orain Justizia Administrazioaren Hizkuntza Normalizaziorako Plana prestatzen ari gara, eta, ziur asko, plan horren ondorioz halako ekintzak sustatuko dira.

Labur-zurrean, lege-testuak euskaraz jartzeko ahalegin horretan, argitalpen hau puntu eta jarrai besterik ez da. Izan ere, beronen osagarriak izango dira, epe laburrera, Merkataritza Kodea eta merkataritzako legeria, horiek ere Deustuko Unibertsitatearekin izandako lankidetzaren estuari esker. Bi erakundeon konpromisoa da, Justizia Administrazioan euskara normalizatzeko prozesuaren barruan, aurrerapau-soak ematea, prozesu horrek dituen zailtasunei muzin egin gabe.

*Joseba Azkarraga Rodero*

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburua

# Presentación

En la grata tarea de proceder a la presentación de este trabajo, he de manifestar, en primer lugar, que constituye, para mí y para mi Departamento, un motivo añadido de satisfacción la publicación bilingüe de la Ley de Enjuiciamiento Criminal, como un nuevo hito a proseguir la saga de anteriores publicaciones: Ley de Responsabilidad Penal de los Menores, Legislación de Registro Civil y Ley de Enjuiciamiento Civil, que son frutos elocuentes de la prolífica colaboración del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco con el Instituto de Estudios Vascos de la Universidad de Deusto.

Este trabajo, minucioso y riguroso, articulado a partir del Convenio de Colaboración suscrito en su día entre ambas instituciones, viene a dotar al ámbito de la Justicia y del Derecho de un instrumento básico para la normalización lingüística en tales áreas y a llenar el vacío explicitado en el Informe del Comité de Expertos sobre la Carta Europea de la Lenguas Regionales y Minoritarias acerca del cumplimiento de los compromisos contraídos por el Gobierno Español, publicado el día 21 de septiembre de 2005.

En dicho Informe se recogen, entre otros aspectos, las recomendaciones que el Comité de Expertos realiza a las autoridades españolas en el ámbito de la Justicia con respecto al uso y empleo del euskera en la Administración de Justicia, a fin de que se adopten las medidas necesarias para garantizar que los textos legislativos nacionales más importantes —y, especialmente, aquellos relativos específicamente a los vascoparlantes— también estén disponibles en euskera en su debido momento, considerándose como medida más apropiada para ello la de publicar una traducción oficial al mismo tiempo que la versión oficial en castellano.

De ahí la trascendencia de esta publicación, que, además de su valor intrínseco para los ejercientes del Derecho en cualesquiera de sus disciplinas y para los estudiantes de dicha materia, extiende sus efectos, entre otras áreas, a la elaboración de los modelos bilingües para su utilización en los trámites procesales en los Juz-

gados de la Jurisdicción Penal —en especial, a los modelos que afectan a la reciente Jurisdicción de Violencia sobre la Mujer— que impulsa el propio Departamento desde la Dirección de Relaciones con la Administración de Justicia.

Estas acciones, combinadas con otras desarrolladas desde el Departamento de Justicia —en especial, las referidas a la capacitación lingüística o a los Planes de Uso (en el momento presente, el 20% de los documentos que se emiten desde los Juzgados hacia la ciudadanía cumple los requerimientos de ser bilingües)—, habrán de verse potenciadas con el Plan de Normalización Lingüística para la Administración de Justicia que estamos elaborando.

En suma, esta publicación constituye un punto y seguido en la citada tarea continua de fijación de los textos legales en euskera —que se verá completada, como inminente próximo trabajo, con el Código de Comercio y la Legislación Mercantil—, en colaboración estrecha con la Universidad de Deusto, en el compromiso común de seguir avanzando en el proceso, no exento de dificultades, de normalización del euskera en la Administración de Justicia.

*Joseba Azkarraga Rodero*  
Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social

# Atarikoa

Gaur egun indarrean dagoen Prozedura Kriminalaren Legea, beste batzuekin batera, adibide esanguratsua da, Espainiako estatuak XIX. mendean ondu zuen kodegintzaren hurrenkeran. Jakina da horien bidez ezarri zirela gaur egun ere indarrean dagoen antolamendu juridiko eta administratiboaren oinarriak. Era berean, nabarmendu egin zen prozesu penalari buruzko zuzenbidearen kodegintzak lotura sakonak izatea konstituzio-ikuspegi berrieekin.

Legea, beraz, 1882. urtean argitaratu zen eta egun ere indarrean dago, bertara batzen direla aldi hartako zenbait kezka. Lehena, zalantzarik gabe, Inkisizioak bultzaturiko eskemak baztertzeko da, horiek lotzen eta oztopatzen baitzuten zigor-zuzenbidearen prozesua. Bigarrena, ostera, beste nonbaitetik dator, behar-beharrezkoa baitzen prozesuaren inguruko tresna berria, behar adinako zehaztasun teknikoa erakutsi behar zuena; horrexegatik, hain zuzen ere, zioen azalpenaren hitzak argigarririk dira, kode berriaren nondik norakoak azaltzean: *Hala eta guztiz ere, proiektu honetan jasotako aldaketak erro-errokoak dira, eta, ondorenez, kodea guztiz berria dela esan daiteke; are gehiago, Europako kontinenteko prozedura kriminalaren koderik aurreratua bezain liberal eta aurrerakoa*. Hirugarrenari helduz, esan daiteke lege berriaren xedea dela alderdien artean berdintasun zinezkoa eskuratzea; horixe da aurretiaz aipaturiko zioen azalpenaren esana: *Hori guztia dela eta, liskar juridiko horretan baldintza-berdintasuna berrezarri behar da, gizartearen funtsezko helburuek hori ahalbidetzen duten neurrian*.

Legea bera egiteko erabili zen prozedura aintzat hartuta, duda-mударik gabe nabaritzen da Manuel Alonso Martinez legelari jaunaren eskua. Hura ospe handiko jurista zen, eta Espainiako hainbat koderen bultzatzailea. Haren eskua begi-bistakoa da testu honetan eta beraren zioen azalpenean ere.

Egia da, alabaina, aurretiaz emana zela 1872. urteko abenduaren 22ko Prozedura Kriminalaren Legea; egia, orobat, lege horrek, doktrinaren esanetan, ez zuela ekarri benazko urratsik, zigor-prozesuan erruztatuairen egoera bermatzeko. Botere

Judizialari buruzko 1870. urteko irailaren 15ko Lege Organikoak ere kontraesanak zituen hari begira, eta, horren ondorioz, Gorteek 1878. urtean abiarazi zuten halako prozedura, kontraesanak argitzeko eta legeria aplikagarria zehazteko. Prozedura horrek ekarri zuen, 1881. urtean, Manuel Alonso Martínez jauna Justizia eta Grazia ministroa zela, 1882. urteko ekainaren 15eko Legea eta, geroengan, lege berriaren testu artikuluduna, 1882. urteko irailaren 14koa, prozesu-kode oso-oso barnera-zen duena, onespén-dekretuak adierazi legez.

Hori ere, egun indarrean dagoen testua. Hori bera eskaintzen da, gaztelaniaz eta euskaraz, argitaraldia 2006. urteko maiatzaren 31n itxita, hizkuntza bietan ere ematen direla aurkibide analitikoak, testu juridiko elebidunen bilduma honetan ohikoa den legez.

## Prozedura Kriminalaren Legea eta euskara

Espainiako kodegintzaren alorrean suertatu zenari utsiz, gaztelania izan zen estatu osorako ezarri ziren lege-testuen adierazpide bakarra. Estatuaren eskualde desberdinetan aurretiaz indarrean zeuden legeak ez ziren oinarri izan aurreko kode liberalak eratzeko tenorean, azken horiek aldarrikatu zutelako, behin eta berriz, lege-batasuna, hain justu ere, estatuko lurralde askoren errealitatearekin bat ez zetorrena.

Halakoak laster iragarri ziren Euskal Herrian bertan. Bertako legelariak, foruak galdu berriak zituztela eta, arranguraz beterik zeuden, tankera horretako legeria baten aurrean, legeria argitaratu zen une beretik.

Horien artean, azpimarratzekoa da, esaterako, Manuel Gorostidi jauna (?-1907), eta, zehatzago, legelari horren jokamoldea. Gipuzkoar abokatu eta foruzale horrek ardura bizia erakutsi zuen, euskaldunen artean, Prozedura Kriminalaren Legearen aurrean. Izatez, euskaldun horiek gaztelania jakin ez eta epailearen aurrean agertu behar baziren Prozedura Kriminalaren Lege berriean, interpretea zuten ezinbesteko, lege-testu horren 398, 440 eta 441. artikuluen arabera.

Lege-testuaren sistema ez zuen hark begi onez ikusten. Areago, guztiz diskriminazitate zeritzon: *La Ley, bajo el aspecto que la examinamos, ha de regir, pues, respecto de dos grandes grupos ó clases: la de los que hablan el idioma oficial de la Nación, y la de aquellos que, ó la ignoran, ó no están versados en ella, para expresar, con bastante claridad, sus ideas y pensamientos. En este segundo grupo están incluídas las personas que solo entienden el bascuence ó el catalán. Y sin embargo, son ciudadanos españoles, en el uso y goce de todos los derechos que la Constitución les reconoce. Pero su lengua no está admitida en el régimen administrativo y judicial del Estado, y por eso quedarán, para con el mismo, en una relación de inferioridad, en tanto que los que han nacido en otras povincias, disfrutarán de las mayores ventajas y preeminencias que establece la Ley. Que un extranjero no alcance la protección y amparo que un Estado debe á sus nacionales, se comprende perfectamente; pero es de deplorar, y no puede jamás justificarse, que el Poder*



*público admita distinciones entre sus propios súbditos, cuando se trata del ejercicio de sus altas funciones de tutela, ó de la distribución de los servicios públicos que á todos, por igual, deben prestarse.*

Haren irtenbidea, aldiz, erabat teknikoa zen: *Lo que creemos, es, que la Ley debe distinguir entre los que no hablan el idioma español, estableciendo ciertas reglas y prácticas que equiparen á los basco-nabarro y á los catalanes, en cuanto á su situación de derecho, con los habitantes de las restantes provincias de la nación, aplicando tan solo á los extranjeros los preceptos relativos a la inteligencia del lenguaje. Medio adecuado al efecto sería la designación de un magistrado que hable la lengua usual de la región en las respectivas Audiencias de lo criminal; sin que la adopción de tan prudente temperamento, fuese por nadie censurada, como un privilegio, debiendo, ántes bien, ser considerada como una oportuna y acertada aplicación del dogma constitucional de la igualdad de los ciudadanos ante la Ley. De la eficacia que envuelve la innovación insinuada podemos dar testimonio todos cuantos hemos tenido ocasión de asistir á los varios juicios orales que se han verificado hasta la fecha en la Audiencia de esta Capital, cuyo digno Presidente, nuestro paisano, el Sr. D. José María Unceta, ha dirigido la palabra en bascuence á los procesados y á los testigos, contando con la confianza que á los respetables señores Fiscal y Magistrados inspira el prestigio de que goza y su acrisolada veracidad. Merced á tan sencillo procedimiento, se han sustanciado con todas las solemnidades legales, y sin menoscabo de los fueros de la justicia, los actos de vista en que ese alto Tribunal ha tenido que intervenir.*

Ahotsak ahots eta testuak testu, Gorostidirenak ez zuen aurrerabiderik izan. Le-ro beretik etorri zen, urte batzuk geroago, Bonifazio Etxegarai euskal legelaria. Auzitegi Gorenaren Gelako idazkari izan zen horrek, 1919. urtean, honako hau idatzi zuen: *Ikusi zagan orain zer gertatzen dan Tribunaletara joaten diran zñaldari edo testiguakin. Legiak agintzen du oei beren esaera irakurtzia, berak irakurri nai ez badute. ¿Nola egingo dute au erderaz ez dakien euskaldunak? Begira zer agintzen duen auziyak erabakitzeke egin dan legiak: Ez baleki gaztelarrez testiguren batek, galdetuko zayo adierazle edo interprete baten bitartez... Au bakarrik esaten du legiak; eta onek esan nai du erderaz ez dakien euskaldunak ezin lezakeala bere esaera irakurri, au gaztelarrez ipintzen dalako. Eta emen esan biar degu, lenago esan deguna: euskaldunentzat eta gaztelarrentzat ez dala berdiña legia.*

Bigarren Errepublikaren itzalpean gertatu zen gaztelaniaren eta euskararen ofizialkidetasuna. Horren arabera, lege-ikuspegitik bederen, euskarak bazuen sarrera epaitegietako jardueretan. Tamalez, hori ez zen lege-testuetan gauzatu. Jendaurreko prozesu aipatuenean, Idiak ez auzian alegia, agerian geratu zen, beste behin ere, zer-nolako jautzia zegoen auzitegietako hizkuntza zen gaztelaniaren eta hizkuntza bera jakin ere ez zekiten herritar askoren artean.

1936. urteko Euzkadiko autonomia-estatutuak garatu zuen Errepublikaren Konstituzioa. Nolanahi ere, gerraren zailtasunak eta beronen iraupen laburrak ekarri zuten, besteak beste, zigor-prozesuan euskararen errotzea.

1978. urteko Konstituzioak, ostera, gaztelaniaren eta beste hizkuntzen arteko ofizialkidetasun araubide berria ekarri du, eta, horren harira, euskara ere Justizia Administrazioan erabili ahal izatea.

Xedapen berrien indarrez, bereziki Botere Judizialari buruzko 1985. urteko uztailearen Ieko Lege Organikoaren bidez, euskararen izatea arauturik dago Justizia Administrazioan. Horren ildo nagusiak jarraikoak dira: euskara bera meritu izatea epaile, magistratu eta Justizia Administrazioaren zerbitzuean dagoen langileriaren aldetik; interprete eta itzultzaileen lana, eta euskaraz eginiko agiri eta jardura judicialen balio osoa, beroriek gaztelaniaz emateko premiarik gabe.

Beste aldetik ere, ez dira baztertu behar gai hauetan Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Komunitateak dituzten eskumenak.

Giro berri baten atarian, beraz, euskara, auzitegi kriminaletako kontuetan. Horren lagungarri, zer esanik ez, auzitegi horien jardura arautzen duen legearen euskarazko testua. Argitalpen honen helburua, beraz, horretara dator: ofizialkidetasun horren barruan, zigor-prozesuaren legeria biltzea, Espainiako estatuaren euskal lurraldeetan indarrean dagoena. Agerikoa denez, Frantziako estatuaren euskal herrialdeak barruratzen ez baditu ere, laguntzaile eta akuilari izan daiteke etorkizunean euskarak ere bere erabilera izan dezan, Europako esparru judicial batean.

## **Euskarazko testuaren ezaugarriak**

Prozedura Kriminalaren Legearen indarreko testua euskaraz emateak nahitaez dakar, lehendabizi, hizkera juridikoaren ezaugarriak zehaztea, batez ere, testuaren barruan aldi eta tankera desberdinetako testu-zatiak direnean.

Esan gabe doa testu honetara bildu direla aldaki horiek guztiak. Bi puntu izan dira nagusi, zigor-prozesuaren testuak euskaraz ematean. Bata da terminologia, dela prozesuarena berarena, dela auzitegiarena eta horietako eragileena. Bestea da bilduma honetan erabili diren irizpideak errespetatzea, batik bat, morfosintaxi eta diskurtsoaren aldetik, betiere zigor-prozesuak izan ditzakeen berezitasunak alboratu gabe. Horrexegatik, lehen ere bilduma elebidun honetan bete diren irizpideei eutsi zaie. Horiek uztarri izanik, oinarizko norabide izan dira, oraingo honetan ere, euskarazko bertsioa ontzeko puntuan, honako hauek: segurtasun juridikoa, testu bien arteko baliokidetasun funtzionala eta erabilgarritasuna. Hitz gutxitan esanda, terminologia, morfosintaxia eta diskurtsoa izan dira ardatz nagusiak, Prozedura Kriminalaren Legea euskaratzeko uanean.

### *Terminologia*

a) Jatorrizko lege-testua 1882. urtekoa denez gero, bertan jasotako terminoetatik hainbat hemeretzigarren mendekoak dira, eta gaur egun oso gutxi erabiltzen dira. Ikus, kasurako, honako hau:

(560g) *Si transcurriere este término sin haberlo hecho, o si denegare la venia, el Juez lo comunicará inmediatamente al Ministro de Gracia y Justicia empleando para ello el telégrafo, si lo hubiere.*

(560e) *Epe-muga hori igaro bada hori egin gabe, edo baimena ukatu bada, epaileak berehala komunikatuko dio gertatutakoa Grazia eta Justizia Ministerioari, horretarako telegrafoa erabiliz, halakoa izanez gero.*

Halako kasu guztien zerrenda egitea luze joango litzateke, eta, ondorenez, adibiderik interesgarrienak bakarrik jaso dira hemen:

a.1) Gaztelaniazko *puebla* hitzak adierazten du baserritarrak barazki- edo leka-le-mota bakoitzarekin egindako ereintza. Horregatik, *ereintza* hitzarekin eman da euskaraz:

(605g) *Si se embargaren... pueblas... y otros bienes semejantes, podrá el Juez decretar...*

(605e) *Ereintzak... eta antzeko ondasunak enbargatzen badira, epaileak dekretatu ahal izango du...*

a.2) Gaztelaniaz behin baino gehiagotan erabiltzen da *cuerpos colegisladores* esamoldea, egungo Kongresua eta Senatua aipatzeko. Halakoetan, *kidego legegile-kide* esamoldea aukeratu da. Izan ere, *kide* izenei lotuta etortzen da sarriro, sarrien (*izenkide, mahaikide, primukide...*). Eta *legegile* ere substantiboa den neurrian, horrek onartu egiten du *-kide* atzizkia:

(750g) *El Juez o Tribunal que encuentre méritos para procesar a un Senador o Diputado a Cortes por causa de delito, se abstendrá de dirigir el procedimiento contra él si las Cortes estuvieran abiertas, hasta obtener la correspondiente autorización del Cuerpo Colegislador a que pertenezca.*

(750e) *Epaile edo auzitegiaren ustez senataria edo Gorteetako diputatua delituaren ondorioz auzipetzeko arrazoiak badaude, prozedura ez du haren aurka zuzenduko Gorteak irekita dauden bitartean, hura zein kidego legegilekidetakoa izan eta horren baimena lortu arte.*

b) Ildo beretik, zenbait kasutan, jatorrizko testuak aipatzen dituen erakundeak zaharkituta geratu dira edo desagertuta daude. Hortaz, erakundeon izenak dauden-daudenean euskaratu dira, egun dituzten ordezkoak aipatu gabe:

(360g) *El Ministro de Gracia y Justicia, si conceptuare excesivos los honorarios...*

(360e) *Grazia eta Justizia ministroaren iritziz zerbitzu-sariak gehiegizkoak badira...*

(259g) *.... está obligado a ponerlo inmediatamente en conocimiento del Juez de instrucción, de Paz, Comarcal o Municipal...*

(250e) *... berehalakoan horren berri eman beharko dio instrukzio-epaile, bake-epaile, eskualdeko epaile edo udal-epaileari...*

(145g) ... serán necesarios tres Magistrados, y cinco para dictar sentencia en las causas en que se hubiere pedido pena de muerte, cadena o reclusión perpetuas.

(145e) ... hiru magistratu beharko dira; eta epaia emateko bost magistratu beharko dira, auzian heriotza-zigorra, edo biziarteko katea nahiz giltzapealdia eskatu denean.

(93g) Es aplicable a los actuales Relatores y Escribanos de Cámara...

(93e) Gaur egungo ganbera-errelatore eta -eskribauei aplikatu dakieke...

c) Gaztelaniazko *veredicto* hitzaz denaz bezainbatean, euskal ordaina, testu honetan, *berediktu* izango da. Izatez, frantsesez ere *veredict* da, eta, gainera, ordain zehatz eta proposa izan daiteke:

(846bisc-g) ... la existencia de defectos en el veredicto, bien por parcialidad en las instrucciones dadas al Jurado o defecto en la proposición del objeto de aquél, siempre que de ello se derive indefensión, bien por concurrir motivos de los que debieran haber dado lugar a su devolución al Jurado y ésta no hubiera sido ordenada.

(846bisc-e) ... berediktuan akatsak izatea, dela epaimahaiari jarraibideak ematean alderdikieriaz jarduteagatik edo berediktuaeren objektua proposatzean akatsa egiteagatik, horren ondorioz defentsarik eza sortzen bada, dela epaimahaiari itzulketa gauzatzeko zioak gertatzeagatik, itzulketa hori agindu ez bada.

d) Gaztelaniazko *venia* hitzari dagokionez, mailegua alde batera utzi eta euskarazko *baimen* hitza aukeratu da testuinguru zehatz honetarako, beste testuinguru batzuetan ordain hori nahasgarri gerta daitekeela jakin arren:

(81g) Los interesados o sus apoderados podrán hacer en ella verbalmente las observaciones que estimen, previa la venia de Juez de instrucción.

(81e) Interesdunek edo horien ahaldunek, agerraldi horretan, egokitzat jotako oharrak hitzez egin ahal izango dituzte, instrukzio-epaileak horretarako baimena aurretiaz emanda.

e) Errekurtsoak arautzeko orduan, eta, zehatz esateko, kasazio-errekurtsoa arautzeko orduan, sarritan ageri da *casar* aditza. Maileguak Iparraldean beste esangura bat duenez gero, *kasaziopean jarri* aukeratu da euskal ordain gisa:

(902g) Si la Sala casa la resolución objeto del recurso a virtud de algún motivo fundado en la infracción de la ley...

(902e) Errekurtsoaren objektu zein ebaizen izan eta ebaizen hori salak kasaziopean jartzeko badu lege-hausteren bat oinarri hartuta...

f) Gaztelaniazko lege-testuak *cargo* y *descargo* bikotea erabiltzen du maiz. Halakoetan, hitz elkarketara jo, eta *egozbidet*- eta *zuribidet*- sintagmaren aldeko apustua egin da:

*(746.3g) Cuando no comparezcan los testigos de cargo y de descargo ofrecidos por las partes y el Tribunal considere necesaria la declaración de los mismos.*

*(746.3e) Alderdiek eskainitako egozbidetarako eta zurbide-lekukoak agertzen ez direnean, auzitegiaren ustez horien adierazpena nahitaezkoa bada.*

g) Ebazpenen egituraz jardutean, bi termino hauek sarri askotan aipatzen dira: *considerando* eta *resultando*. Arazoa ez dator bi-bion gerundioa erabiltzen denean (*kontuan hartuta / ikusita*), ezpada izen moduan agertzen direnean. Horri konponbidea emateko, *ikusizko* eta *kontuan hartuzko* aukeratu dira:

*(141g) Los autos se redactarán fundándolos en Resultandos y Considerandos concretos y limitados unos y otros a la cuestión que se decida.*

*(141e) Autoak idazteko oinarri izango dira ikusizko eta kontuan hartuzko zehatzak; batzuk eta besteak erabaki beharreko arazoari buruzkoak izango dira soil-soilik.*

h) Zigor-zuzenbidearen hizkeran, termino ezaguna da gaztelaniazko *cuero del delito*. Kontzeptu horrek bere barruan hartzen ditu armak, tresnak eta edozein motatako efektuak, baldin eta delituarekin zerikusia izan ahal badute, eta delitua zein tokitan gertatu eta bertan edo toki horretatik hurbil aurkitu badira, edo errudunaren esku badira, edo beste toki ezagun batean. Zigor Kodeak behin aipatzen du hori 451. artikuluan, eta lege-testu horretan aukeratutako euskal ordainari eutsi zaio oraingo honetan ere, *delituaren gorputza* jarritz:

*(339g) Si fuere conveniente recibir algún informe pericial sobre los medios empleados para la desaparición del cuerpo del delito, o sobre las pruebas de cualquiera clase que, en su defecto, se hubiesen recogido...*

*(339e) Komenigarria bada adituak txostena egitea delituaren gorputza desagertzeko erabili diren baliabideei buruz, edo, halakoa izan ezean, jaso diren mota guztietako frogei buruz...*

i) Prozesuko lege honetan, *rollo* hitzak adierazten du auzi-paperen multzo idatzia; izan ere, antzina paper horiek pergamino-zatietan idatzi eta biribilkatu egiten ziren. Euskarazko bertsioan termino juridiko hori itzultzeko, mailegura jo da (*erroilua*):

*(867g) Transcurridos tres días, durante los cuales deberá éste exponer a la Sala lo que estime conveniente sobre la procedencia o improcedencia de la queja, se pasará el rollo al Magistrado ponente.*

*(867e) Fiskaltzak hiru egun izango ditu salari azaltzeko kexa bidezkoa edo bidegabea den, eta, behin epe hori igarota, magistratu txostengileari emango zaio erroilua.*

j) Terminologiaren arlo honetan, eredu moduan hartu dira Prozedura Zibilaren Legearen euskarazko bertsioan jasotako ordainak. Alabaina, bada aldaketa bat hari begira. Horretara, Prozedura Zibilaren Legean, *requerimiento* terminoaren euskal

ordain gisa *agindeia* jarri da; baina *requirente* eta *requerido* hitzak itzultzeko, mailaguren bidetik jo, eta *errekeritzaile* eta *errekeritu* euskaratu dira. Lege-testu honetan, ordea, termino bakoitzaren inguruko eremu semantikoaren barne koherentzia gordetzeko, *agindei-emaile* eta *agindei-hartzaile* aukeratu dira ordain moduan, egokiagoak izan daitezkeelakoan.

*(30g) Recibidos los autos por el Juez requirente, declarará, sin más trámites, y dentro de veinticuatro horas, si insiste en la competencia o se aparta de ella. En el primer caso, lo participará en el mismo día al Juez requerido para que remita las diligencias al Juez o Tribunal que deba resolver la competencia.*

*(30e) Epaile agindei-emaileak auzi-paperak jaso ondoren adieraziko du, bestelako izapide gehiagorik gabe eta hogeita lau orduko epean, eskumenari eusten dion edo horretatik aldentzen den. Lehenengo kasuan, egun berean egingo dio jakinarazpena epaile agindei-hartzaileari, horrek eginbideak igor diezazkion eskumen-arazoa ebatzi behar duen epaile edo auzitegiari.*

k) Gaztelaniazko *instruir* aditzak bi adiera dituenetz gero, euskaraz bi ordain erabili dira.

Bateko, aditzak adierazten duenean norbaiti informazioa ematen zaiola zerbaiten egoerari buruz edo hark dituen eskubide nahiz betebeharrei buruz, euskal ordain gisa *argibideak eman* aukeratu da:

*(2g) ... y estarán obligados, a falta de disposición expresa, a instruir a éste de sus derechos y de los recursos que pueda ejercitar, mientras no se hallare asistido de defensor.*

*(2e) ... eta, esanbidezko xedapenik izan ezean, hari argibideak eman beharko dizkiote berak egikari ditzakeen eskubide nahiz errekurtsoei buruz, defendatzailearen laguntzarik ez duen bitartean.*

Besteko, aditzak prozesu penalaren fase zehatz batean burutu beharreko ikerketak barneratzen dituenean, *instrukzioa egin* aukeratu da:

*(63g) Instruirán los incidentes de recusación...*

*(63e) Ezespen-intzidenteen instrukzioa egingo dute...*

l) Lege-testu honetan, *constituirse* aditza era pronominal horretan jasotzen denean, epailea edo beste agintariren bat izaera horrekin nonbaitera agertzea adierazi nahi du eta horrela euskaratu da:

*(430g) También podrá en igual caso constituirse el Juez instructor en el domicilio de un testigo o en el lugar en que se encuentre para recibirle declaración.*

*(430e) Kasu berean, instrukzio-epailea izaera horrekin agertu ahal izango da lekukoaren egoitzara edo lekukoari adierazpena jaso beharreko tokira.*

m) Zuzenbidearen arloan bereziki garrantzitsuak ez badira ere, lege-testuetan ohikoak dira *fundamento*, *motivo* eta *razón* hitzak, eta, horien harira, *fundada* eta *motivada*. Halakoetan, *oinarri*, *zio* eta *arrazoi*, *oinarriduna* izan dira kasuan-kasuan aukeratutako ordainak:

(99g) *Si no la encontrare fundada, podrá acordar que intervenga en el proceso.*

(99e) *Beraren ustez ez bada oinarriduna, hark prozesuan esku hartzea erabaki ahal izango du.*

(179g) *Practicada la notificación, citación o emplazamiento o hecho constar el motivo que lo hubiese impedido...*

(179e) *Behin jakinarazpena, zitazioa edo epatzea gauzatuta, edo hori eragotzi duen zioa agerrarazita...*

(293g) *... serán invitadas a firmarlo en la parte a ellos referente. Si no lo hicieren, se expresará la razón.*

(293e) *eurei dagokien zatian sinatzeko gonbita luzatuko zaie. Hori egiten ez badute, arrazoia adieraziko da.*

n) Termino juridikoen eremu semantikoa eta antolamendu juridikoaren barne koherentzia bermatzeko tenorean, gaztelaniazko *término municipal*, *distrito*, *partido* eta *circunscripción* finkatu beharreko terminoak dira. Hurrenez hurren, *udalerr*i, *distrito*, *barruti* eta *mugape* aukeratu izan dira halakoetarako.

ñ) Lege-testu honetan *fuero* eta *aforado* hitzak aipatzen direnean, hitz horiek prozesuko esanguran ulertu behar dira; ez, ordea, ohiturazko foru-zuzenbideari begira. Hala eta guztiz ere, euskarazko bertsioan aukeratutako ordainak, kasu batean eta bestean, *foru* eta *forudun* izan dira:

(11g) *El conocimiento de las causas por delitos en que aparezcan a la vez culpables personas sujetas a la jurisdicción ordinaria y otras aforadas corresponderá a la ordinaria, salvo las excepciones consignadas expresamente en las leyes respecto a la competencia de otra jurisdicción.*

(11e) *Delituen ondoriozko auzetara, errudun gisa agertzen badira, aldi berean, jurisdikzio arruntaren mende dauden pertsonak eta beste batzuk, forudunak direnak, orduan auzi horien gaineko eskumena jurisdikzio arruntak izango du, legeak beste jurisdikzio baten eskumenari begira beren beregi salbuespenak ezartzen dituenean izan ezik.*

o) Bestalde, gaztelaniazko *reconocimiento* hitzak ordain desberdinak ditu euskaraz, horretarako aintzat hartu baita hitza horrek kasuan-kasuan dituen esangurak. Batzuetan, aditzak *aitortzea* adierazi nahi du:

(121g) *Todos los que sean parte en una causa, si no se les hubiere reconocido el derecho a la asistencia jurídica gratuita...*

(121e) *Auzian alderdi diren guztiei ez bazaie aitortu doako laguntza juridikoaren eskubidea, euren ordezkari diren prokuradoreen eskubideak...*

Noizbait, aldiz, *aztertzea* baino ez da:

(510.4g) *El preso sometido a incomunicación que así lo solicite tendrá derecho a ser reconocido por un segundo médico forense designado por el juez o tribunal competente para conocer de los hechos.*

(510.4e) *Preso inkomunikatuak hala eskatuz gero, eskubidea izango du mediku forentse batek bera aztertzeko; forentse hori egitateen gaineko arduraren duen epaileak izendatuko du.*

Eta, beste batzuetan, *identifikatzea* da haren esangura:

(422g) *Si el testigo residiere fuera del partido o término municipal del Juez que instruyese el sumario, éste se abstendrá de mandarle comparecer a su presencia, a no ser que lo considere absolutamente necesario para la comprobación del delito o para el reconocimiento de la persona del delincuente, ordenándolo en este caso por auto motivado.*

(422e) *Sumarioaren instrukzioa egin duen epailearen barruti edo udalerritik kanpo bizi bada lekukoa, epaileak ez dio aginduko bere aurrera agertzea, salbu eta delitua egiaztatzeko edo delitugilea identifikatzeko hori erabat beharrezkoa denean; hala gertatuz gero, auto ziodunaren bidez aginduko dio hari bere aurrera agertzeko.*

p) Atal honi dagokion azken xehetasuna emateko, hona hemen gaztelaniazko *intervenir* aditzaren ordaina nola eman den testu honetan: kontuan harturik horrek hainbat esanahi desberdin har ditzakeela bere baitan, kasuan kasuko esamoldearen arabera jokatu da.

Batzuetan, aditzak *esku hartzea* adierazi nahi du:

(234g) *Recibido dicho informe, se pasará al Fiscal, si la causa fuere por delito en que tenga que intervenir, para que emita dictamen por escrito en el término de tres días.*

(234e) *Behin txosten hori jasota, fiskalari emango zaio, baldin eta auzia delituen ondoriozkoa bada eta fiskalak auzi horretan esku hartu behar badu, idatzizko irizpena eman dezan hiru eguneko epe-mugan.*

Beste batzuetan, ostera, *esku sartze* ordainarekin eman daiteke:

(5792.g) *Asimismo, el Juez podrá acordar, en resolución motivada, la intervención de las comunicaciones telefónicas del procesado.*

(5792.e) *Gisa berean, epaileak ebazpen arrazoituaren bidez erabaki ahal izango du auzipetuaren telefono bidezko komunikazioetan esku sartzea.*



Zenbaitetan, *bahitzea* besterik ez da:

(764.4.g) *Se podrá acordar la intervención inmediata del vehículo y la retención del permiso de circulación del mismo...*

(764.4.e) *Ibilgailua berehala bahitu eta ibilgailu horren zirkulazio-baimena kentzeko erabakia hartu ahal izango da...*

Eta, inoiz, *kendu* ere izan daiteke:

(338g) *Sin embargo, podrá decretarse la destrucción, dejando muestras suficientes, cuando resultare necesaria o conveniente por la propia naturaleza de los efectos intervenidos o por el peligro real o potencial que comporte su almacenamiento o custodia.*

(338e) *Hala ere, horiek suntsitzea dekreta daiteke behar besteko laginak utzita, baldin eta beharrezkoa edo komenigarria bada kendutako efektuen berezko izaerarengatik edo horien biltegitratzeak edo jagoletzak eragin dezakeen arriskuarengatik, arrisku hori benetakoa izan nahiz ustezkoa dela.*

### Morfosintaxia

borrokarako eta defentsarako armak. Auzitegiak ere bertatik hartzen ditu bere-diktuaren oinarriak. Horregatik, argi dago izapide horretan bakarrik gerta daitekeela lekukoak bidegabe auzipetuaren alde egi-tea edo horri kalteak sorraraztea, bai eta gizartearekin eta herritar moduan dituen eskubideekin leiala edo traidorea izatea. Arrazoi hori logika hutsaren bidetik doa, eta beste arrazoi hau gehi dakioko: egia ikertzeko erraztasunak jartzea eta epai-tzak egokiak izan daitezen ziurtatzea.

Alferrekoa izango litzateke zientzia-ren aurrerapenei men egitea, zertarako eta idatzizko inkisizio-prozedura sekreta guztiz baztertu, eta, horren orde-z, honako babes-printzipio hauek jartze-ko: askatasun-printzipioa, aurkakotasun-printzipioa, alderdi auzilarien arteko baldintza-berdintasunaren printzipioa, eta publizitate-nahiz ahozketasun-printzipioak. Hori ez litzateke bidezkoa izango, baldin eta instrukzio-epaileak lekukoaren lehenengo iritziak isilpean jaso, eta, fideltasun handiagoarekin nahiz txikiagoarekin, iritzi horiek auzi-pa-peretara bildu ondoren, lekukoa epai-keta-ekitaldira agertzen bada, auzitegi epai-emailearen aurrean eta eztabaide-tara joan den jendearen aurrean, guztiz kikildurik eta eskuak lotuta, sumarioan egin dituen adierazpenak oroitarazio edo irakurtzen zaizkionean. Lekukoak bel-dur izango du, edozein kontraesan egi-teagatik erantzukizun kriminala eskatu ahal zaiolako. Beldur horren ondorioz, presidentearen, Fiskaltzaren eta defen-datzaileen galderei aise eta lasai eran-tzun beharrean, lekukoak bere adieraz-penak berretsi besterik ez du egingo, eta, horrela, epaiketa-ekitaldi solemnean

que se obligara a los testigos del sumario a ratificarse en el plenario con la seguridad de ser castigados como perjurados en caso de apartarse en la diligencia de ratificación de lo que antes habían declarado; si esta fundadísima crítica iba dirigida a un sistema en el que el sumario era el alma de todo el organismo procesal, por no decir el proceso entero, tratándose en la hora presente de un método de enjuiciar en el cual el sumario es una mera preparación del juicio, siendo en éste las cuestiones que jueguen en la causa, no es posible sostener aquella antigua legislación, tan inflexible y rigurosa, que, sobre anular la libertad y espontaneidad de los testigos, expuestos a una persecución originada en una traducción infiel de su pensamiento, pugnaría hoy abiertamente con la índole del sistema acusatorio y con la esencia y los altos fines del juicio público oral.

Todas estas concesiones al principio de libertad, que a una parte de nuestros Jueces y Magistrados parecerán sin duda exorbitantes, no contentarán aún, probablemente, a ciertas escuelas radicales que intentan extender al sumario, desde el momento mismo en que se inicia, las reglas de publicidad, contradic-

hura aztertzea formalitate hutsa izango da. Nolanahi ere, gure artean, goi mailako idazle eta juriskontsulto batzuek, inkisizio-prozeduraren baldintzak aztertzean, gogor kritikatu dute sumarioko lekukoei behartzea plenarioan adierazitakoa berrestera; lekuko horiek ziur dakite zin faltuarengatik zigortuak izango direla, berreste-eginbidean aldentzen badira aurretiaz adierazi duten horretatik. Kritika hori oinarriduna da oso. Zehatz esateko, kritikatzeko modukoa da gure sistema honetan sumarioa prozesuko organismo osoaren arima izatea, prozesu osoarena dela ez esatearren. Gaur egun, ordea, sumarioa epaitze-metodoa besterik ez da. Metodo horretan, sumarioak epaiketa prestatzeko balio du, eta epaiketa horretan argitu beharko dira egitate guztiak, eta epaiketa horretan eztabaidatu beharko dira auzipeko arazo guztiak. Hori dela eta, ezinezkoa da antzinako legeriari eustea, legeria hori zurrun eta zorrotz gertatzen baita. Gainera, legeria horrek lekukoen askatasuna eta berezkitasuna desagerrarazten ditu, haiek pertsegituak izateko arriskupean baitaude, euren pentsamenduaren itzulpen fidegabea gertatuz gero. Gaur egun hori ez dator bat akusazio-sistemaren izaerarekin, ezta jendaurreko eta ahozko epaiketaren muinarekin eta helburu nagusiekin ere.

Askatasun-printzipioaren ondorio horiek guztiak, gure epaile eta magistratu batzuen iritziz, gehiegizkoak izango dira zalantzarik gabe. Alabaina, ondorio horiek ez dituzte asebeteko, ziur asko, muturreko eskolak, eskola horien asmoa baita sumarioari hedatzea, hori hasten den unetik, publizitate-, aur-

ción e igualdad que el proyecto de Código establece desde que se abre el juicio hasta que se dicta la sentencia firme. No niega el infrascrito que insignes escritores mantienen esta tesis con ardor y con fe; pero hasta ahora no puede considerársela más que como un ideal de la ciencia, al cual tiende a cercarse progresivamente la legislación positiva de los pueblos modernos. ¿Se realizará algún día por completo? El Ministro que suscribe lo duda mucho. Es difícil establecer la igualdad absoluta de condiciones jurídicas entre el individuo y el Estado en el comienzo mismo del procedimiento, por la desigualdad real que en momento tan crítico existe entre uno y otro; desigualdad calculadamente introducida por el criminal y de que éste sólo es responsable. Desde que surge en su mente la idea del delito, o por lo menos desde que, pervertida su conciencia, forma el propósito deliberado de cometerle, estudia cauteloso un conjunto de precauciones para sustraerse a la acción de la justicia y coloca al Poder público en una posición análoga a la de la víctima, la cual sufre el golpe por sorpresa, indefensa y desprevenida. Para restablecer, pues, la igualdad en las condiciones de la lucha, ya que se pretende por los aludidos escritores que el procedimiento criminal no debe ser más que un duelo noblemente sostenido por ambos combatientes, menester es que el Estado tenga alguna ventaja en los primeros momentos siquiera para recoger los vestigios del crimen y los indicios de la culpabilidad de su autor. Pero sea de esto lo que quiera, la verdad es que sólo el porvenir puede resolver el problema de si llegará o no a realizar-

kakotasun- eta berdintasun-erregelak. Kodearen proiektuan, ordea, erregela horiek ezartzen ditu, epaiketa irekitzen denetik epai irmoa eman arte. Berau sinatzen duenak ez du ukatzen idazle ospetsuek tesi horri eusten diotela sutsu eta fedez; baina orain arte behintzat hori ezin da izan zientziako ideal bat baino. Zinez, herri modernoetako lege-ria positiboa ezari-ezarian ideal horretara hurbilduko da. Baina inoiz gertatuko al da hori bete-betean? Berau sinatzen duen ministroak zalantza asko egiten ditu horretan. Oso zaila da, prozeduraren hasieran bertan, gizabanako eta estatuaren artean, baldintza juridikoen erabateko berdintasuna ezartzea, une kritiko horretan benazko desberdintasuna gertatzen baita bataren eta bestearen artean. Desberdintasun hori nahita eragin du kriminalak berak, eta bera bakarrik da horren erantzule. Kriminalaren adimenean delituaren ideia sortzen denetik, edo, behintzat, haren kontzientzia nahasita, delitua egiteko guraria sortzen zaionetik, kontu handiarekin aztertzen ditu zenbait arreta, justiziaren akzioetik bere burua aldentzeko. Horrenbestez, botere publikoa biktimaren antzeko egoeran jartzen du kriminal horrek, eta botere publikoak ezustean jasaten du kolpea, defentsarik gabe eta oharkabean. Hori dela bide, borrokan izan beharreko baldintza-berdintasuna berrezarri beharra dago. Izan ere, aipatu idazleen aburuz, prozedura kriminala borrokalari bien arteko bataila orekatu baino ez da izan behar. Horretarako, estatuak zenbait abantaila izan behar ditu lehenengo uneetan, krimenaren aztar-nak eta egilearen erruduntasunaren zantzuak jaso ahal izateko. Edonondik be-

se aquel ideal. Entre tanto, los que tienen la honra de dirigir los destinos de un pueblo están obligados a ser prudentes y a no dar carta de naturaleza en los Códigos a ideas que están todavía en el período de propaganda, que no han madurado en la opinión ni menos encarnado en las costumbres, ni se han probado en la piedra de toque de la experiencia.

El Gobierno de V.M. cree ser consecuente con el espíritu liberal que informa su política introduciendo, dentro de ciertos límites racionales, el sistema acusatorio en el sumario, lo cual constituye un gran progreso sobre la Ley de 22 de diciembre de 1872. No hay tampoco una sola nación en el continente europeo que vaya en esto más allá que el adjunto proyecto de Código, ni siquiera la Alemania en cuyas leyes procesales quedó impreso como en roca de granito el sello característico del individualismo germánico, sin que hayan alcanzado a borrarle ni la autoridad prepotente de sus Monarcas, ni sus grandes glorias militares, ni su reciente y portentoso engrandecimiento territorial.

Con idéntico criterio resuelve el nuevo Código las demás cuestiones fundamentales del Enjuiciamiento. En materia penal hay siempre dos intereses rivales y contrapuestos: el de la sociedad, que tiene el derecho de castigar, y el del acusado, que tiene el derecho de defenderse. El carácter individualista del derecho se ostenta en el sistema acusatorio, en el cual se encarna el respeto a la personalidad del hombre y a la libertad de la conciencia, mientras que el procedimiento de oficio e inquisitivo

giratuta ere, egia da etorkizunak esango duela ideal hura betetzen den ala ez. Bien bitartean, herri bateko patua gidatzeko ohorea dutenak kontu handiarekin ibili behar dira, eta ezin dituzte kodeetan barneratu oraindik propaganda-aldian dauden ideiak, iritzi horiek ez baitute heldutasunik eskuratu, ez baitaude ohituretan errotuta eta ez baitira esperientziaren bitartez frogatu.

Maiestate Horren Gobernuak uste du bere politikaren espiritu liberalarekin bat datorrela, arrazoizko muga zehatz batzuen barruan, akusazio-sistema sumarioan barneratzea. Hori aurrerakada handia da, 1872ko abenduaren 22ko Legeari begira. Gainera, Europako kontinentean ez dago nazio bakar bat ere, gai horretan beroni erantsitako kode-proiektuaz harago doanik, ezta Alemania bera ere. Alemanian, prozesuko legeetan, granitozko haitzean bezala, inprimaturik geratu zen individualismo germaniarraren zigilua; bertako errege-erreginen agintaritza ahaltsuak ere ezin izan du hori ezabatu, ezta haren militar loriatsuek eta arestian izandako lurralde-zabalkuntza indartsuak ere ez.

Irizpen bera erabili da kode berrian, prozeduraren inguruan gainerako oinarritzko arazoak konpontzeko. Zigor-arloan beti ageri dira bi interes kontrajari: batetik, gizartearen interesa, hark zigortzeko eskubidea duela; eta, bestetik, akusatua-ren interesa, bere burua defendatzeko eskubidea duena. Eskubideak, akusazio-sistemaren barruan, izaera individualista du, horretan sustraitzen baita gizakiaren nortasunari eta kontzientzia-askatasunari zor zaien begirunea. Ofiziozko inkisizio-prozedurak, aldiz, gizarte-printzipioa barnera-

representa el principio social y se encamina preferentemente a la restauración del orden jurídico perturbado por el delito, apaciguando al propio tiempo la alarma popular. Por lo tanto, el problema de la organización de la justicia criminal no se resuelve bien sino definiendo claramente los derechos de la acusación y de la defensa, sin sacrificar ninguno de los dos, ni subordinar el uno al otro, antes bien, armonizándolos en una síntesis superior.

Formando de oficio o a instancia de parte el sumario por un funcionario independiente del Tribunal que ha de sentenciar; obligado por la Ley este instructor a recoger así los datos adversos como los favorables al procesado bajo la inspección inmediata del Fiscal, del acusador particular y, hasta donde es posible, del acusado o su letrado defensor; otorgada una acción pública y popular para acusar, en vez de limitarla al ofendido y sus herederos; reconocida y sancionada la existencia del Ministerio Fiscal, a quien se encomienda la misión de promover la averiguación de los delitos y el castigo de los culpables, sin dejar por esto de defender a la vez al inculpado inocente, resulta que puede, sin peligro de los intereses públicos y particulares, ceñirse el Tribunal al ejercicio de una sola atribución, la de fallar como Juez imparcial del campo sin sujetarse a una prueba tasada de antemano por la Ley; antes bien, siguiendo libremente las inspiraciones de su conciencia, exento de las pasiones que enciende siempre la lucha en el ánimo de los contendientes y sin el aguijón del amor propio excitado en el Juez instructor

tzen du, eta horren lehenbesteko helburua da delituaren ondorioz hautsita geratu den ordena juridikoa berrezartzea, aldi berean herritarrengan sorturiko alarma baretuz. Horrenbestez, justizia kriminalaren antolaketari buruzko arazoa behar den moduan konpontzeko, akusazio- eta defentsa-eskubideak argi eta garbi definitu behar dira, bietatik bat ere sakrifikatu gabe, eta bata bestearen mende jarri gabe; aitzitik, gorengo sintesi batean bi-biok harmonizatuz.

Auzitegiak epaia eman behar duenez gero, auzitegi horrengandik independente den funtzionarioak eratuko du sumarioa, ofizioz edo alderdiak hala eskatuta. Lege-aginduz, instruktore horrek auzipetuaren aldeko nahiz kontrako datuak bilduko ditu, fiskalaren, akusatzaile partikularraren eta, ahal den neurrian, akusatuaren edo beraren letradu defentsariaren, zuzeneko ikuskapenaren mende. Bestalde, akusatzeko akzio publikoa eta herri-akzioa onartu dira, akzioa ofendituari eta beraren jaraunseei bakarrik eman beharrean. Halaber, Fiskaltzaren existentzia aitortu eta sendetsi da. Fiskaltzari delituen ikerketa eta errudunen zigorra sustatzeko eginkizuna ezartzen zaio, eta, aldi berean, horri kalterik egin gabe, erruztatu errugabea defendatu beharko du. Hori guztia aintzat hartuta, eta interes publikoak eta partikularrak arriskuan jarri gabe, auzitegiak eskumen bakarra balia dezake, alegia, eremu horretako epaile inpartzial gisa epaitza ematea, legeak alde aurretik tasatutako frogaren mende geratu gabe. Horrela, auzitegiak bere kontzientziaren iradokizunak izango ditu kontuan eta alde batera

por las estratagemas que en ocasiones emplean el acusado y el acusador privado para burlar sus investigaciones y, aun sin esto, por las mismas dificultades inherentes de ordinario a la instrucción.

Para mantener al Tribunal en esta serena y elevada esfera y no desvirtuar el principio acusatorio que informa el nuevo Código, ha creído el que suscribe que únicamente al Ministerio Fiscal o al acusador particular, si le hubiere, corresponde formular el acta de acusación comprensiva de los puntos sobre que en adelante deben girar los debates, siguiendo en esto al código de instrucción criminal austriaco, que es acaso, de los actualmente vigentes en la Europa continental, el que ha desarrollado con más lógica y extensión el sistema acusatorio. Así es como se logra que la cuestión criminal que en el proceso se agita o discute vaya intacta al Tribunal a quien corresponde decidirla; así es como las partes pueden preparar con perfecto conocimiento de causa los respectivos elementos de cargo y descargo y hacer sus acusaciones o defensas con fe y libertad completa, sin la coacción, si quiera sea moral, que no puede menos de existir cuando el que ha de fallar prejuga en cierto modo el fallo, formulando de oficio el acta de acusación, lo cual lleva, naturalmente, el desaliento al ánimo de aquel de los contendientes a

utziko ditu borrokalariengan lehiak pizten dituen grinak. Gainera, auzitegiak ez du izango instrukzio-epailearengan nork bere buruzaleak eragiten duen akuilua, sarritan akusatuak eta akusatzaile pribatuak halako amarruak erabiltzen baitituzte, instrukzio-epailearen ikerketei iseka egiteko. Eta, halako amarruak gertatu ez arren, instrukzioak berak maiz-sarri hainbat zailtasun dakartza berarekin, eta horietatik aske egongo da auzitegia.

Auzitegia goragoko eremu lasai horretan jarri behar da, kode berrian barneratutako akusazio-printzipioa desitxuratu gabe. Horretarako, berau sinatzen duenak uste du Fiskaltzari, edo, hala izanez gero, akusatzaile partikularrari bakarrik dagokiola, akusazio-akta eratzea; akta horretan jasoko dira, jaso ere, geroagoko eztabaidetan aztertuko diren arazoak. Horretan, eredu hartu da Austriako instrukzio kriminalaren kodea; Europako kontinentean indarrean dauden kode guztien artean, beharbada horixe da akusazio-sistema logika eta zabalkuntza handienarekin garatu duena. Horrela lor daiteke, prozeduran arazo kriminala aztertu edo eztabaidatu eta gero, hori ukitu gabe iristea hura erabaki behar duen auzitegira. Horrela ere, alderdiek, arazo guztien jakitun izanik, behar bezala prestatu ahal dituzte egozketa- eta zuribide-osagaiak. Halaber, alderdiek akusazioak edo defentsak egin ahal dituzte fede eta askatasun osoarekin, derrigor-tzerik gabe, ezta derrigor-tze moralik ere. Derrigor-tze morala gerta daiteke, ordean, epaitza eman behar duenak, neurri batean behintzat, epaitza hori aurretiaz moldatu duenean, ofizioz akusazio-akta



quien perjudica la calificación jurídica hecha prematuramente, aunque con carácter provisorio, por el Tribunal. Ni son éstos los únicos inconvenientes que acarrea la admisión del acta de acusación de oficio, pues una vez formulada ésta, o se obliga al Ministerio Fiscal a sostenerla contra sus convicciones, poniendo en tortura su conciencia, o se le deja en libertad para combatirla, en cuyo caso ya no son las partes quienes contienden entre sí, sino que se discute únicamente de que la excitación del amor propio de los Jueces ofusque o perturbe su inteligencia. No; los Magistrados deben permanecer durante la discusión pasivos, retraídos, neutrales, a semejanza de los Jueces de los antiguos torneos, limitándose a dirigir con ánimo sereno los debates. Por esto, entre las obligaciones impuestas al Ministerio Fiscal en Francia y Alemania de formular un acta de acusación cuando así lo ha acordado el respectivo Tribunal, la libertad que a dicho Ministerio otorga la Ley austríaca, ha optado el que suscribe por la última solución, que respeta más los fueros de la conciencia, los derechos individuales, y está más en consonancia con el principio fundamental en que descansa el sistema acusatorio.

eginez. Horrek, nahitaez, etsipena dakar auzilarietatik batengan, horrentzat kaltegarria baita auzitegiak, behin-behinean baina garaia baino lehenago, egindako kalifikazio juridikoa. Hortaz, ofiziozko akusazio-akta onartzeak zailtasun horiek dakartza berarekin. Baina ez horiek bakarrik; beste batzuk ere badira. Arean ere, behin akta eratuta, Fiskaltza behartu behar da bere iritzien aurka akta horri eustera, bere kontzientzia torturapean jarrita; edo, bestela, Fiskaltzari askatasuna eman behar zaio haren aurka egiteko. Azken kasu horretan, jadanik ez dute euren artean borrokan egingo alderdiek bakarrik. Aitzitik, eztabaidapean jartzen da, soil-soilik, auzitegiaren pentsamendua, iritzia, hark emandako azalpena. Horrela, auzitegia borroka-zelaian jarri behar da, akusatzaile bihurtuz, eta horrek arrisku nabaria dakar berarekin, epaileen euren buruzaletasunak euren adimena nahas edo oztopa dezakeelako. Ez; magistratuen jarrera, eztabaidetan, pasiboa izan behar da, ekimenik gabekoa, neutrala, antzinako torneoetako epaileek egiten zuten bezalakoa; eztabaidok lasaitasunez zuzendu besterik ez dute egin behar. Horregatik, Frantzian eta Alemanian, Fiskaltzari ezarritako betebarren artean bat da akusazio-akta aurkeztea, kasuan kasuko auzitegiak hori erabaki duenean; haatik, Austriako legeak horretarako askatasuna ematen dio Fiskaltzari. Hori kontuan hartuta, berau sinatzen duenak azken konponbide hori aukeratu du, konponbide horrek hobeto errespetatzen dituelako kontzientzia-foruak eta gizabanakoaren esku-bideak, eta akusazio-sistemaren oinarri den oinarrizko printzipioari hobeto egokitzen zaiolako.

Este principio aplicado en absoluto adolece, sin embargo, de un vicio, que han puesto en relieve insignes Magistrados encanecidos en la Administración de Justicia. Proscrita para siempre la *absolución de la instancia* y riegiendo sin excepción la máxima *non bis in idem*, evidente es que el error del Fiscal en la calificación jurídica del hecho justificable produce la impunidad del delincuente. Está bien que en los procesos civiles el Tribunal tenga la obligación de absolver o condenar, así como también la de ajustar estrictamente su fallo a los términos en que las partes hayan planteado el problema litigioso, o sea, la acción ejercitada por el demandante, y a las excepciones formuladas por el demandado; porque las cuestiones que en esos procesos se ventilan son de mero interés privado, y porque, además, no es raro que pueda subsanarse total o parcialmente en un nuevo proceso el error padecido al entablar la acción, para lo cual suelen hacerse reservas de derecho en la sentencia a favor del condenado; pero en los procesos criminales, que pueden incoarse de oficio, están siempre en litigio el interés social y la paz pública; y teniendo el Tribunal la obligación de condenar o absolver libremente, sin reserva alguna y sin que le sea lícito abrir un nuevo procedimiento sobre el mismo hecho ya juzgado, es violento torturar la conciencia de los Magistrados que le forman hasta el punto de colocarles en la dura alternativa de condenar al acusado a sabiendas de que faltan a la Ley o cometen una nulidad, o absolverle con la convicción de que es criminal, dejando que insulte con su presencia y aire de triunfo a la

Printzipio hori erabat aplikatzeak, alabaina, akats bat du, eta horixe azpimarratu dute Justizia Administrazioan urte luzeak eman dituzten magistratu ospetsu batzuek. Auzialdiko absoluzioa behin betiko baztertuta, eta, salbuespenik gabe, *non bis in idem* printzipioa aplikatuta, begi-bistakoa da fiskalak, epaitu beharreko egitatearen kalifikazio juridikoa egitean, okerra eginez gero, horrek berarekin dakarrela delitugilea zigorrik gabe geratzea. Ondo dago prozesu zibiletan auzitegiak absoluzioa edo kondena ezartzeko betebeharra izatea. Ondo dago, orobat, epailearen epaitza zehatz-mehatz mugatzea alderdiek azaldutako auzi-arazoetara, hau da, demandatzaileak egikaritutako akziora eta demandatuak aurkeztutako salbuespenetara. Izan ere, prozesu horietan konpontzen diren arazoek interes pribatu hutsa dute, eta, horrez gain, ez da arraroa prozesu berri batean guztiz edo zati batez konpontzea akzioa egikaritzean izandako okerra. Hala izan dadin, epaian eskubideak erreserbatu ohi dira kondenatuaren mesederako. Zernahi gisaz, prozesu kriminaletan, ofizios has daitezkeen horietan, beti daude jokoan gizartearen interesa eta bake publikoa. Gainera, halako prozesuetan, auzitegiak askatasuneko absoluzioa edo kondena ezartzeko betebeharra du, inolako erreserbarik egin gabe; eta ez da zilegi jadanik epaitutako egitate berberari buruz beste prozedura bat irekitzea. Hori guztia dela eta, oso gogorra da auzitegia osatzen duten magistratuen kontzientzia torturatzea, haiei bi aukera hauek bakarrik eskainiz: akusatua kondentatzea, nahiz eta jakin horrekin legea hausten dutela edo deuseztasuna eragi-

víctima y su familia tan sólo porque el Ministerio público no ha sabido o no ha calificar el delito con arreglo a su naturaleza y a las prescripciones del Código Penal. De todas suertes, es innegable que, llevados a tal exageración el sistema acusatorio y la pasividad de los Tribunales, éstos abdican en el Fiscal, en cuyas manos queda toda entera la justicia. De su buena o mala fe, que no sólo de su pericia, dependería exclusivamente en lo futuro la suerte de los acusados.

Y suponiendo que algún día el legislador, echándose en brazos de la lógica, llegase hasta este último límite del sistema acusatorio, el Gobierno de V.M. ha creído que la transición era demasiado brusca para este país, en que los Jueces han sido hasta ahora omnipotentes, persiguiendo los delitos por su propia y espontánea iniciativa, intruyendo las causas los mismos que habían de fallarlas, ejerciendo la facultad omnímoda de separarse de los dictámenes fiscales, así durante la sustanciación como en la sentencia definitiva, calificando según su propio juicio el delito y designando la pena, sin consideración a las conclusiones de la acusación y la defensa, y empleando, por último, la fórmula de la absolució n de la instancia, o, lo que es

ten dutela; eta, gisa bertsuan, akusatua absolbitzea, uste osoz kriminala dela pentsatu arren. Azken kasu horretan, akusatu absolbituak, bere presentzia eta garaipen-jarrerarekin, biktimari eta horren familiari iseka egiten die, eta hori gertatzeko arrazoi bakarra izan da, besterik gabe, Fiskaltzak delitua ez kalifikatzea, horri dagokion izaeraren arabera eta Zigor Kodean ezarritako manuen arabera, hori egiten jakin ez duelako edo ezin izan duelako hori egin. Edozein modutan ere, ukaezina da, akusazio-sistema mutur horretaraino eramanez gero, eta auzitegiak guztiz pasibo izanez gero, auzitegiok zeregin guztia uzten dutela Fiskalaren esku, alegia, horren esku geratzen da justizia osoa. Etorbizunean, akusatu en etorkizuneko patua Fiskaltzaren trebetasunaren mende geratuko litzateke, haren onuste edo gaitzustearen mende geratzeaz gain.

Gerta daiteke egunen batean legegilea, logikan oinarrituz, akusazio-sistemaren azken muga horretara iritea. Horregatik, Maiestate Horren Gobernuak uste izan du trantsizioa gogorregia zela herri honentzat. Egin-eginean ere, herri honetan, epaileak orain arte ahalguztidunak izan dira: delituak pertsegitu dituzte euren berezko ekimenarekin; berberak izan dira auzien instrukzioa egin dutenak eta horien gaineko epaitza eman dutenak; erabateko ahalmena izan dute, fiskalaren irizpenak baztertze ko, eta hala egin dute sarritan, auzia gauzatzen dagoela nahiz behin betiko epaia emateko unean; euren iritziaren arabera kalifikatu dute delitua eta halaxe jarri dute zigorra, akusazioaren nahiz defentsaren ondorioak aintzat hartu gabe; eta, azkenik,

lo mismo, dejando indefinidamente abierto el procedimiento cuando, faltos de pruebas para condenar, infundían en su mente las diligencias sumariales livianas sospechas contra el acusado. La sociedad debe marchar como la naturaleza, gradualmente y no a saltos: los progresos jurídicos deben irse eslabonando, si han de encarnar en las costumbres del país. Por esto, el Gobierno propone a V.M. la solución contenida en el artículo 733, que no altera en rigor la virtualidad del principio acusatorio. Según la estructura de la adjunta Ley, concluso el sumario, las partes hacen la calificación provisional del hecho justificable. Sobre sus conclusiones versan las pruebas que se practican durante todo el juicio; y al término de éste, cuando ya no faltan más que los informes del Fiscal y del defensor del acusado, autorizase a uno y otro para confirmar, rectificar o variar, en vista de las pruebas, su primera calificación. Al llegar a este trámite, todo, en rigor, está acabado; los Jueces han oído al reo y los testigos; han examinado las demás piezas de convicción y están en condiciones de apreciar con amplitud y acierto la naturaleza del hecho que es materia del juicio. Si en tal momento les asalta una duda grave sobre su verdadera calificación jurídica, ¿qué dificultad puede haber en que, hipotéticamente, sin prejuzgar el fallo definitivo y sólo por vía de ilustración, invite el Presidente del Tribunal al Ministerio público y defensor del procesado para que en sus informes discutan una tesis más? El principio acusatorio quedaría quebrantado si ésta no hubiera de discutirse y resolverse con arreglo a las pruebas ya

auzaldiko absoluzioaren formula erabili dute, edo, gauza bera dena, prozedura epe-mugarik gabe irekita utzi dute, baldin eta, kondena ezartzeko frogarik izan ezean, euren aburuz sumarioko eginbide urri batzuek akusatuaren aurkako zantzuak sortu badituzte. Gizartea eta natura abiada berean joan behar dira: mailaz maila; ez, ordea, jauzika. Hau da, aurre-rapen juridikoak pausoz pauso gauzatu behar dira, horrela bakarrik barnera-tuko baitira herriaren ohituretan. Hori dela bide, Gobernuak Maiestate Horri proposatzen dio 733. artikuluan jasotako konponbidea, konponbide horrek ez baitu zalantzan jartzen akusazio-printzipioaren eragingarritasuna. Honi erantsitako legeak zein egitura duen aintzat hartuta, behin sumarioa amaitu eta gero, alderdiek behin-behineko kalifikazioa egiten dute epaitu beharreko egitatearen gainean. Ondorio horien gainean egiten dira, epaiketa osoan zehar, frogak; eta, epaiketa amaitzean, fiskalaren txostena eta akusatuaren defendatzailearen txostena besterik geratzen ez direnean, batari eta besteari baimena ematen zaie euren lehenengo kalifikazioa baieztatu, zuzendu edo aldatzeko, frogak begi-bistan izanda. Izapide horretara heltzuna, dena bukatuta dago: epailek erruduna eta lekukoak entzun dituzte; gainerako konbikzio-piezak aztertuz dituzte; eta epaitu beharreko egitatearen izaera zabal eta egoki baloratzeko baldintzak dituzte. Gerta daiteke une horretan epaileek zalantza gogorak izatea egitatearen benetako kalifikazio juridikoari buruz. Hala bada, zer-nolako zailtasuna egon daiteke, hipotesi moduan behintzat, behin betiko epaitza itxuratu gabe eta argibideak lortzeko helburu hutsarekin, auzi-

practicadas, dando lugar a que se abriese de nuevo o se prorrogase el juicio; pero como éste está ya terminado y no es permitido volver sobre él, todo lo que puede suceder es que el Fiscal o el Letrado necesiten veinticuatro horas para razonar sobre la hipótesis del Tribunal con la conveniente preparación.

Con ser tan modesta y estar tan ceñida esta facultad, declara, sin embargo, la Ley que no se extiende a los delitos privados o que sólo pueden perseguirse a instancia de parte, ni a la calificación de las circunstancias atenuantes o agravantes, ni a la de la participación respectiva de los procesados en la ejecución del crimen, quedando reducida a la satisfacción de una necesidad apremiante originada en un interés público y de orden social. Aun encerrada en tan estrechos límites, el Ministro que suscribe hubiera renunciado a ella y manteniéndose en el rigorismo del principio acusatorio, si los códigos más progresivos y liberales de la Europa continental le hubieran alentado con su ejemplo; pero no hay ninguno que no dé mayor amplitud a la intervención del Tribunal en el juicio. En Francia y Alemania ya se ha visto que le Ministerio Fiscal tiene la obligación de formular el acta de acusación cuando así lo acuerda el Tribunal respectivo, y, además, la misma

tegiko presidentek Fiskaltzari eta auzipetuaren defendatzaileari gonbita luza diezaien, beren txostenetan tesi bat gehiago eztabaidatzeko? Akusazio-printzipioa hautsita geratuko litzateke tesi hori eztabaidatu eta ebatziko ez balitz, jadanik egindako frogak kontuan izanda, horrek ekarriko bailuke beste epaiketa irekitzea edo dagoena luzatzea. Alabaina, epaiketa dagoeneko amaitu da eta debekatuta dago horri buruz berriro jardutea. Horregatik, hauxe baino ezin da gertatu: fiskalak edo letraduak hogeita lau ordu behar izatea, auzitegiaren hipotesiaren inguruan behar besteko prestaketarekin hausnartzeko.

Ahalmen hori, edonola ere, xume eta hertsia da. Horregatik, legeak adierazten du ahalmen hori ezin dela erabili delitu pribatuaren kasuan, eta alderdiak hala eskatuta bakarrik pertsegi daitezkeenetan, ezta inguruabar aringarri edo astungarriak kalifikatzean eta auzipetuek krimenaren betearazpenean kasuan-kasuan izan duten parte-hartzea kalifikatzean ere. Ondorenez, ahalmen horrek prezazko beharrezana asebeste nahi du, beharrezan hori sorrarazi baitute interes publikoak eta gizarte-ordenak. Nabarienez, ahalmena muga estuen barruan itxuratu da. Berau sinatzen duen ministroak buruan izan du ahalmen horri uko egitea eta akusazio-printzipioa zorrotz-zorrotz aplikatzea; baina ez du hori egin, Europako kontinenteko koderik aurreratu eta askeenek ere ez diotelako horretarako eredurik eskaini. Hala eta guztiz ere, kode hau da auzitegiari epaiketan esku hartzeko aukerarik handiena ematen diona. Frantzia eta Alemanian, Fiskaltzaren betebeharra da akusazio-akta

ley alemana y austríaca dejan a éste en libertad de apreciar el hecho justificable sin sujetarse a la calificación que de él hubieren hecho las partes y sin tomar la precaución de someter a éstas la nueva faz de la cuestión, a fin de que la discutan ampliamente antes de que recaiga el veredicto. Precediendo este solemne debate, no ampliándose ni reformándose en ningún caso las piezas de convicción, no puede, en rigor, acusarse de incongruencia al fallo, puesto que la Ley, en suma, se limita a establecer un medio de suplir la omisión del Fiscal, cuyo deber es hacerse cargo de todas las calificaciones probables que autorice la prueba practicada y que pueda aceptar el Tribunal, redactando al efecto, cuando fuere necesario. La pretensión alternativa de que habla el artículo 732, El Tribunal propone, hipotéticamente y sobre la base de una prueba inalterable, un tema de discusión momentos antes de pronunciar su veredicto, cuando cada Magistrado tiene ya formado su juicio definitivo sobre el voto que se va a dar. Mejor es, por tanto, que lo emita después de un debate que puede iluminar su mente y rectificar su juicio, que no autorizarle para que en el fallo se separe de las condiciones debatidas por las partes y siga sus propias inspiraciones, no contrastadas en el crisol de la contradicción, como le autorizan los Códigos austríaco y alemán, a pesar de ser los más adelantados de la Europa continental.

eratzea, kasuan kasuko auzitegiak hala erabakitzen duenean. Horrez gain, Alemaniako lege berberak eta Austriako legeak ere auzitegiari askatasuna ematen diote, epaitu beharreko egitatea baloratzeko, alderdiek egitate horren gainean egindako kalifikazioa bazter utzita, eta, inolako arretarik gabe, alderdiei arazoaren aurpegi berria erakutsi gabe, berediktua eman aurretik alderdion artean eztabaida zabala izan dadin. Eztabaida solemne hori ezarrita, eta konbikzio-piezak zabaldu eta eraldatu gabe, lege ezin da esan epaitzak kongruentziarik ez duenik. Legeak, azken finean, fiskalaren ez-egitea ordeztzeko baliabide bat besterik ez du eskaintzen, fiskalaren eginbeharra baita balizko kalifikazio guztiak bereganatzea, baldin eta egindako frogak ahalbidetzen baditu eta auzitegiak halako kalifikazioak onar baditzaize; horiek guztiak bereganatu, eta, beharrezkoa denean, fiskalak idatziko du 732. artikuluan adierazitako hautabidezko uzia; horrela, auzitegiak, hipotesi moduan eta froga aldaezina oinarritzat hartuta, eztabaidagaia proposatzen du, berediktua eman aurretik unean, betiere magistratu bakoitzak jadanik behin betiko erabakita duenean zein boto emango duen. Hobe da, ondorenez, berediktua ematea, eztabaida izan ondoren, hark bere adimena argitzeko, eta, beharbada, bere iritzia aldatzeko; helburua ez da, ordea, auzitegiari ahalbidetzea epaitza ematean alderdiek eztabaidatutako baldintzetatik aldendu dadin, bere barruko inspirazioak bakarrik kontuan hartuta, aurkakotasunaren argipean horiek erkatu gabe. Hori ahalbidetzen dute, nolnahi ere, Austriako eta Alemaniako kodeek, Europako kontinenteko aurreratuenak izan arren.

Tales son, Señor, prescindiendo de otras muchas reformas de menor importancia, aunque sustanciales y de evidentes mejoras de detalle en el método y la redacción, las novedades de más bulto que el proyecto adjunto introduce en nuestro procedimiento criminal.

No desconoce el Ministro que suscribe que la aplicación y cumplimiento de la nueva Ley, singularmente en los primeros años, tropezará con graves dificultades, siendo la mayor de todas ellas la falta de costumbres adecuadas al sistema acusatorio y al juicio oral y público. Educados los españoles durante siglos en el procedimiento escrito, secreto e inquisitorial, lejos de haber adquirido confianza en la Justicia y de coadyuvar activamente a su recta administración, haciendo, como el ciudadano inglés, inútil la institución del Ministerio público para el descubrimiento y castigo de los delitos, han formado ideas falsas sobre la policía judicial y se han desviado cada vez más de los Tribunales, mirando con lamentable recelo a Magistrados, Jueces, Escribanos y Alguaciles, y repugnando figurar como testigos en los procesos. Pero este mal será mayor cuanto más tiempo pase; y como lo actual no puede seguir sin desdoro de la Nación y de los Poderes que la gobiernan, lo mejor es decidirse, que alguna vez se ha de empezar, si la España no ha de ser una excepción entre los pueblos cultos de Europa y América.

Horiexek dira, jauna, honi erantsitako proiektuak gure prozedura kriminalean egiten dituen berrikuntza garrantzitsuenak. Badira beste eraldaketa batzuk ere, garrantzi txikiagoa dutenak; horiek, funtsezkoak izanda, xehetasun-hobekuntza nabariak egiten dituzte, hala metodoan nola idazkeran.

Berau sinatzen duen ministroak jakin badaki, lehenengo urteetan lege berria aplikatu eta betetzean, eragozpen handiak izango direla. Eragozpen horietatik garrantzitsuenak izango da, ziur asko, indarreko ohiturak egoki ez gertatzea akusazio-sistema aplikatzeko, eta ahozko eta jendaurreko epaiketa gauzatzeko. Espainiarrek, mendeetan zehar, inkisizio-prozedura idatzi eta sekretuaren hezkuntza hartu izan dute; ez dute Justiziarengan konfiantza eskuratu; eta, gainera, ez dute partaidetza aktiborik izan justizia behar bezala administratzeko orduan. Ingalaterrako herritarren kasuan, ordea, Fiskaltzaren erakundea alferrekoa gertatzen da delituak aurkitu eta horiek zigortzeko. Espainiako herritarrek, aldiz, ideia faltsuak eratu dituzte polizia judizialari buruz, eta auzitegietatik gero eta gehiago urrundu dira. Ildo beretik, mesfidantzaz ikusi dute magistratu, epaile, eskribau eta aguazilen jarduna. Eta, horrekin batera, ez zaie batera atsegin egiten prozesuetara lekuko gisa agertzea. Hala ere, gaitz hori handiagoa izango da denborak aurrera egin ahala. Gaur egungoak ezin du aurrera egin nazioaren eta hori gobernatzen duten botereen desohorerako ez bada. Horregatik, hobe da, noizbait bide horri ekin behar zaiola aintzakotzat hartuta, oraintxe bertan erabakia hartzea, Europa eta Ameriketako herri kultuener artean Espainia salbuespena izan ez dadin.

El Gobierno de V.M. tiene tal confianza en la aptitud especial y las condiciones privilegiadas de nuestra raza, que espera será breve el aprendizaje, no tan sólo en la aplicación de esta ley, sino en la obra aún más delicada de compartir con los Jueces la misión augusta de administrar justicia como Jurado; y que muy pronto el ciudadano español demostrará que es digno de gozar de las mismas ventajas que poseen los extranjeros.

El logro de fin tan importante y trascendental coadyuvarán, sin duda, el celo e ilustración de la Magistratura y del Ministerio público; que no es posible, Señor, montar una máquina delicada y hacerla funcionar con éxito sino contando con el asentimiento, el entusiasmo, la fe y el patriotismo de los que han de manejarla.

En vista de las razones expuestas, el Ministro que suscribe tiene la honra de someter a la aprobación de V.M. el adjunto proyecto de Decreto.

Maiestate horren Gobernuak erabateko konfiantza du gure arrazaren gaitasun berezi eta baldintza pribilegiatuetan, eta, ondorenez, uste du ikaskuntza-prozesua ez dela luze joango lege hau aplikatzeko orduan, ezta beste eginkizun zailago batean ere. Eginkizun zailago horren eretzean, herritarrek, epaileekin batera, justizia administratzeko gorengo eginkizuna beteko dute, epaimahaia eratuz. Espainiako herritarrak laster erakutsiko du behar besteko duintasuna duela, atzeritarrek dituzten abantaila berberak izateko.

Helburu hori lortzea garrantzitsu eta erabakigarri da oso. Horretarako, lagungarri izango da, zalantzarik gabe, magistraturaren eta Fiskaltzaren arreta eta prestakuntza. Jaun horrek dakienez, ezinezkoa da makina korapilatsua muntatu eta hori behar den moduan funtzionamenduan jartzea, makina hori erabili behar dutenen adostasun, adore, fede eta abertzaletasunarekin ez bada.

Azaldutako arazoak ikusita, berau sinatzen duen ministroak ohorez eskatzen dio Maiestate Horri honekin batera doan dekretu-proiektua onestea.



**LIBRO PRIMERO**  
DISPOSICIONES GENERALES

TÍTULO PRIMERO  
PRELIMINARES

CAPÍTULO PRIMERO  
Reglas generales

**Artículo 1**

No se impondrá pena alguna por consecuencia de actos punibles cuya represión incumba a la jurisdicción ordinaria, sino de conformidad con las disposiciones del presente Código o de leyes especiales y en virtud de sentencia dictada por Juez competente.

**Artículo 2**

Todas las Autoridades y funcionarios que intervengan en el procedimiento penal cuidarán, dentro de los límites de su respectiva competencia, de consignar y apreciar las circunstancias así adversas como favorables al presunto reo, y estarán obligados, a falta de disposición expresa, a instruir a éste de sus derechos y de los recursos que pueda ejercitar, mientras no se hallare asistido de defensor.

CAPÍTULO II  
Cuestiones prejudiciales

**Artículo 3**

Por regla general, la competencia de los Tribunales encargados de la justicia penal se extiende a resolver, para sólo

**LEHENENGO LIBURUA**  
XEDAPEN OROKORRAK

LEHENENGO TITULUA  
ATARIKOAK

LEHENENGO KAPITULUA  
Erregela orokorrak

**1. artikulua**

Egintza zigorgarriak jurisdikzio arruntaren mendekoak direnean, egintza horiei ez zaie inolako zigorrik ezarriko, kode honetan edo lege berezietan jasotako xedapenen arabera, eta epaile eskudunak emandako epaiaren bidez ez bada.

**2. artikulua**

Agintari eta funtzionario guztiek, zigor-prozeduran esku hartzen duten neurrian eta betiere bakoitzak bere esku-menaren barruan, ustezko errudunaren aurkako eta aldeko inguruabarrak jaso eta antzemango dituzte, eta, esanbidezko xedapenik izan ezean, hari argibideak eman beharko dizkiote berak egikari ditzakeen eskubide nahiz errekurtsioei buruz, defendatzailearen laguntzarik ez duen bitartean.

II. KAPITULUA  
Epaitu aurreko arazoak

**3. artikulua**

Oro har, auzitegiek zigor-arloko justiziaren ardura dutenean, euren eskumena zabaltzen da, betiere zigorra ezartzeko

el efecto de la represión, las cuestiones civiles y administrativas prejudiciales propuestas con motivo de los hechos perseguidos, cuando tales cuestiones aparezcan tan íntimamente ligadas al hecho punible que sea racionalmente imposible su separación.

#### **Artículo 4**

Sin embargo, si la cuestión prejudicial fuese determinante de la culpabilidad o de la inocencia, el Tribunal de lo criminal suspenderá el procedimiento hasta la resolución de aquélla por quien corresponda; pero puede fijar un plazo, que no exceda de dos meses, para que las partes acudan al Juez o Tribunal civil o contencioso-administrativo competente.

Pasado el plazo sin que el interesado acredite haberlo utilizado, el Tribunal de lo criminal alzará la suspensión y continuará el procedimiento.

En estos juicios será parte el Ministerio Fiscal.

#### **Artículo 5**

No obstante lo dispuesto en los dos artículos anteriores, las cuestiones civiles prejudiciales, referentes a la validez de un matrimonio o a la supresión de estado civil, se diferirán siempre al Juez o Tribunal que deba entender de las mismas, y su decisión servirá de base a la del Tribunal de lo criminal.

#### **Artículo 6**

Si la cuestión civil prejudicial se refiere al derecho de propiedad sobre un

ondoreetarako bakarrik, pertsegitutako egitateen ondorioz proposatu diren epaitu aurreko arazo zibilak eta administratiboak ebaztera, baldin eta arazook egitate zigorgarriarekin lotura badute, eta, ondorenez, horiek banantzea zentzuzkoa ez bada.

#### **4. artikulua**

Hala ere, epaitu aurreko arazoa erabakigarria bada erruduntasuna edo errugabetasuna ezartzeko, arlo kriminaleko auzitegiak prozedura etengo du dago-kionak arazo horren gaineko ebazpena eman arte; baina bi hil baino gehiagokoa ez den epea ezar dezake, alderdiek arlo zibileko edo administrazioarekiko auzien arloko epaile edo auzitegi eskudunarengana jo dezaten.

Epea igaro bada eta interesdunak ez badu horren erabilera egiaztatu, arlo kriminaleko auzitegiak etendura ezerezean utzi eta prozedurak aurrera egingo du.

Epaiaketa horietan Fiskaltza alderdi izango da.

#### **5. artikulua**

Aurreko bi artikuluetan xedatutakoa gorabehera, ezkontzaren baliozkotasunari edo egoera zibila ezabatzeari buruzko epaitu aurreko arazo zibilak beti igorriko zaizkio arazoon gaineko eskumena duen epaileari edo auzitegiari, eta horien gaineko erabakiak oinarri gisa balioko du arlo kriminaleko auzitegiak hartzen duen erabakiari dagokionez.

#### **6. artikulua**

Epaitu aurreko arazo zibila ondasun higiezin baten gaineko jabetza-eskubi-

inmueble o a otro derecho real, el Tribunal de lo criminal podrá resolver acerca de ella cuando tales derechos aparezcan fundados en un título auténtico o en actos indubitados de posesión.

### **Artículo 7**

El Tribunal de lo criminal se atemperará, respectivamente, a las reglas del Derecho civil o administrativo, en las cuestiones prejudiciales que, con arreglo a los artículos anteriores, deba resolver.

## **TÍTULO II**

### **DE LA COMPETENCIA DE LOS JUECES Y TRIBUNALES EN LO CRIMINAL**

#### **CAPÍTULO PRIMERO**

##### **De las reglas por donde se determina la competencia**

### **Artículo 8**

La jurisdicción criminal es siempre improrrogable.

### **Artículo 9**

Los Jueces y Tribunales que tengan competencia para conocer de una causa determinada, la tendrán también para todas sus incidencias, para llevar a efecto las providencias de tramitación y para la ejecución de las sentencias, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 801.

deari edo beste eskubide erreal bati buruzkoa izanez gero, arlo kriminaleko auzitegiak arazo hori ebatzi ahal izango du, eskubideok titulu kautoan edo edukitza-egintza zalantzagabeetan oinarritzen direnean.

### **7. artikulua**

Arlo kriminaleko auzitegia zuzenbide zibilaren edo administrazio-zuzenbidearen erregelei egokituko zaie, aurreko artikuluen arabera ebatzi behar dituen epaitu aurreko arazoetan.

## **II. TITULUA**

### **ARLO KRIMINALEKO EPAILE ETA AUZITEGIEN ESKUMENA**

#### **LEHENENGO KAPITULUA**

##### **Eskumena zehazten duten erregelak**

### **8. artikulua**

Jurisdikzio kriminala luzaezina da beti.

### **9. artikulua**

Auzi zehatz baten gaineko eskumena duten epaileek eta auzitegiek eskumena izango dute, orobat, horren intzidentzia guztietarako, izapideen probidentziak gauzatzeko, eta ebazpenak betearazteko, betiere 801. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

### Artículo 10

Corresponderá a la jurisdicción ordinaria el conocimiento de las causas y juicios criminales, con excepción de los casos reservados por las leyes al Senado, a los Tribunales de Guerra y Marina y a las Autoridades administrativas o de policía.

### Artículo 11

El conocimiento de las causas por delitos en que aparezcan a la vez culpables personas sujetas a la jurisdicción ordinaria y otras aforadas corresponderá a la ordinaria, salvo las excepciones consignadas expresamente en las leyes respecto a la competencia de otra jurisdicción.

### Artículo 12

Sin embargo de lo dispuesto en el artículo anterior, la jurisdicción ordinaria será siempre competente para prevenir las causas por delitos que cometan los aforados.

Esta competencia se limitará a instruir las primeras diligencias, concluidas las cuales la jurisdicción ordinaria remitirá las actuaciones al Juez o Tribunal que deba conocer de la causa con arreglo a las leyes, y pondrá a su disposición a los detenidos y los efectos ocupados.

La jurisdicción ordinaria cesará en las primeras diligencias tan luego como conste que la especial competente instruye causa sobre el mismo delito.

### 10. artikulua

Jurisdikzio arruntari dagokio arlo kriminaleko auzien eta epaiketen gaineko eskumena; hala ere, salbuespen gisa hartuko dira legeek Senatuari, gerra eta marinako auzitegiei, eta administrazio-nahiz polizia-agintariei erreserbatutako kasuak.

### 11. artikulua

Delituen ondoriozko auzietara, errudun gisa agertzen badira, aldi berean, jurisdikzio arruntaren mende dauden pertsonak eta beste batzuk, forudunak direnak, orduan auzi horien gaineko eskumena jurisdikzio arruntak izango du, legeak beste jurisdikzio baten eskumenari begira beren beregi salbuespenak ezartzen dituenean izan ezik.

### 12. artikulua

Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, jurisdikzio arruntak beti izango du eskumena, forudunek egindako delituen ondoriozko auzietan aurreneurriak hartzeko.

Eskumen horrek lehenengo eginbideen instrukzioa bakarrik barneratzen du; behin eginbideok amaituta, jurisdikzio arruntak jarduna igorriko dio legeen arabera auziaren gaineko eskumena izan behar duen epaileari edo auzitegiari, eta atxilotuak eta okupatutako efektuak horien esku utziko ditu.

Jurisdikzio arruntak lehenengo eginbideak gauzatzeari utziko dio, eskumena duen jurisdikzio bereziak egiaztatu bezain laster delitu berari buruzko auziaren instrukzioa egiten diharduela.

Los autos de inhibición de esta clase que pronuncien los Jueces instructores de la jurisdicción ordinaria son apelables ante la respectiva Audiencia.

Entre tanto que se sustancia y decide el recurso de apelación, se cumplirá lo dispuesto en el artículo 22 párrafo 2, a cuyo efecto y para la sustanciación del recurso se remitirá el correspondiente testimonio.

### Artículo 13

Se consideran como primeras diligencias la de consignar las pruebas del delito que puedan desaparecer, la de recoger y poner en custodia cuanto conduzca a su comprobación y a la identificación del delincuente, la de detener, en su caso, a los presuntos responsables del delito, y la de proteger a los ofendidos o perjudicados por el mismo, a sus familiares o a otras personas, pudiendo acordarse a tal efecto las medidas cautelares a las que se refiere el artículo 544bis o la orden de protección prevista en el artículo 544ter de esta ley.

### Artículo 14

Fuera de los casos que expresa y limitativamente atribuyen la Constitución y las leyes a Jueces y Tribunales determinados, serán competentes:

1) Para el conocimiento y fallo de los juicios de faltas, el Juez de Instrucción. Sin embargo, conocerá de los juicios por faltas tipificadas en los artículos 626, 630, 632 y 633 del Código Penal, el Juez de Paz del lugar en que se hubie-

Esta facultad excepcional, de que el Tribunal usará con moderación, no se extiende a las causas por delitos que sólo pueden perseguirse a instancia de parte, ni tampoco es aplicable a los errores que hayan podido cometerse en los escritos de calificación, así respecto de la apreciación de las circunstancias atenuantes y agravantes, como en cuanto a la participación de cada uno de los procesados en la ejecución de delito público, que sea materia de juicio.

Si el Fiscal o cualquiera de los defensores de las partes indicaren que no están suficientemente preparados para discutir la cuestión propuesta por el Presidente, se suspenderá la sesión hasta el siguiente día.

### Artículo 734

Llegado el momento de informar, el Presidente concederá la palabra al Fiscal si fuere parte en la causa, y después al defensor del acusador particular, si le hubiere.

En sus informes expondrán éstos los hechos que consideren probados en

«Akusazioaren eta defentsaren ondorioei buruzko behin betiko epaitza aurretik eman gabe, auzitegiak nahi du fiskalak eta auzipetuaren defendatzaileek (edo alderdien defendatzaileek, zenbait alderdi daudenean) berari informazioa eman diezaioten, epaitu beharreko egitateak ... delitu den jakiteko, edo Zigor Kodearen ... artikuluko ... zenbakiak erantzukizunetik salbuesteko aipatu inguruabarra dagoen jakiteko».

Auzitegiak neurritz erabiliko du salbuespeneko ahalmen hori, eta ahalmena ez da zabalduko alderdiek hala eskatuta bakarrik pertsegi daitezkeen delituen ondoriozko auzietara, ezta kalifikazio-idazkietan egin daitezkeen okerretara ere, dela inguruabar aringarri eta astungarrien antzemateari dagokionez, dela auzipetu bakoitzak epaiketaren gai den delitu publikoan izan duten parte-hartzeari dagokionez.

Fiskalak edo alderdien defendatzaileetatik edozeinek adierazten badu ez dagoela behar beste prestatuta presidentek proposatutako gaia eztabaidatzeko, orduan saioa eten egingo da hurrengo eguna arte.

### 734. artikulua

Informazioa emateko unea iritsita, presidentek hitza emango dio fiskalari, betiere auzian alderdi denean; eta, ondoren, akusatzaile partikularraren defendatzaileari, halakoa izanez gero.

Horiek euren txostenetan azalduko dituzte euren iritiz epaiketan egiaztatu-

el juicio, su calificación legal, la participación que en ellos hayan tenido los procesados y la responsabilidad civil que hayan contraído los mismos u otras personas, así como las cosas que sean su objeto, o la cantidad en que deban ser reguladas cuando los informantes o sus representados ejerciten también la acción civil.

### **Artículo 735**

El Presidente concederá después la palabra al defensor del actor civil si lo hubiere, quien limitará su informe a los puntos concernientes a la responsabilidad civil.

### **Artículo 736**

En seguida dará la palabra a los defensores de los procesados, y después de ellos a los de las personas civilmente responsables, si no se defendieren bajo una sola representación con aquellos.

### **Artículo 737**

Los informes de los defensores de las partes se acomodarán a las conclusiones que definitivamente hayan formulado, y en su caso a la propuesta por el Presidente del Tribunal con arreglo a lo dispuesto en el artículo 733.

### **Artículo 738**

Después de estos informes sólo será permitido a las partes la rectificación de hechos y conceptos.

ta geratu diren egitateak, horien legezko kalifikazioa, auzipetuek egitateotan izandako parte-hartzea eta auzipetuek nahiz beste batzuek bereganatutako erantzukizun zibila, bai eta haren gai diren gauzak, edo horiek neurtzeko kopurua ere, informatzaileek edo horien ordezkartuek akzio zibila egikaritzen dutenean.

### **735. artikulua**

Presidentek hitza emango dio, ondoren, auzi-jartzaile zibilaren defendatzaileari, halakoa izanez gero, eta horren txostena erantzukizun zibilarekin zerkusia duten puntuetara mugatuko da.

### **736. artikulua**

Berehalakoan hitza emango die auzipetuen defendatzaileei, eta, horien ondoren, erantzukizun zibila duten pertsonen defendatzaileei, haiekin batera ordezkartza bakarrarekin defendatzen ez badira.

### **737. artikulua**

Alderdien defendatzaileek txostenak prestatzean, txosten horiek behin betiko aurkeztutako ondorioetara egokituko dira, eta, hala denean, auzitegiko presidentek egindako proposamenena, 733. artikuluan xedatutakoaren arabera.

### **738. artikulua**

Txosten horiek egin ondoren, alderdiei baimena emango zaie egitateak eta kontzeptuak zuzentzeko bakarrik.

**Artículo 739**

Terminadas la acusación y la defensa, el Presidente preguntará a los procesados si tienen algo que manifestar al Tribunal.

Al que contestare afirmativamente, le será concedida la palabra.

El Presidente cuidará de que los procesados al usarla no ofendan la moral ni falten al respeto debido al Tribunal ni a las consideraciones correspondientes a todas las personas, y que se ciñan a lo que sea pertinente, retirándose la palabra en caso necesario.

**Artículo 740**

Después de hablar los defensores de las partes y los procesados en su caso, el Presidente declarará concluso el juicio para sentencia.

**Artículo 741**

El Tribunal, apreciando, según su conciencia las pruebas practicadas en el juicio, las razones expuestas por la acusación y la defensa y lo manifestado por los mismos procesados, dictará sentencia dentro del término fijado en esta ley.

Siempre que el Tribunal haga uso del libre arbitrio que para la calificación del delito o para la imposición de la pena le otorga el Código Penal, deberá consignar si ha tomado en consideración los elementos de juicio que el precepto aplicable de aquél obligue a tener en cuenta.

**739. artikulua**

Behin akusazioa eta defentsa amaituta, presidenteak auzipetuei galdetuko die auzitegiari zerbait adierazi behar dioten.

Horrela, baietz erantzun duenari hitza emango zaio.

Presidenteak zainduko du auzipetuek, hitza erabiltzean, moral eta auzitegiari zor zaion errespetuari kalterik ez egiteko, ezta pertsona orori zor zaion begiruneari ere; bestalde, auzitegiak zainduko du haiek harira datorrena bakarrik adieraztea, eta, beharrezkoa denean, hitza ere kenduko die.

**740. artikulua**

Alderdien defendatzaileek, eta, hala denean, auzipetuek ere hitz egin ondoren, presidenteak epaiketa amaitutzat joko du, epaia emateko egoeran.

**741. artikulua**

Auzitegiak bere kontzientziaren arabera balioetsiko du epaiketan egindako frogak, akusazioak eta defentsak azaldutako arrazoiak eta auzipetuek eurek adierazitakoa; horrela, epaia emango du lege honetan zehaztu epe-mugan.

Zigor Kodeak auzitegiari delitua kalifikatzeko edo zigorra ezartzeko ematen dionez gero, erabakimen hori erabiltzen duen guztietan jaso beharko du ea aintzat hartu dituen Zigor Kodearen manu aplikagarriaren arabera kontuan hartu beharreko epaiketa-osagaiak.

**Artículo 742**

En la sentencia se resolverán todas las cuestiones que hayan sido objeto del juicio, condenando o absolviendo a los procesados, no sólo por el delito principal y sus conexos, sino también por las faltas incidentales de que se haya conocido en la causa, sin que pueda el Tribunal emplear en este estado la fórmula del sobreseimiento respecto de los acusados a quienes crea que no debe condenar.

También se resolverán en la sentencia todas las cuestiones referentes a la responsabilidad civil que hayan sido objeto del juicio.

Lo dispuesto en el párrafo 5.º del artículo 635 sobre el destino de las piezas de convicción que entrañen, por su naturaleza, algún peligro grave para los intereses que en el mismo se expresan, será aplicable a las sentencias absolutorias.

**Artículo 743**

El Secretario del Tribunal extenderá acta de cada sesión que se celebre, y en ella hará constar sucintamente cuanto importante hubiere ocurrido.

Al terminar la sesión se leerá el acta, haciéndose en ella las rectificaciones que las partes reclamen, si el Tribunal en el acto las estima procedentes.

Las actas se firmarán por el Presidente e individuos del Tribunal, por el Fiscal y por los defensores de las partes.

**742. artikulua**

Epaian, epaiketaren gai izan diren auzi guztiak ebatzi eta auzipetuak kondenatu edo absolbituko dira, ez delitu nagusiaren eta horri lotuta daudenen ondorioz bakarrik, baita auzian ezagutu diren intzidente-falten ondorioz ere; eta, egoera horretan, auzitegiak ezin izango du largespenaren formula erabili, bere ustez kondenatu behar ez diren auzipetuekin.

Epaian ebatziko dira, halaber, erantzukizun zibilar buruzko gai guztiak, epaiketaren gai izan diren neurrian.

635. artikuluko 5. paragrafoaren araber, konbikzio-piezen izaera dela eta, arrisku larriren bat sortzen bada bertan adierazitako interesei begira, orduan konbikzio-pieza horien destinoari buruz ezarritakoa absolutuzio-epaiei aplikatzeko modukoa izango da.

**743. artikulua**

Auzitegiko idazkariak akta luzatuko du egindako saio bakoitzari buruz, eta, akta horretan, labur jasoko ditu gertakari garrantzitsuenak.

Saioa amaitzean akta irakurriko da, eta, bertan, alderdiek erreklamaturako zuzenketak egingo dira, auzitegiak bidezkotzat jotzen baditu.

Aktak sinatuko dituzte auzitegiko presidentek eta kideek, fiskalak eta alderdien defendatzaileek.

## CAPÍTULO V

## De la suspensión del juicio oral

## Artículo 744

Abierto el juicio oral, continuará durante todas las sesiones consecutivas que sean necesarias hasta su conclusión.

## Artículo 745

No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, el Presidente del Tribunal podrá suspender la apertura de las sesiones cuando las partes, por motivos independientes de su voluntad, no tuvieran preparadas las pruebas ofrecidas en sus respectivos escritos.

## Artículo 746

Procederá además la suspensión del juicio oral en los casos siguientes:

1.º) Cuando el Tribunal tuviere que resolver durante los debates alguna cuestión incidental que por cualquier causa fundada no pueda decidirse en el acto.

2.º) Cuando con arreglo a este Código el Tribunal o alguno de sus individuos tuviere que practicar alguna diligencia fuera del lugar de las sesiones y no pudiere verificarse en el tiempo intermedio entre una y otra sesión.

3.º) Cuando no comparezcan los testigos de cargo y de descargo ofrecidos por las partes y el Tribunal considere necesaria la declaración de los mismos.

## V. KAPITULUA

## Ahozko epaiketa etetea

## 744. artikulua

Behin ahozko epaiketa irekita, horrek amaitu arte aurrera egingo du, elkarren segidan beharrezkoak diren saio guztietan.

## 745. artikulua

Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, auzitegiko presidenteak saioen irekiera eten ahal izango du, alderdiek, euren borondatek kanpoko zioengatik, kasuan kasuko idazkietan eskainitako frogak prest ez dituztenean.

## 746. artikulua

Horrez gain, ahozko epaiketa kasu hauetan eten ahal izango da:

1) Auzitegiak eztabaidetan zehar inzitidente-gairen bat ebatzi behar duenean, oinarrizko edozein arrazoiengatik hori ezin bada berehalakoan erabaki.

2) Kode honen arabera, auzitegiak edo horren kideetako batek saioen lekutik kanpo eginbideren bat gauzatu behar duenean, hori ezin bada egin saio baten eta bestearen arteko denboran.

3) Alderdiek eskainitako egozbideta zuribide-lekukoak agertzen ez direnean, auzitegiaren ustez horien adierazpena nahitaezkoa bada.

Podrá, sin embargo, el Tribunal acordar en este caso la continuación del juicio y la práctica de las demás pruebas; y después que se hayan hecho, suspenderlo hasta que comparezcan los testigos ausentes.

Si la no comparecencia del testigo fuere por el motivo expuesto en el artículo 718, se procederá como se determina en el mismo y en los dos siguientes.

4.º) Cuando algún individuo del Tribunal o el defensor de cualquiera de las partes enfermase repentinamente hasta el punto de que no pueda continuar tomando parte en el juicio ni pueda ser reemplazado el último sin grave inconveniente para la defensa del interesado.

Lo dispuesto en este número respecto a los defensores de las partes se entiende aplicable al Fiscal.

5.º) Cuando alguno de los procesados se halle en el caso del número anterior, en términos de que no pueda estar presente en el juicio.

La suspensión no se acordará por esta causa, sino después de haber oído a los facultativos nombrados de oficio para el reconocimiento del enfermo.

6.º) Cuando revelaciones o retractaciones inesperadas produzcan alteraciones sustanciales en los juicios, haciendo necesarios nuevos elementos de prueba o alguna sumaria instrucción suplementaria.

No se suspenderá el juicio por la enfermedad o incomparecencia de alguno de los procesados citados perso-

Hala ere, kasu horretan, auzitegiak erabaki dezake epaiketak aurrera egitea eta gainerako frogak egitea; eta, behin horiek eginda, epaiketa eten dezake, lekuko absenteak agertu arte.

Lekukoa ez bada agertzen 718. artikuluan aipatu zioarengatik, artikulua horretan eta hurrengo bietan zehaztutako moduan jardungo da.

4) Auzitegiko kideren bat edo alderdietatik edozeinen defendatzailea bat-batetan gaixotzen denean eta epaiketan parte hartu ezin duenean, ezin bada ordeztu azken hori interesdunaren defentsari kalte larria egin gabe.

Zenbaki honetan alderdien defendatzaileei buruz xedatutakoa fiskalari ere aplikatu ahal zaio.

5) Auzipetuetako bat, aurreko zenbakiaren kasuan egoteagatik, ezin denean epaiketan egon.

Etetea ez da arrazoi horrengatik erabakiko, ezpada gaixoa aztertzeke ofizioz adituak izendatu eta aditu horiek entzun ondoren.

6) Ustekabeko agerrarazpen edo atzera-jotzeek epaiketetan funtsezko aldaketak eragiten dituztenean, baldin eta, horien ondorioz, froga-osagai berriak edo instrukzio osagarri laburren bat egin behar bada.

Epaiketa ez da etengo, zitazio pertsonala hartu duten auzipetuetatik bat gaixorik dagoelako edo agertu ez de-

nalmente, siempre que el Tribunal estimare, con audiencia de las partes y haciendo constar en el acta del juicio las razones de la decisión, que existen elementos suficientes para juzgarles con independencia.

### Artículo 747

En los casos 1.º, 2.º, 4.º y 5.º del artículo anterior, el Tribunal podrá decretar de oficio la suspensión. En los demás casos la decretará, siendo procedente, a instancia de parte.

### Artículo 748

En los autos de suspensión que se dicten se fijará el tiempo de la suspensión, si fuere posible, y se determinará lo que corresponda para la continuación del juicio.

Contra estos autos no se dará recurso alguno.

### Artículo 749

Cuando por razón de los casos previstos en los números 4.º y 5.º del artículo 746 haya de prolongarse indefinidamente la suspensión del juicio, o por un tiempo demasiado largo, se declarará sin efecto la parte del juicio celebrada, y se citará a nuevo juicio para cuando desaparezca la causa de la suspensión o puedan ser reemplazadas las personas reemplazables.

Lo mismo podrá acordar el Tribunal en el caso del número 6.º, si la preparación de los elementos de prueba o la sumaria instrucción suplementaria exigiere algún tiempo.

lako, baldin eta Auzitegiak uste badu, alderdiei entzunda eta epaiketaren aktan erabakiaren arrazoiak azalduta, osagai nahiko dagoela haiek modu independentean epaitzeko.

### 747. artikulua

Aurreko artikuluko 1, 2, 4 eta 5. kasuetan, auzitegiak ofizioz dekreta dezake etendura. Gainerako kasuetan, eta bidezkoa bada, alderdiek hala eskatuta dekretatuko du.

### 748. artikulua

Emandako etete-autoetan, ahal izanez gero, etenaldiaren iraupena finkatuko da, eta epaiketak aurrera egiteko egoki dena zehaztuko da.

Auto horien aurka ezin izango da inolako errekurtsorik jarri.

### 749. artikulua

746. artikulua 4 eta 5. zerbakietan ezarri kasuak direla bide, epaiketaren etenaldiak iraupen zehaztugabe edo luzeegia izan behar duenean, egindako epaiketa-zatiak ondorerik ez duela adieraziko da, eta epaiketa berrirako zitazioa egingo da etetearen arrazoiak desagertzen denerako edo ordezteko moduko pertsonak ordeztu ahal direnerako.

6. zerbakiaren kasuan, auzitegiak beste horrenbeste erabaki ahal izango du, froga-osagaiak prestatzeko edo instrukzio osagarri laburra egiteko denbora behar bada.

**LIBRO IV**  
**DE LOS PROCEDIMIENTOS**  
**ESPECIALES**

**TÍTULO PRIMERO**  
**DEL MODO DE PROCEDER**  
**CUANDO FUERE PROCESADO**  
**UN SENADOR O DIPUTADO**  
**A CORTES**

**Artículo 750**

El Juez o Tribunal que encuentre méritos para procesar a un Senador o Diputado a Cortes por causa de delito, se abstendrá de dirigir el procedimiento contra él si las Cortes estuvieran abiertas, hasta obtener la correspondiente autorización del Cuerpo Colegislador a que pertenezca.

**Artículo 751**

Cuando el Senador o Diputado a Cortes fuere delincuente «in fraganti» podrá ser detenido y procesado sin la autorización a que se refiere el artículo anterior; pero en las veinticuatro horas siguientes a la detención o procesamiento deberá ponerse lo hecho en conocimiento del Cuerpo Colegislador a que corresponda.

Se pondrá también en conocimiento del Cuerpo Colegislador respectivo la causa que existiere pendiente contra el que, estando procesado, hubiese sido elegido Senador o Diputado a Cortes.

**Artículo 752**

Si un Senador o Diputado a Cortes fuese procesado durante un interregno

**IV. LIBURUA**  
**PROZEDURA**  
**BEREZIAK**

**LEHENENGO TITULUA**  
**JARDUTEKO MODUA**  
**SENATARIA EDO GORTEETAKO**  
**DIPUTATUA AUZIPETZEN**  
**DENEAN**

**750. artikulua**

Epaille edo auzitegiaren ustez senataria edo Gorteetako diputatua delituaren ondorioz auzipetzeko arrazoiak badaude, prozedura ez du haren aurka zuzenduko Gorteak irekita dauden bitartean, hura zein kidego legegilekidetako izan eta horren baimena lortu arte.

**751. artikulua**

Senataria edo gorteetako diputatua «in fraganti» delitugilea denean, hura atxilotu eta auzipetu ahal izango da, aurreko artikuluan aipatu baimena izan gabe; hala ere, atxiloketaren edo auzipetzearen berri eman beharko zaio kasuan kasuko kidego legegilekideari, halakoa gertatu eta hurrengo hogeita lau orduetan.

Kasuan kasuko kidego legegilekideari jakinarazpena egingo zaio, berebat, baldin eta norbait, auzipetuta egonda, senatari edo Gorteetako diputatu aukeratua izan bada eta horren aurka auzia ebazteko badago.

**752. artikulua**

Senataria edo Gorteetako diputatua auzipetu bada Gorteetako bilerak gel-



parlamentario, deberá el Juez o Tribunal que conozca de la causa ponerlo inmediatamente en conocimiento del respectivo Cuerpo Colegislador.

Lo mismo se observará cuando haya sido procesado un Senador o Diputado a Cortes electo antes de reunirse éstas.

### **Artículo 753**

En todo caso, se suspenderán los procedimientos desde el día en que se de conocimiento a las Cortes, estén o no abiertas, permaneciendo las cosas en el estado en que entonces se hallen, hasta que el Cuerpo Colegislador respectivo resuelva lo que tenga por conveniente.

### **Artículo 754**

Si el Senado o el Congreso negasen la autorización pedida, se sobreseerá respecto al Senador o Diputado a Cortes; pero continuará la causa contra los demás procesados.

### **Artículo 755**

La autorización se pedirá en forma de suplicatorio, remitiendo con éste, y con carácter de reservado, el testimonio de los cargos que resulten contra el Senador o Diputado, con inclusión de los dictámenes del Fiscal y de las peticiones particulares en que se haya solicitado la autorización.

### **Artículo 756**

El suplicatorio se remitirá por conducto del Ministro de Gracia y Justicia.

diarazita daudela, oraindik berriro hasi gabe, auziaren gaineko ardura duen epaile edo auzitegiak berehala emango dio horren berri kasuan kasuko kidego legegilekideari.

Gauza bera egingo da hautatutako senataria edo Gorteetako diputatua auzipetu denean, Gorteak bildu aurretik.

### **753. artikulua**

Edozein kasutan ere, prozedurak eten egingo dira jakinarazpena Gorteei egiten zaien egunetik, horiek irekita egonda edo egon gabe, eta gauzak une hartan zeuden moduan irauraraziko dira, kasuan kasuko kidego legegilekideak kome-nigarrizat jotzen duena ebatzi arte.

### **754. artikulua**

Senatuak edo Kongresuak berari eskatutako baimena ukatzen badute, largespina gertatuko da senatariari edo Gorteetako diputatuari begira; hala ere, auziak aurrera egingo du gainerako auzipetuei begira.

### **755. artikulua**

Baimena suplikatorio-formarekin eskatuko da, eta, horrekin batera, isilpean igorriko da senatariaren edo diputatuaren aurkako karguen lekukotza, Fiskalaren irizpenak eta baimena eskatzeko eskaera bereziak gaineratuta.

### **756. artikulua**

Suplikatoria Grazia eta Justizia ministroaren bitartez igorriko da.

**TÍTULO II  
DEL PROCEDIMIENTO  
ABREVIADO**

**CAPÍTULO PRIMERO  
Disposiciones generales**

**Artículo 757**

Sin perjuicio de lo establecido para los procesos especiales, el procedimiento regulado en este Título se aplicará al enjuiciamiento de los delitos castigados con pena privativa de libertad no superior a nueve años, o bien con cualesquiera otras penas de distinta naturaleza bien sean únicas, conjuntas o alternativas, cualquiera que sea su cuantía o duración.

**Artículo 758**

El enjuiciamiento de los delitos enumerados en el artículo anterior se acomodará a las normas comunes de esta Ley, con las modificaciones consignadas en el presente Título.

**Artículo 759**

En las causas comprendidas en este Título, las cuestiones de competencia que se promuevan entre Juzgados y Tribunales de la jurisdicción ordinaria se sustanciarán según las reglas siguientes:

1.<sup>a</sup> Cuando un Tribunal o Juzgado rehusare el conocimiento de una causa o reclamare el conocimiento de la que otro tuviere, y haya duda acerca de cuál de ellos es el competente, si no resulta acuerdo a la primera comunica-

**II. TITULUA  
PROZEDURA  
LABURTUA**

**LEHENENGO KAPITULUA  
Xedapen orokorrak**

**757. artikulua**

Prozesu berezietarako ezarri denari kalterik egin gabe, titulu honetan araututako prozedura aplikatuko da, bederatzi urte arteko zigor askatasun-gabetzailea ezarrita duten delituak epaitzeko, bai eta beste edozein izaeratako zigorrak ezarrita dituzten delituak epaitzeko ere, bakarka, batera zein hautabidez ezarri, eta euren zenbatekoa edo iraupena edozein bada ere.

**758. artikulua**

Aurreko artikuluan aipatu delituak epaitzeko, lege honen arau erkideak beteko dira, titulu honetan jasotako aldatetekin batera.

**759. artikulua**

Titulu honetan jasotako auzietan, jurisdikzio arrunteko epaitegi eta auzitegien artean eskumen-arazoak sustatzen direnean, eskumen-arazo horiek gauzatuko dira hurrengo erregelak aintzat hartuta:

1) Auzitegiak edo epaitegiak auziaren gaineko ardura izatea ukatzen duenean edo beste baten ardurapeko auzia berarentzat erreklamatzeko duenean, eta, horren ondorioz, eskuduna zein den jakiteko zalantzak badaude, eta zio

ción que con tal motivo se dirijan, pondrán el hecho, sin dilación, en conocimiento del superior jerárquico, por medio de exposición razonada, para que dicho superior, tras oír al Fiscal y a las partes personadas en comparecencia que se celebrará dentro de las veinticuatro horas siguientes, decida en el acto lo que estime procedente, sin ulterior recurso.

Cuando la cuestión surja en la fase de instrucción, cada uno de los juzgados continuará practicando en todo caso, hasta tanto se dirima definitivamente la controversia, las diligencias conducentes a la comprobación del delito, a la averiguación e identificación de los posibles culpables y a la protección de los ofendidos o perjudicados por el mismo, debiendo remitirse recíprocamente ambos juzgados testimonio de lo actuado y comunicarse cuantas diligencias practiquen.

2.<sup>a</sup> Ningún Juez de Instrucción, de lo Penal, o Central de Instrucción o de lo Penal, podrá promover cuestiones de competencia a las Audiencias respectivas, sino exponerles, oído el Ministerio Fiscal por plazo de un día, las razones que tenga para creer que le corresponde el conocimiento del asunto.

El Tribunal dará vista de la exposición y antecedentes al Ministerio Fiscal y a las partes personadas por plazo de dos días y, luego de oídos todos, sin más trámites, resolverá dentro del tercer día lo que estime procedente, co-

horren ondorioz igorritako lehenengo komunikazioan elkarrekin ados jartzen ez badira, atzerapenik gabe egitatearen berri emango diote hierarkian gorago dagoenari, azalpen arrazoituaren bitartez; hurrengo hogeita lau orduetan, agerraldi horretara bertaratutako fiskala eta alderdiak entzun ondoren, gora-goko horrek egintza horretan bertan bidezkoa dena erabakiko du, eta erabaki horren aurka ezin izango da geroago errekursorik jarri.

Arazoa instrukzio-fasean sortzen denean, epaitegi bakoitzak jardunari eutsiko dio beti, eztabaida behin betiko erabaki arte, eta delitua egiaztatzen, us-tezko errudunak identifikatzera eta delitua-ren ondoriozko ofendituak edo kalte-dunak babestera zuzendutako eginbideak burutuko ditu. Epaitegi biek egindako guztiaren lekukotza elkarri igorri behar-kio diote eta gauzatutako eginbideak ere elkarri komunikatu beharko dizkiote.

2. Instrukzio-epaileak, zigor-arlokoak, edo instrukzio-epaile zentralak nahiz zigor-arloko epaile zentralak ezin izango dizkiete eskumen-arazoak sustatu kasuan kasuko audientzietan; aitzitik, Fiskaltza egun bateko epean entzun ondoren, azaldu egingo diete zein arrazoi duten auziaren gaineko ardura dutela uste izateko.

Auzitegiak azalpenaren eta aurrekarien ikustaldia egiteko aukera eman-go die Fiskaltzari eta bertaratutako alderdiei, bi eguneko epean; eta, guztiak entzun ondoren, izapide gehiagorik gabe, bidezkotzat jotzen duena eba-

municando esta resolución al Juzgado que la haya expuesto para su cumplimiento.

3.<sup>a</sup> Cuando algún Juez de Instrucción, de lo Penal, o Central de Instrucción o de lo Penal, viniere entendiendo de causa atribuida a la competencia de las Audiencias respectivas se limitarán éstas a ordenar a aquél, oídos el Ministerio Fiscal y las partes personadas por plazo de dos días, que se abstenga de conocer y les remita las actuaciones.

## Artículo 760

Iniciado un proceso de acuerdo con las normas de este Título, en cuanto aparezca que el hecho no se halla comprendido en alguno de los supuestos del artículo 757, se continuará conforme a las disposiciones generales de esta Ley, sin retroceder en el procedimiento más que en el caso de que resulte necesario practicar diligencias o realizar actuaciones con arreglo a dichos preceptos legales. Por el contrario, iniciado un proceso conforme a las normas comunes de esta Ley, continuará su sustanciación de acuerdo con las del presente Título en cuanto conste que el hecho enjuiciado se halla comprendido en alguno de los supuestos del artículo 757. En ambos casos el cambio de procedimiento no implicará el de instructor.

Iniciado un proceso conforme a las normas de esta Ley, en cuanto aparezca que el hecho podría constituir un delito cuyo enjuiciamiento sea competencia

tziko du hirugarren egunean, eta ebazpen horren berri emango dio azalpena eman duen epaitegiari, horrek ebazpena bete dezan.

3. Instrukzio-epaileak, zigor-arlokoak, edo instrukzio-epaile zentralak edo zigor-arloko epaile zentralak auziaren gaineko ardura izanik, auzi hori kasuan kasuko audientzien eskumenekoa denean, audientziok auzi horren gaineko ardura ukatu eta jarduna igortzeko agindua emango diote hari, behin Fis-kaltza eta bertaratutako alderdiak bi eguneko epean entzunda.

## 760. artikulua

Prozesua titulu honetako arauen arabera hasita, egitatea 757. artikuluko kasuetan ez dela sartzen agertu bezain laster, lege honetako xedapen orokorren arabera aurrera egingo da, eta ez da prozeduran atzera egingo, salbu eta eginbideak gauzatu behar direnean edo jarduna egin behar denean, aipatu lege-manuei helduta. Alderantziz, prozesua lege honetako arau erkideen arabera hasita, titulu honetan jasotako arabera aurrera egingo du prozesu horrek, betiere epaitutako egitatea 757. artikuluko kasuetatik batean sartzen dela egiaztatu ondoren. Kasu bietan, prozedura-aldaketa gertatzen bada ere, instruktoea ez da aldatuko.

Prozesua lege honetako arauen arabera hasita, egitatea epaimahaiko auzitegiaren eskumenaren mende epaitu beharreko delitua dela agertu bezain

del Tribunal del Jurado, se estará a lo dispuesto en el artículo 309bis.

Acordado el procedimiento que deba seguirse, se le hará saber inmediatamente al Ministerio Fiscal, al imputado y a las partes personadas.

### Artículo 761

1. El ejercicio por particulares, sean o no ofendidos por el delito, de la acción penal o de la civil derivada del mismo habrá de efectuarse en la forma y con los requisitos señalados en el Título II del Libro II, expresando la acción que se ejercite.

2. Sin perjuicio de lo que se dispone en el apartado anterior, al ofendido o perjudicado por el delito se le instruirá de los derechos que le asisten conforme a lo dispuesto en los artículos 109 y 110 y demás disposiciones, pudiendo mostrarse parte en la causa sin necesidad de formular querrela.

### Artículo 762

Los Jueces y Tribunales observarán en la tramitación de las causas a que se refiere este Título las siguientes reglas:

1.<sup>a</sup> El Juez o Tribunal que ordene la práctica de cualquier diligencia se entenderá directamente con el Juez, Tribunal, autoridad o funcionario encargado de su realización aunque el mismo no le esté inmediatamente subordinado ni sea superior inmediato de aquéllos.

2.<sup>a</sup> Para cursar los despachos que se expidan se utilizará siempre el medio

laster, 309bis artikuluan xedatutakoa beteko da.

Bete beharreko prozedura erabaki ondoren, berehala hori jakinaraziko zaie Fiskaltzari, egotziari eta bertaratu-tako alderdiei.

### 761. artikulua

1. Partikularrek, horiek ofendituak izan zein izan ez, delituaren ondoriozko akzio penal edo zibila egikaritzeko dute, II. liburuko II. tituluan zehaztu moduan eta bertan jasotako betekizunekin, zein akzio egikaritzen duten adierazita.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, delituaren ondoriozko ofendituari edo kaltetunari argibideak emango zaizkio berari dagozkion eskubideen gainean, 109 eta 110. artikuluetan, eta gainerako xedapenetan xedatutakoaren arabera; hura alderdi gisa agertu ahal izango da auzira, kereila egiteko beharrianik gabe.

### 762. artikulua

Epaile eta auzitegiek jarraiko erregelak beteko dituzte titulu honetan aipatu auzien izapidetzan:

1) Epailea edo auzitegia, edozein eginbide gauzatzeko agindua ematen duenean, zuzenean harremanetan jarriko da hori egiteko ardua duen epaile, auzitegi, agintari edo funtzionarioarekin, haren zuzeneko mendekoa izan ez arren, edota haren zuzeneko goragokoa izan ez arren.

2) Luzatutako idatzagiriak bideratzeko, beti biderik azkarrena erabiliko

más rápido, acreditando por diligencia las peticiones de auxilio que no se hayan solicitado por escrito.

3.<sup>a</sup> Si el que hubiere de ser citado no tuviere domicilio conocido o no fuere encontrado por la Policía Judicial en el plazo señalado a ésta, el Juez o Tribunal mandará publicar la correspondiente cédula por el medio que estime más idóneo para que pueda llegar a conocimiento del interesado, y sólo cuando lo considere indispensable acordará su divulgación por los medios de comunicación social.

4.<sup>a</sup> Las requisitorias que hayan de expedirse se insertarán en el fichero automatizado correspondiente de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad y, cuando se considere oportuno, en los medios de comunicación escrita.

5.<sup>a</sup> A todo escrito y a los documentos que se presenten en la causa se acompañarán tantas copias literales de los mismos, realizadas por cualquier medio de reproducción, cuantas sean las otras partes y el Fiscal, a quienes se entregarán al notificarles la resolución que haya recaído en el escrito respectivo.

La omisión de las copias sólo dará lugar a su libramiento por el Secretario a costa del omitente, si éste no las presenta en el plazo de una audiencia.

6.<sup>a</sup> Para enjuiciar los delitos conexos comprendidos en este Título, cuando existan elementos para hacerlo con independencia, y para juzgar a

da, eta eginbidearen bitartez egiazta-tuko dira idatziz eskatu ez diren laguntza-eskaerak.

3) Zitazioa jaso behar duenak egoitza ezagunik ez badu edo polizia judicialak ez badu hura aurkitu horretarako zehaztu epean, epaile edo auzitegiak kasuan kasuko zedula argitaratzeko agindua emango du, betiere interesdunak horren berri izateko biderik egokiena aukeratuz; auzitegiak hura gizarte-komunikabideetatik zabaltzeko erabakia hartuko du, hori ezinbestekotzat jotzen duenean bakarrik.

4) Luzatu beharreko errequisitoriak gordeko dira Segurtasun Indar eta Kidegoek kasuan-kasuan dituzten fitxategi automatizatuetan, eta, komenigarritzat jotzen denean, idatzizko komunikabideetan.

5) Auzian aurkeztutako idazki guztiekin eta agiriekin batera, beste alderdiak eta fiskala zenbat izan eta beste horrenbeste hitzez hitzeko kopia egingo dira, edozein erreprodukzio-bidetatik; horrela, haiei kopiak emango zaizkie, kasuan kasuko idazkiaren gain emandako ebazpena jakinaraztean.

Kopiarik aurkeztu ez bada, orduan idazkariak bakarrik luzatu ahal izango ditu halakoak, horiek egin ez dituenaren kontura, baldin eta azken horrek entzunaldia egiteko epean aurkezten ez baditu.

6) Elkarri lotuta dauden delituetatik titulu honetan sartzen direnak modu independentean epaitzeko, hori modu independentean egiteko osagaiak ba-

cada uno de los imputados, cuando sean varios, podrá acordar el Juez la formación de las piezas separadas que resulten convenientes para simplificar y activar el procedimiento.

7.<sup>a</sup> En las declaraciones se reseñará el documento nacional de identidad de las personas que las presten, salvo que se tratara de agentes de la autoridad, en cuyo caso bastará la reseña del número de carné profesional. Cuando por tal circunstancia o por cualquier otra no ofreciere duda la identidad del imputado y conocidamente tuviere la edad de dieciocho años, se prescindirá de traer a la causa el certificado de nacimiento. En otro caso, se unirá dicho certificado y la correspondiente ficha dactiloscópica. No se demorará la conclusión de la instrucción por falta del certificado de nacimiento, sin perjuicio de que cuando se reciba se aporte a las actuaciones.

8.<sup>a</sup> Cuando los imputados o testigos no hablaren o no entendieren el idioma español, se procederá de conformidad con lo dispuesto en los artículos 398, 440 y 441, sin que sea preciso que el intérprete designado tenga título oficial.

9.<sup>a</sup> La información prevenida en el artículo 364 sólo se verificará cuando a juicio del instructor hubiere duda acerca de la preexistencia de la cosa objeto de la sustracción o defraudación.

10.<sup>a</sup> Los informes y declaraciones a que se refieren los artículos 377 y 378

daude, eta, orobat, egotzi bakoitza modu independentean epaitu ahal izateko, betiere horiek zenbait direnean, epaileak, prozedura laburtzeko eta aktibatzeko helburuarekin, komenigarri diren pieza bananduak eratzea erabaki ahal izango du.

7) Adierazpenetan aipatuko da horiek egin dituzten pertsonen nortasun-agiria, salbu eta pertsona horiek agintaritzako agenteak direnean; kasu horretan, nahikoa izango da haien lanbide-txartela aipatzea. Inguruabar horren ondorioz edo beste edozein inguruabarren ondorioz, zalantzarik ez badago egotziaren nortasunari buruz, eta argi badago hemezortzi urte dituela, orduan auzira ez da ekarriko jaiotza-ziurtagiria. Bestelako kasuan, ziurtagiri hori eta kasuan kasuko daktiloskopia-fitxa ere aurkeztuko dira. Instrukzioaren amaiera ez da atzeratuko jaiotza-ziurtagiria ez izateagatik; baina, hori jasotzen denean, jardunera ekarriko da.

8) Egotziek edo lekukoek Espainiako hizkuntzaz hitz egiten edo ulertzen ez dutenean, 338, 440 eta 441. artikuluetan xedatutakoaren arabera jardungo da, eta ez da beharrezkoa izango izendatutako interpretatzaileak titulu ofiziala izatea.

9) 364. artikuluan aipatu informazioa egiaztatu egingo da, bakarrik, ostearen edo iruzurraren objektua zein gauza izan eta gauza hori aurretiaz existitzen zen ala ez zalantza egiten duenean instruktoreak.

10) 377 eta 378. artikuluetan aipatu txostenak eta adierazpenak eskatu eta

únicamente se pedirán y recibirán cuando el Juez los considerase imprescindibles.

11.<sup>a</sup> Cuando los hechos enjuiciados deriven del uso y circulación de vehículos de motor, se reseñará también, en la primera declaración que presten los conductores, los permisos de conducir de éstos y de circulación de aquellos y el certificado del seguro obligatorio, así como el documento acreditativo de su vigencia. También se reseñará el certificado del seguro obligatorio y el documento que acredite su vigencia en aquellos otros casos en que la actividad se halle cubierta por igual clase de seguro.

### Artículo 763

El Juez o Tribunal podrá acordar la detención o cualesquiera medidas privativas de libertad o restrictivas de derechos en los casos en que procedan conforme a las reglas generales de esta Ley. Las actuaciones que motiven la aplicación de estas medidas se contendrán en pieza separada.

### Artículo 764

1. Asimismo, el Juez o Tribunal podrá adoptar medidas cautelares para el aseguramiento de las responsabilidades pecuniarias, incluidas las costas. Tales medidas se acordarán mediante auto y se formalizarán en pieza separada.

2. A estos efectos se aplicarán las normas sobre contenido, presupuestos y caución sustitutoria de las medidas cautelares establecidas en la Ley de Enjuiciamiento Civil. La prestación

de un aval, epailearen ustez ezinbestekoak direnean bakarrik.

11) Epaitutako egitateak ibilgailu motordunen erabilera eta zirkulazioaren ondoriozkoak direnean, gidariak egindako lehenengo adierazpenean aipatuko dira, halaber, haien gidabaimenak, zirkulazio-baimenak eta nahitazko aseguruaren ziurtagiria eman ditzaten, bai eta horren indarraldia egiaztatzen duen agiria ere. Nahitazko aseguruaren ziurtagiria eta horren indarraldia egiaztatzen duen agiria aipatuko dira, berebat, aseguru-mota berberak estaltzen duenean kasuan kasuko jardura.

### 763. artikulua

Epaileak edo auzitegiak atxiloteta edo askatasunaz gabetzen nahiz eskubidea murrizten duten neurrietatik beste edozein erabaki ahal izango du, lege honetako erregela orokorren arabera bidezkoak direnean. Jardunak neurri horien aplikazioa dakarrenean, jardun hori pieza bananduan jasoko da.

### 764. artikulua

1. Era berean, epaileak edo auzitegiak kautela-neurriak hartu ahal izango ditu diruzko erantzukizunak ziurtatzeko, kostuak barne. Neurri horiek auto bidez erabaki eta pieza bananduan formalizatuko dira.

2. Ondore horietarako, Prozedura Zibilaren Legean ezarri kautela-neurrien edukiari, baldintzei eta ordeko kauzioari buruzko arauak aplikatuko dira. Erabakitako kauzioak Prozedura Zibila-



de las cauciones que se acuerden se hará en la forma prevista en la Ley de Enjuiciamiento Civil y podrá ser realizada por la entidad en que tenga asegurada la responsabilidad civil la persona contra quien se dirija la medida.

3. En los supuestos en que las responsabilidades civiles estén total o parcialmente cubiertas por un seguro obligatorio de responsabilidad civil, se requerirá a la entidad aseguradora o al Consorcio de Compensación de Seguros, en su caso, para que, hasta el límite del seguro obligatorio, afiance aquéllas. Si la fianza exigida fuera superior al expresado límite, el responsable directo o subsidiario vendrá obligado a prestar fianza o aval por la diferencia, procediéndose en otro caso al embargo de sus bienes.

La entidad responsable del seguro obligatorio no podrá, en tal concepto, ser parte del proceso, sin perjuicio de su derecho de defensa en relación con la obligación de afianzar, a cuyo efecto se le admitirá el escrito que presentare, resolviéndose sobre su pretensión en la pieza correspondiente.

4. Se podrá acordar la intervención inmediata del vehículo y la retención del permiso de circulación del mismo, por el tiempo indispensable, cuando fuere necesario practicar alguna investigación en aquél o para asegurar las responsabilidades pecuniarias, en tanto no conste acreditada la solvencia del imputado o del tercero responsable civil.

ren Legean ezarri moduan emango dira, eta neurria zein pertsonaren aurka zuzendu eta pertsona horren erantzukizun zibila aseguraturata duen erakundeak burutu ahal izango ditu kauzio horiek.

3. Erantzukizun zibilak erabat edo zati batez estalita badaude erantzukizun zibilaren ondoriozko nahitaezko aseguruaren bidez, aseguru-etxeari edo Aseguruaren Konpentsaziorako Partzuergoari eskatuko zaio, hala denean, erantzukizun zibil horiek fidantzarekin bermatzea, nahitaezko aseguruaren mugara iritsi arte. Eskatutako fidantza aipatu muga baino handiagoa izanez gero, zuzeneko arduradunak edo arduradun subsidiarioak bien arteko aldearen ondoriozko fidantza edo abala eman beharko du; bestela, horren ondasunak enbargatuko dira.

Nahitaezko aseguruaren ardura duen erakundea ezin izango da, izaera horrekin, prozesuaren alderdi izan. Horri kalterik egin gabe, defentsa-eskubidea izango du alderdi horrek, betebeharrari dagokionez, eta, ondore horretarako, aurkeztutako idazkia onartuko zaio, eta beraren uzia kasuan kasuko piezan ebartziko da.

4. Ibilgailua berehala bahitu eta ibilgailu horren zirkulazio-baimena kentzeko erabakia hartu ahal izango da, behar-beharrezkoa den bitartean, ibilgailuan ikerketaren bat egiteko edo diruzko erantzukizunak ziurtatzeko beharrezkoa denean, egotziaren edo erantzukizun zibila duen hirugarrenaren kaudimena egiaztatzen ez den bitartean.

También podrá acordarse la intervención del permiso de conducción requiriendo al imputado para que se abstenga de conducir vehículos de motor, en tanto subsista la medida, con la prevención de lo dispuesto en el artículo 556 del Código Penal.

Las medidas anteriores, una vez adoptadas, llevarán consigo la retirada de los documentos respectivos y su comunicación a los organismos administrativos correspondientes.

### Artículo 765

1. En los procesos relativos a hechos derivados del uso y circulación de vehículos de motor el Juez o Tribunal podrá señalar y ordenar el pago de la pensión provisional que, según las circunstancias, considere necesaria en cuantía y duración para atender a la víctima y a las personas que estuvieren a su cargo. El pago de la pensión se hará anticipadamente en las fechas que discrecionalmente señale el Juez o Tribunal, a cargo del asegurador, si existiere, y hasta el límite del seguro obligatorio, o bien con cargo a la fianza o al Consorcio de Compensación de Seguros, en los supuestos de responsabilidad civil del mismo, conforme a las disposiciones que le son propias. Igual medida podrá acordarse cuando la responsabilidad civil derivada del hecho esté garantizada con cualquier seguro obligatorio. Todo lo relacionado con esta medida se actuará en pieza separada. La interposición de recursos no suspenderá la obligación de pago de la pensión.

Gidabaimena kentzeko erabakia hartu ahal izango da, orobat, egotziari ibilgailu motordunak ez gidatzeko eskatuz, betiere neurriak dirauen bitartean, Zigor Kodearen 556. artikuluan xedatutako ohararazpenarekin.

Behin aurreko neurriak hartuta, agiriak kenduko dira, eta kasuan kasuko administrazio-organismoei hori komunikatuko zaie.

### 765. artikulua

1. Ibilgailu motordunak erabiltearen eta zirkulatzearen ondoriozko prozesuetan, epaileak edo auzitegiak, inguruabarren arabera, behin-behineko pentsioa ordaintzea adierazi eta agindu ahal izango du, bere ustez biktimari eta horren ardurapeko pertsoneri laguntzeko beharrezkoa den zenbateko eta iraupenarekin. Pentsioaren ordainketa aurreraturik egingo da, epaileak edo auzitegiak zuhurtziara zehaztu datetan, aseguratzailearen kontura, halakoa izanez gero eta nahitaezko aseguruaren mugara iritsi arte, edo, bestela, fidantzaren edo Aseguruaren Kontentsazioarako Partzuergoaren kontura, betiere horrek erantzukizun zibila duen kasuetan, berari dagozkion xedapenak aintzat hartuta. Neurri bera hartu ahal izango da, orobat, egitatearen ondoriozko erantzukizun zibila nahitaezko aseguruetatik edozeinekin bermatu bada. Neurri horrekin zerikusia duen gutzia pieza bananduan gauzatuko da. Errekurtsoak jartzeak ez du etengo pentsioa ordaintzeko betebeharra.

2. En los procesos relativos a hechos derivados del uso y circulación de vehículos de motor el Juez o Tribunal podrá autorizar, previa audiencia del Fiscal, a los imputados que no estén en situación de prisión preventiva y que tuvieran su domicilio o residencia habitual en el extranjero, para ausentarse del territorio español. Para ello será indispensable que dejen suficientemente garantizadas las responsabilidades pecuniarias de todo orden derivadas del hecho punible, designen persona con domicilio fijo en España que reciba las notificaciones, citaciones y emplazamientos que hubiere que hacerles, con la prevención contenida en el artículo 775 en cuanto a la posibilidad de celebrar el juicio en su ausencia, y que presten caución no personal, cuando no esté ya acordada fianza de la misma clase, para garantizar la libertad provisional y su presentación en la fecha o plazo que se les señale. Igual atribución y con las mismas condiciones corresponderá al Juez o Tribunal que haya de conocer de la causa. Si el imputado no compareciese, se adjudicará al Estado el importe de la caución y se le declarará en rebeldía, observándose lo dispuesto en el artículo 843, salvo que se cumplan los requisitos legales para celebrar el juicio en su ausencia.

### Artículo 766

1. Contra los autos del Juez de Instrucción y del Juez de lo Penal que no estén exceptuados de recurso podrán ejercitarse el de reforma y el de apelación. Salvo que la Ley disponga otra

2. Ibilgailu motordunak erabiliztearen eta zirkulatzearen ondoriozko prozesuetan, epaileak edo auzitegiak Espainiatik alde egiteko baimena eman ahal izango die egotziei, baldin eta arroneurrizko espetxealdian ez badaude eta euren egoitza edo ohiko bizilekua atzerrian badago, betiere aurretiaz fiskala entzunda. Horretarako, ezinbestekoa izango da egitate zigorgariaren ondoriozko diruzko erantzukizunak, mota guztietakoak, behar beste bermatuta uztea; haiei egin beharreko jakinarazpenak, zitazioak eta epatzeak jasotzeko, Espainian egoitza finkoa duen pertsona izendatzea; 775. artikuluan jasotako ohartarazpena egitea, epaiketa haiek gabe egiteko aukerari dagokionez; eta pertsonala ez den kauzioa ematea, mota bereko fidantza oraindik erabaki gabe dagoenean, behin-behineko askatasuna eta adierazi datan edo epean haiek aurkeztuko direla bermatzeko. Eskumen bera izango du, eta baldintza berberekin jardungo du auziaren gaineko ardura izan behar duen epaile edo auzitegiak. Egotzia agertzen ez bada, estatuari adjudikatuko zaio kauzioaren zenbatekoa, eta hura auzi-iheslaria dela adieraziko da, 843. artikuluan xedatutakoa beteta, salbu eta epaiketa bera gabe egiteko legezko betekizunak gertatzen direnean.

### 766. artikulua

1. Instrukzio-epailearen edo zigor-arloko epailearen autoak errekurtsotik salbuetsita ez daudenean, horien aurka eraldaketa-errekurtsioa eta gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango

cosa, los recursos de reforma y apelación no suspenderán el curso del procedimiento.

2. El recurso de apelación podrá interponerse subsidiariamente con el de reforma o por separado. En ningún caso será necesario interponer previamente el de reforma para presentar la apelación.

3. El recurso de apelación se presentará dentro de los cinco días siguientes a la notificación del auto recurrido o del resolutorio del recurso de reforma, mediante escrito en el que se expondrán los motivos del recurso, se señalarán los particulares que hayan de testimoniarse y al que se acompañarán, en su caso, los documentos justificativos de las peticiones formuladas. Admitido éste, se dará traslado a las demás partes personadas por un plazo común de cinco días para que puedan alegar por escrito lo que estimen conveniente, señalar otros particulares que deban ser testimoniados y presentar los documentos justificativos de sus pretensiones. En los dos días siguientes a la finalización del plazo, se remitirá testimonio de los particulares señalados a la Audiencia respectiva que, sin más trámites, resolverá dentro de los cinco días siguientes. Excepcionalmente, la Audiencia podrá reclamar las actuaciones para su consulta siempre que con ello no se obstaculice la tramitación de aquéllas; en estos casos, deberán devolverse las actuaciones al Juez en el plazo máximo de tres días.

dira. Legeak bestelakoa xedatzen ez duen bitartean, prozedura ez da etengo eraldaketa-errekurtsoaren eta gora jotzeko errekurtsoaren ondorioz.

2. Gora jotzeko errekurtsoa modu subsidiarioan jarri ahal izango da eraldaketa-errekurtsoarekin batera edo harengandik bananduta. Inoiz ez da beharrezkoa izango aurretiaz eraldaketa-errekurtsoa jartzea, gora jotzeko errekurtsoa aurkezteko.

3. Gora jotzeko errekurtsoa idazki baten bidez aurkeztuko da errekurtsopeko autoaren jakinarazpenetik edo eraldaketa-errekurtsoa ebatzi duen autoaren jakinarazpenetik hurrengo bost egunetan; idazki horretan errekurtsoaren zioak adieraziko dira, egin beharreko lekukotzen xehetasunak aipatuko dira, eta horretara bilduko dira, hala denean, egindako eskaerak justifikatzeko agiriak. Gora jotzeko errekurtsoa onartu ondoren, bertaratutako gainerako alderdiei jakinaraziko zaie, bost eguneko epe erkidean komenigarritzat jotakoa idatziz alega dezaten, lekukotza behar duten beste xehetasun batzuk aipa ditzaten eta euren uziak justifikatzeko agiriak aurkez ditzaten. Epea amaitu eta hurrengo bi egunetan, aipatu xehetasunen lekukotza igorriko zaio kasuan kasuko audientziari; horrek, izapide gehiagorik gabe, hurrengo bost egunetan ebazpena emango du. Salbuespenez, audientziak jarduna erreklamatu ahal izango du horren inguruko kontsulta egiteko, baldin eta horrekin haien izapidetza oztopatzen ez badu; kasu horietan, jarduna epaileari itzuli beharko zaio, gehienez hiru eguneko epean.

Dicha conformidad podrá ser también prestada con el nuevo escrito de calificación que conjuntamente firmen las partes acusadoras y el acusado junto con su Letrado, en cualquier momento anterior a la celebración de las sesiones del juicio oral, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 787.1.

4. Si, abierto el juicio oral, los acusados se hallaren en ignorado paradero y no hubieren hecho la designación de domicilio a que se refiere el artículo 775 y, en cualquier caso, si la pena solicitada excediera de los límites establecidos en el párrafo segundo del apartado 1 del artículo 786, se mandará expedir requisitoria para su llamamiento y busca, declarándolos rebeldes, si no comparecieren o no fueren hallados, con los efectos prevenidos en esta Ley.

5. Presentado el escrito de defensa o transcurrido el plazo para hacerlo, el Secretario judicial acordará remitir lo actuado al órgano competente para el

keztu ahal izango dituzte, 786. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoa aintzat hartuta.

2. Defentsa-idazkian organo judizialari eskatu ahal izango zaio agirien igorpena lortzea edo adituei nahiz lekukoei zitazioa egitea, ahozko epaiketaren saioetan froga egokia, edo, hala denean, froga aurreratua egin ahal izateko.

3. Akusatuak ere defentsa-idazkia inatuko du, eta, bertan, defentsak azaldu ahal izango du akusazioarekin ados da-goela, 787. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Adostasun hori eman ahal izango da, orobat, alderdi akusatzaileek eta akusatuak beren letradurekin batera sinatzen duten kalifikazio-idazki berrian, betiere ahozko epaiketaren saioak egin baino lehenagoko uneetatik edozeinetan, 787.1 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

4. Ahozko epaiketa ireki ondoren, akusatuen egonlekua ezezaguna bada eta akusatu horiek ez badute izendatu 775. artikuluan aipatu egoitzarik, eta, edozein kasutan ere, eskatutako zigorrak 786. artikuluko 1. paragrafoan ezarri mugak gainditzen baditu, errequisitoria luzatzeko agindua emango da haiei deialdia egin eta eurok bilatzeko; hala ere, horiek agertu edo aurkitzen ez badira, auzi-iheslarizat joko dira, lege honetan ezarritako ondoreekin.

5. Defentsa-idazkia aurkeztu ondoren, edo horretarako epea igaro eta gero, idazkari judizialak jardun guztia organo eskudunari igortzeko erabakia

enjuiciamiento, notificándosele a las partes, salvo cuando el enjuiciamiento corresponda al Juez de lo Penal y éste se desplazara periódicamente a la sede del Juzgado Instructor para la celebración de los juicios procedentes del mismo, en cuyo caso permanecerán las actuaciones en el Juzgado a disposición del Juez de lo Penal.

## CAPÍTULO V

### Del juicio oral y de la sentencia

#### Artículo 785

1. En cuanto las actuaciones se encontraren a disposición del órgano competente para el enjuiciamiento, el Juez o Tribunal examinará las pruebas propuestas e inmediatamente dictará auto admitiendo las que considere pertinentes y rechazando las demás, prevendrá lo necesario para la práctica de la prueba anticipada y señalará el día en que deban comenzar las sesiones del juicio oral. En esa resolución se ordenará el libramiento de las comunicaciones que sean necesarias para asegurar la práctica de las pruebas que sean propuestas y admitidas, cuando así lo hubieren solicitado las partes.

Contra los autos de admisión o inadmisión de pruebas no cabrá recurso alguno, sin perjuicio de que la parte a la que le fue denegada pueda reproducir su petición al inicio de las sesiones del juicio oral, momento hasta el cual podrán incorporarse a la causa los informes, certificaciones y demás documentos que el Ministerio Fiscal y las

hartuko du, horrek epaitu dezan, eta hori alderdiei jakinaraziko die, salbu eta epaitzea zigor-arloko epaileari dagokionean eta hori instrukzio-epaitegiaren egoitzara aldian-aldian lekualdatzen denean, harengandik datozen epaiketak egiteko; kasu horretan, jarduna epaitegian gordeko da, eta zigor-arloko epailearen eskura jarri.

## V. KAPITULUA

### Ahozko epaiketa eta epaia

#### 785. artikulua

1. Jarduna epaitze-organo eskudunaren esku jarri bezain laster, proposatutako frogak aztertuko ditu epaile edo auzitegiak eta berehala emango du autoa, egokitzat jotakoak onartuz eta gainerakoak ukatuz; froga aurreratua egiteko beharrezkoa dena ezarriko du; eta, ahozko epaiketaren saioak zein egunetan hasiko diren aipatuko du. Ebazpen horretan aginduko da zenbait komunikazio egitea, alderdiek hala eskatu dutenean, eta komunikazio horiek beharrezkoak badira proposatu eta onartutako frogak egingo direla ziurtatzeko.

Frogak onartu edo ez onartzeko autoen aurka ezin izango da inolako errekurtsorik jarri; horri kalterik egin gabe froga hori zein alderdiri ukatu eta alderdi horrek bere eskaera egin ahal izango du berriro ahozko epaiketaren saioen hasieran, eta une hori arte auziari batu ahal izango zaizkio Fiskaltzaren eta alderdien aburuz egoki diren eta



partes estimen oportuno y el Juez o Tribunal admitan.

2. El señalamiento de fecha para el juicio se hará teniendo en cuenta la prisión del acusado y el aseguramiento de su presencia a disposición judicial, la complejidad de la prueba propuesta o cualquier circunstancia significativa.

3. En todo caso, aunque no sea parte en el proceso ni deba intervenir, la víctima deberá ser informada por escrito de la fecha y lugar de celebración del juicio.

### Artículo 786

1. La celebración del juicio oral requiere preceptivamente la asistencia del acusado y del abogado defensor. No obstante, si hubiere varios acusados y alguno de ellos deja de comparecer sin motivo legítimo, apreciado por el Juez o Tribunal, podrá éste acordar, oídas las partes, la continuación del juicio para los restantes.

La ausencia injustificada del acusado que hubiera sido citado personalmente, o en el domicilio o en la persona a que se refiere el artículo 775, no será causa de suspensión del juicio oral si el Juez o Tribunal, a solicitud del Ministerio Fiscal o de la parte acusadora, y oída la defensa, estima que existen elementos suficientes para el enjuiciamiento, cuando la pena solicitada no exceda de dos años de privación de libertad o, si fuera de distinta naturaleza, cuando su duración no exceda de seis años.

epaileak edo auzitegiak onartu dituen txostenak, ziurtagiriak eta gainerako agiriak.

2. Epaiketa egiteko data zehazteko, kontuan hartuko da akusatuaren espetxealdia eta epailearen aurrera hura agertzeko ziurtasuna, proposatutako frogaren konplexutasuna edo inguruabar esanguratsuetatik edozein.

3. Epaiketa egiteko data eta tokiari buruzko informazioa beti idatziz eman beharko zaio biktimari, prozesuan alderdi ez bada ere eta horretan parterrik hartu behar ez badu ere.

### 786. artikulua

1. Ahozko epaiketa egiteko manuzkoa da akusatua eta abokatu defentsaria bertara agertzea. Hala ere, zenbait akusatu izanik, horietatik bat ez bada agertzen zio legitimorik izan gabe, betiere zio hori epaileak edo auzitegiak baloratuta, epaile edo auzitegi horrek erabaki ahal izango du, behin alderdiak entzunda, epaiketak aurrera egitea gainerakoei dagokienez.

Akusatua justifikaziorik gabe ez bada agertzen, zitazio pertsonala egin zaionean, edo zitazio hori egoitzan nahiz 775. artikuluan aipatu pertsonaren bidez jaso duenean, hori ez da ahozko epaiketa eteteko arrazoia izango, baldin eta, epailearen edo auzitegiaren ustez, Fiskaltzak edo alderdi akusatzaileak hala eskatuta, eta, behin defentsa entzunda, epaitzeko behar besteko osagaiak badaude, betiere eskatutako zigorrak askatasunaz gabetzeko bi urte gaintitzen ez dituenean, edo, izaera ezberdina edukiz gero, haren iraupena sei urtetik gorakoa ez denean.

La ausencia injustificada del tercero responsable civil citado en debida forma no será por sí misma causa de suspensión del juicio.

2. El juicio oral comenzará con la lectura por el Secretario de los escritos de acusación y defensa. Seguidamente, a instancia de parte, el Juez o Tribunal abrirá un turno de intervenciones para que puedan las partes exponer lo que estimen oportuno acerca de la competencia del órgano judicial, vulneración de algún derecho fundamental, existencia de artículos de previo pronunciamiento, causas de la suspensión del juicio oral, nulidad de actuaciones, así como sobre el contenido y finalidad de las pruebas propuestas o que se propongan para practicarse en el acto. El Juez o Tribunal resolverá en el mismo acto lo procedente sobre las cuestiones planteadas. Frente a la decisión adoptada no cabrá recurso alguno, sin perjuicio de la pertinente protesta y de que la cuestión pueda ser reproducida, en su caso, en el recurso frente a la sentencia.

### Artículo 787

1. Antes de iniciarse la práctica de la prueba, la defensa, con la conformidad del acusado presente, podrá pedir al Juez o Tribunal que proceda a dictar sentencia de conformidad con el escrito de acusación que contenga pena de mayor gravedad, o con el que se presentara en ese acto, que no podrá referirse a hecho distinto, ni contener calificación más grave que la del escrito

Zitazioa forma egokiz egin bazaio erantzukizun zibila duen hirugarrenari, eta hori justifikaziorik gabe ez bada agertzen, berez hori ez da izango epaiketa eteteko arrazoia.

2. Ahozko epaiketa hasteko, idazkariak akusazio- eta defentsa-idazkiak irakurriko ditu. Jarraian, alderdiak hala eskatuta, epaileak edo auzitegiak epaiketan parte hartzeko txanda irekiko du; horrela, alderdiek egokitzat jotzen dutena azaldu ahal izango dute, organo judicialaren eskumenari buruz, oinarrizko eskubideren bat hausteari buruz, aurretiaz erabaki beharreko artikuluen existentziari buruz, ahozko epaiketa eteteko arrazoei buruz, jardunaren deuseztasunari buruz, eta proposatutako frogen edo une horretan bertan gauzatzeko proposatzen diren frogen eduki eta helburuari buruz. Epaileak edo auzitegiak egintza horretan bertan bidezkoa den ebazpena emango du azaldu diren arazoenguz inguruan. Hartutako erabaki horren aurka ezin izango da inolako errekurtsorik jarri; horri kalterik egin gabe, protesta egokia egin eta arazoa berriro azaldu ahal izango da, hala denean, epaiaren aurka jarritako errekurtsioan.

### 787. artikulua

1. Froga egiten hasi aurretik, defentsak, bertan dagoen akusatzailearen adostasunarekin, eskatu ahal izango dio epaileari edo auzitegiari epaia ematea, zigorrik astunena jasotzen duen akusazio-idazkiarekin bat etorriz, edo, egintza horretan aurkeztu den idazkiarekin bat etorriz, azken idazki horrek ezin izango du beste egitaterik ezarri, ezta kalifikazio astunagorik jaso ere, aipatu

de acusación anterior. Si la pena no excediere de seis años de prisión, el Juez o Tribunal dictará sentencia de conformidad con la manifestada por la defensa, si concurren los requisitos establecidos en los apartados siguientes.

2. Si a partir de la descripción de los hechos aceptada por todas las partes, el Juez o Tribunal entendiere que la calificación aceptada es correcta y que la pena es procedente según dicha calificación, dictará sentencia de conformidad. El Juez o Tribunal habrá oído en todo caso al acusado acerca de si su conformidad ha sido prestada libremente y con conocimiento de sus consecuencias.

3. En caso de que el Juez o Tribunal considerare incorrecta la calificación formulada o entendiere que la pena solicitada no procede legalmente, requerirá a la parte que presentó el escrito de acusación más grave para que manifieste si se ratifica o no en él. Sólo cuando la parte requerida modificare su escrito de acusación en términos tales que la calificación sea correcta y la pena solicitada sea procedente y el acusado preste de nuevo su conformidad, podrá el Juez o Tribunal dictar sentencia de conformidad. En otro caso, ordenará la continuación del juicio.

4. Una vez que la defensa manifieste su conformidad, el Secretario informará al acusado de sus consecuencias y a continuación el Juez o Presidente del Tribunal le requerirá a fin de que manifieste si presta su conformidad.

akusazio-idazkian aipatu egitate eta jasotako kalifikazioari begira. Zigorrek sei urteko espetxealdia gaintzen ez badu, epaileak edo auzitegiak epaia emango du defentsak azaldutakoarekin bat etorritz, ondorengo paragrafoetan ezarritako betekizunak gertatzen badira.

2. Alderdi guztiek egitateen deskribzioa onartu ondoren, epailearen edo auzitegiaren ustez, onartutako kalifikazioa zuzena bada, eta, kalifikazio horren arabera, zigorra bidezkoa bada, kalifikazio horren araberako epaia emango du. Epaileak edo auzitegiak beti entzungo du aurretiaz akusatua, horrek adostasuna askatasunez adierazi duen eta horren ondorioak ezagutzen dituen ziurtatzeko.

3. Epailearen edo auzitegiaren ustez, egindako kalifikazioa okerrekoa bada, edo eskatutako zigorra ez bada legearen arabera bidezkoa, akusazio-idazkirik astunena aurkeztu duen alderdiari epaileak eskatuko dio idazki hori berresten duen ala ez adieraztea. Epaileak edo auzitegiak adostasun-epaia eman ahal izango du, noiz eta bakar-bakarrik, eskakizuna jaso duen alderdiak akusazio-idazkia aldatu, eta, horren ondorioz, kalifikazioa zuzena izan, eskatutako zigorra bidezkoa izan, eta, horrez gain, akusatuak berriro adostasuna ematen duenean. Bestelako kasuan, epaileak agindua emango du epaiketak aurrera egiteko.

4. Behin defentsak bere adostasuna emanda, idazkariak horren ondorioei buruzko informazioa emango dio akusatuari, eta, jarraian, epaileak edo auzitegiko presidenteak horri agindeia egingo dio adostasuna ematen duen ala

Cuando el Juez o Tribunal albergue dudas sobre si el acusado ha prestado libremente su conformidad, acordará la continuación del juicio.

También podrá ordenar la continuación del juicio cuando, no obstante la conformidad del acusado, su defensor lo considere necesario y el Juez o Tribunal estime fundada su petición.

5. No vinculan al Juez o Tribunal las conformidades sobre la adopción de medidas protectoras en los casos de limitación de la responsabilidad penal.

6. La sentencia de conformidad se dictará oralmente y documentará conforme a lo previsto en el apartado 2 del artículo 789, sin perjuicio de su ulterior redacción. Si el fiscal y las partes, conocido el fallo, expresaran su decisión de no recurrir, el juez, en el mismo acto, declarará oralmente la firmeza de la sentencia, y se pronunciará, previa audiencia de las partes, sobre la suspensión o la sustitución de la pena impuesta.

7. Únicamente serán recurribles las sentencias de conformidad cuando no hayan respetado los requisitos o términos de la conformidad, sin que el acusado pueda impugnar por razones de fondo su conformidad libremente prestada.

## Artículo 788

1. La práctica de la prueba se realizará concentradamente, en las sesiones consecutivas que sean necesarias.

ez jakiteko. Epaileak edo auzitegiak zalantzak baditu akusatuak adostasuna askatasunez adierazi duen ala ez jakiteko, orduan epailetak aurrera egiteko erabakia hartuko du.

Epailetak aurrera egiteko agindua eman ahal izango du, orobat, akusatuak ados egon arren, horren defendatzaileak hori beharrezkotzat jotzen duenean, epailearen edo auzitegiaren ustez eskaera hori oinarrituna bada.

5. Erantzukizun penala mugatzeko babes-neurriak hartzen direnean, horri buruzko adostasunak ez dira lotesleak epaile edo auzitegiarentzat.

6. Adostasun-epaia ahoz eman eta dokumentatu egingo da 789. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera, geroago egingo den idazketari kalterik egin gabe. Fiskalak eta alderdiek, behin epaitza zein den jakinda, errekurtsorik ez jartzeko erabakia adierazten badute, epaileak, egintza horretan bertan, ahoz adieraziko du epaia irmoa dela, eta, aurretiaz alderdiei entzualdia eginda, ezarritako zigorraren eteteari edo ordeteari buruz erabakia hartuko du.

7. Adostasun-epaiei errekurtsua jarri ahal izango zaie, bakarrik, adostasunaren betekizunak edo baldintzak bete ez direnean; akusatuak ezin izango du aurkaratu, funtsaren inguruko zioak direla medio, askatasunez emandako adostasuna.

## 788. artikulua

1. Froga dena batera egingo da, ondoz ondo beharrezkoak diren saioetan. Salbuespenez, epaileak edo auzitegiak,

Excepcionalmente, podrá acordar el Juez o Tribunal la suspensión o aplazamiento de la sesión, hasta el límite máximo de treinta días, en los supuestos del artículo 746, conservando su validez los actos realizados, salvo que se produzca la sustitución del Juez o miembro del Tribunal en el caso del número 4.º de dicho artículo.

No será causa de suspensión del juicio la falta de acreditación de la sanidad, de la tasación de daños o de la verificación de otra circunstancia de análoga significación, siempre que no sea requisito imprescindible para la calificación de los hechos. En tal caso, la determinación cuantitativa de la responsabilidad civil quedará diferida al trámite de ejecución, fijándose en la sentencia las bases de la misma.

2. El informe pericial podrá ser prestado sólo por un perito.

En el ámbito de este procedimiento, tendrán carácter de prueba documental los informes emitidos por laboratorios oficiales sobre la naturaleza, cantidad y pureza de sustancias estupefacientes cuando en ellos conste que se han realizado siguiendo los protocolos científicos aprobados por las correspondientes normas.

3. Terminada la práctica de la prueba, el Juez o Presidente del Tribunal requerirá a la acusación y a la defensa para que manifiesten si ratifican o modifican las conclusiones de los escritos inicialmente presentados y para que expongan oralmente cuanto estimen procedente sobre la valoración de la

746. artikuluan jasotako kasuetan, erabaki ahal izango du saioa etetea edo atzeratzea, gehienez jota, hogeita hamar egunetan; kasu horretan, burututako egintzen baliozkotasunari eutsiko zaio, salbu eta artikuluko horren 4. zenbakiaren kasuan epailea edo auzitegiko kidea ordeztu denean.

Ez da izango epaiketa eteteko arrazoia osasuna ez egiaztatzea, kalteak ez tasatzea edo antzeko beste inguruabarraren bat ez gertatzeagatik, baldin eta hori ez bada nahitaezkoa egitateak kalifikatzeko. Kasu horretan, erantzukizun zibilaren kopuruaren zehaztapena beteazpen-izapidera geroratuko da, eta epaian zehaztuko dira horren oinarriak.

2. Adituaren txostena aditu batek bakarrik eman ahal izango du.

Prozedura horren eremuan, agiri-frogaren izaera edukiko dute laborategi ofizialek gai sorgogarraren izaera, kopuru eta purutasunari buruz bidalitako txostenek, horietan jaso denean txostenok egin direla kasuan kasuko arauk onetsitako zientzia-protokoloen arabera.

3. Froga egin ondoren, epaileak edo auzitegiko presidentek akusazioari eta defentsari agindeiaren bidez eskatuko die horiek adieraztea hasieran aurkeztutako idazkien ondorioak berretsi edo aldatzen dituzten; agindei horretan eskatuko die, berebat, bidezkotzat jotzen dutena ahoz azaltzea, frogaren balora-

prueba y la calificación jurídica de los hechos.

El requerimiento podrá extenderse a solicitar del Ministerio Fiscal y de los letrados un mayor esclarecimiento de hechos concretos de la prueba y la valoración jurídica de los hechos, sometiéndoles a debate una o varias preguntas sobre puntos determinados.

4. Cuando, en sus conclusiones definitivas, la acusación cambie la tipificación penal de los hechos o se aprecien un mayor grado de participación o de ejecución o circunstancias de agravación de la pena, el Juez o Tribunal podrá considerar un aplazamiento de la sesión, hasta el límite de diez días, a petición de la defensa, a fin de que ésta pueda preparar adecuadamente sus alegaciones y, en su caso, aportar los elementos probatorios y de descargo que estime convenientes. Tras la práctica de una nueva prueba que pueda solicitar la defensa, las partes acusadoras podrán, a su vez, modificar sus conclusiones definitivas.

5. Cuando todas las acusaciones califiquen los hechos como delitos castigados con pena que exceda de la competencia del Juez de lo Penal, se declarará éste incompetente para juzgar, dará por terminado el juicio y remitirá las actuaciones a la Audiencia competente. Fuera del supuesto anterior, el Juez de lo Penal resolverá lo que estime pertinente acerca de la continuación o finalización del juicio, pero en ningún caso podrá imponer una pena superior a la correspondiente a su competencia.

zioari eta egitateen kalifikazio juridikoari buruz.

Agindei horretan, Fiskaltzari eta letraduei eskatu ahal zaie frogaren egitate zehatzak argitu eta egitateen balorazio juridikoa hobeto argitzea; horretarako, haien eztabaidapean jarriko dira gai zehatz batzuen inguruko galderak.

4. Akusazioak, bere behin betiko ondorioetan, egitateen tipifikazio penala aldatzen duenean, edo parte-hartzearen edota betearazpenaren maila handiagoa dela antzematen denean, edo zigorra astuntzeko inguruabarrak antzematen direnean, epaileak edo auzitegiak saioa atzeratu ahal izango du, gehienez jota, hamar egunetan, betiere defentsak hala eskatuta atzeratzea; horren xedea da defentsak bere alegazioak behar bezala prestatzea, eta, hala denean, komenigarritzat jotako froga-osagaiak eta zurrubide-frogak ekartzea. Defentsak eska dezakeen froga berria egin ondoren, alderdi akusatzaileek ere aldatu ahal izango dituzte euren behin betiko ondorioak.

5. Akusazio guztiek egitateak delitu gisa kalifikatzen dituztenean, delitu horren zigorrak gainditzen badu zigor-arloko epailearen eskumena, orduan horrek epaitzeko eskumenik ez duela adieraziko du, epaiketa amaitutzat joko du, eta jarduna audientzia eskudunari igorriko dio. Aurreko kasu horretatik kanpo, zigor-arloko epaileak bere ustez egoki dena ebartziko du epaiketak aurrera egin edo hori amaitzeari buruz, baina inoiz ere ezin izango du ezarri bere eskumenari dagokion zigorra baino handiagoa.

6. Del desarrollo del juicio oral se levantará acta que firmarán el Juez o el Presidente y Magistrados, el Secretario, el Fiscal y los abogados de la acusación y la defensa, reseñándose en la misma el contenido esencial de la prueba practicada, las incidencias y reclamaciones producidas y las resoluciones adoptadas, pudiendo completarse o sustituirse por cualquier medio de reproducción mecánica, oral o escrita, de cuya autenticidad dará fe el Secretario.

## Artículo 789

1. La sentencia se dictará dentro de los cinco días siguientes a la finalización del juicio oral.

2. El Juez de lo Penal podrá dictar sentencia oralmente en el acto del juicio, documentándose el fallo y una sucinta motivación mediante la fe del Secretario o en anexo al acta, sin perjuicio de la ulterior redacción de aquella. Si el Fiscal y las partes, conocido el fallo, expresasen su decisión de no recurrir, el Juez, en el mismo acto, declarará la firmeza de la sentencia, y se pronunciará, previa audiencia de las partes, sobre la suspensión o la sustitución de la pena impuesta.

3. La sentencia no podrá imponer pena más grave de la solicitada por las acusaciones, ni condenar por delito distinto cuando éste conlleve una diversidad de bien jurídico protegido o

6. Ahozko epaiketaren garapenari buruz akta egingo da, eta akta hori sinatuko dute epaileak edo presidenteak eta magistratuek, idazkariak, fiskalak eta akusazioaren nahiz defentsaren abokatuak; akta horretan aipatuko dira egindako frogaren funtsezko edukia, gertatutako gorabeherak eta egindako erreklamazioak eta hartu diren ebazpenak. Akta osatu edo ordeztu ahal izango da erreproduzio mekaniko, ahozko erreproduzio edo idatzizko erreproduziorako balio duten baliabideetatik edozeinekin idazkariak baliabide horren kautotasunari buruz fede emango duela.

## 789. artikulua

1. Epaia emango da, ahozko epaiketara amaitu eta hurrengo bost egunetan.

2. Zigor-arloko epaileak epaia ahoz eman ahal izango du epaiketa-ekitaldian; epaitza bera eta zioak, laburtuta, dokumentatu egingo dira, idazkariek fede ematearen bidez edo aktaren eranskinean jasota. Horri kalterik egin gabe, gero epaia idatzi beharko da. Fiskalak eta alderdiek, behin epaitza zein den jakinda, errekurtsioa ez jartzeko erabakia adierazten badute, epaileak, egintza horretan bertan, ahoz adieraziko du epaia irmoa dela, eta, aurretiaz alderdiei entzunaldia eginda, ezarritako zigorraren eteteari edo ordezteteari buruz erabakia hartuko du.

3. Epaian ezin izango da ezarri akusazioek eskatutako zigorra baino astunagoa, eta ezin izango da kondenarik ezarri delitu ezberdin baten ondorioz, baldin eta babestutako ondasun juri-

mutación sustancial del hecho enjuiciado, salvo que alguna de las acusaciones haya asumido el planteamiento previamente expuesto por el Juez o Tribunal dentro del trámite previsto en el párrafo segundo del artículo 788.3.

4. La sentencia se notificará por escrito a los ofendidos y perjudicados por el delito, aunque no se hayan mostrado parte en la causa.

5. Cuando la instrucción de la causa hubiera correspondido a un Juzgado de Violencia sobre la Mujer la sentencia será remitida al mismo por testimonio de forma inmediata. Igualmente se le remitirá la declaración de firmeza y la sentencia de segunda instancia cuando la misma fuera revocatoria, en todo o en parte, de la sentencia previamente dictada.

## CAPÍTULO VI

### De la impugnación de la sentencia

#### Artículo 790

1. La sentencia dictada por el Juez de lo Penal es apelable ante la Audiencia Provincial correspondiente, y la del Juez Central de lo Penal, ante la Sala de lo Penal de la Audiencia Nacional. El recurso podrá ser interpuesto por cualquiera de las partes, dentro de los diez días siguientes a aquel en que se les hubiere notificado la sentencia. Durante este período se hallarán las actuaciones en Secretaría a disposición de las partes.

2. El escrito de formalización del recurso se presentará ante el órgano

dikoa beste bat denean edo epaitutako egitatea funtsean aldatu denean, salbu eta akusazioetatik edozeinek onartu denean epaileak edo auzitegiak aurretik azaldutako planteamendua, 788.3 artikulua 2. paragrafoan ezarri izapidearen barruan.

4. Epaia idatziz jakinaraziko zaie delituaren ondoriozko ofenditu eta kalte-dunei, auzira alderdi gisa agertu ez badira ere.

5. Auziaren instrukzioa emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegiari dagokionean, epaia berehala igorriko da epaitegi horretara lekukotzaren bidez. Modu berean bidaliko zaio irmotasun-adierazpena, eta bigarren auzialdiko epaia ere, horrek aurretiaz emandako epaia erabat edo zati batez ezeztatzen duenean.

## VI. KAPITULUA

### Epaia aurkaratzea

#### 790. artikulua

1. Zigor-arloko epaileak emandako epaiari gora jotzeko errekurtoa jar daikioke kasuan kasuko probintzia-audientzian; eta zigor-arloko epaile zentralak emandakoari, Audentzia Nazionaleko zigor-arloko salan. Errekurtsoa jarri ahal izango du alderdietatik edozeinek, epaia berari jakinarazi eta hurrengo hamar egunetan. Aldi horretan, jarduna idazkari-tzan egingo da alderdien eskura.

2. Errekurtsoa formalizatzeko idazkia aurkeztuko da, kasuan-kasuan aurkara-



que dictó la resolución que se impugne, y en él se expondrán, ordenadamente, las alegaciones sobre quebrantamiento de las normas y garantías procesales, error en la apreciación de las pruebas o infracción de normas del ordenamiento jurídico en las que se base la impugnación. El recurrente también habrá de fijar un domicilio para notificaciones en el lugar donde tenga su sede la Audiencia.

Si en el recurso se pidiera la declaración de nulidad del juicio por infracción de normas o garantías procesales que causaren la indefensión del recurrente, en términos tales que no pueda ser subsanada en la segunda instancia, se citarán las normas legales o constitucionales que se consideren infringidas y se expresarán las razones de la indefensión. Asimismo, deberá acreditarse haberse pedido la subsanación de la falta o infracción en la primera instancia, salvo en el caso de que se hubieren cometido en momento en el que fuere ya imposible la reclamación.

3. En el mismo escrito de formalización podrá pedir el recurrente la práctica de las diligencias de prueba que no pudo proponer en la primera instancia, de las propuestas que le fueron indebidamente denegadas, siempre que hubiere formulado en su momento la oportuna protesta, y de las admitidas que no fueron practicadas por causas que no le sean imputables.

4. Recibido el escrito de formalización, el Juez, si reúne los requisitos exigidos, admitirá el recurso. En caso

tzen den ebazpena zein organok eman eta organo horretan; idazkian behar bezala antolatuta adieraziko dira arauak eta prozesuko bermeak hautsi direla-eta egindako alegazioak, frogak baloratzeari gertatutako okerra, edo antolamendu juridikoaren barruan aurkaratzearen oinarri den arau-haustea. Errekurtsogileak jakinarazpenetarako egoitza ere finkatu beharko du, audientziak egoitza zein tokitan izan eta toki horretan.

Errekurtsuan epaiketaren deuseztasun-adierazpena eskatzen bada arauak edo prozesuko bermeak haustearen ondorioz, horrekin errekurtsogilearen defentsarik eza gertatu bada, eta defentsarik ez hori ezin badaiteke ongitu bigarren auzialdian, ustez hautsi diren lege-arauak edo konstituzio-arauak aipatuko dira, eta defentsarik ezaren arrazoiak adieraziko dira. Era berean, egiaztatu egin beharko da lehenengo auzialdian faltaren edo arau-haustearen ongitzea eskatu dela, salbu eta horiek gauzatu direneko unean erreklamazioa egitea ezinezkoa denean.

3. Formalizazio-idazki berean, errekurtsogileak eskatu ahal izango du lehenengo auzialdian proposatu ezin izan dituen froga-eginbideak eta hala proposatuta ere bidegabe ukatu zaizkionak gauzatzea, baldin eta une horretan protesta egokia egin badu; berari egotzi ezin zaizkion arrazoi onorioz, onartutako froga-eginbide batzuk ez badira gauzatu, horiek gauzatzea ere eskatu ahal izango du.

4. Formalizazio-idazkia jaso ondoren, epaileak errekurtsoa onartuko du, baldin eta eskatutako betekizunak bil-

de apreciar la concurrencia de algún defecto subsanable, concederá al recurrente un plazo no superior a tres días para la subsanación.

5. Admitido el recurso, se dará traslado del escrito de formalización a las demás partes por un plazo común de diez días. Dentro de este plazo habrán de presentarse los escritos de alegaciones de las demás partes, en los que podrá solicitarse la práctica de prueba en los términos establecidos en el apartado 3 y en los que se fijará un domicilio para notificaciones.

6. Presentados los escritos de alegaciones o precluido el plazo para hacerlo, el Secretario, en los dos días siguientes, dará traslado de cada uno de ellos a las demás partes y elevará a la Audiencia los autos originales con todos los escritos presentados.

## Artículo 791

1. Si los escritos de formalización o de alegaciones contienen proposición de prueba, la Audiencia resolverá en tres días sobre la admisión de la propuesta y, en el mismo acto, señalará día para la vista. También podrá celebrarse vista cuando, de oficio o a petición de parte, la estime el Tribunal necesaria para la correcta formación de una convicción fundada.

2. La vista se señalará dentro de los quince días siguientes y a ella serán citadas todas las partes. La víctima deberá ser informada, aunque no se haya mostrado parte ni sea necesaria su intervención.

tzen baditu. Ongitzeko moduko akatsen bat antzemanaz gero, errekurtsogileari askoz jota hiru eguneko epea emango dio hori ongitzeko.

5. Behin errekurtsua onartu eta gero, formalizazio-idazkia gainerako alderdiei helaraziko zaie hamar eguneko epe erkidean. Epe horretan gainerako alderdiek alegazio-idazkiak aurkeztu behar ko dituzte, eta idazki horietan eskatu ahal izango da froga egitea 3. paragrafoan ezarritakoaren arabera, eta bertan finkatu behar ko da jakinarazpenetarako egoitza ere.

6. Alegazio-idazkiak aurkeztu ondoren, edo behin hori egiteko epea prekluituta, idazkariak horietako bakoitza helaraziko die gainerako alderdiei, hurrengo bi egunetan, eta audientziari jatorrizko auzi-paperak helaraziko dizkio, aurkeztutako idazki guztiekin batera.

## 791. artikulua

1. Formalizazio- edo alegazio-idazkietan froga-proposamena jaso bada, audientziak hiru egunetan emango du proposamena onartu edo ez onartzeari buruzko ebazpena, eta, egintza horretan bertan, ikustaldia egiteko eguna zehaztuko du. Ikustaldia egin ahal izango da, orobat, ofizios edo alderdiak hala eskatuta, auzitegiaren ustez hori beharrezkoa denean konbikzio oinarriduna zuzen dadin.

2. Ikustaldia hurrengo hamabost egunetan zehaztuko da, eta bertara agertzeko zitazioa egingo zaie alderdi guztiei. Biktimari informazioa eman behar ko zaio, alderdi gisa agertu ez arren, eta haren esku-hartzea beharrezkoa izan ez arren.

La vista se celebrará empezando, en su caso, por la práctica de la prueba. A continuación, las partes resumirán oralmente el resultado de la misma y el fundamento de sus pretensiones.

## Artículo 792

1. La sentencia de apelación se dictará dentro de los cinco días siguientes a la vista oral, o dentro de los diez días siguientes a la recepción de las actuaciones por la Audiencia, cuando no hubiere resultado procedente su celebración.

2. Cuando la sentencia apelada sea anulada por quebrantamiento de una forma esencial del procedimiento, el Tribunal, sin entrar en el fondo del fallo, ordenará que se reponga el procedimiento al estado en que se encontraba en el momento de cometerse la falta, sin perjuicio de que conserven su validez todos aquellos actos cuyo contenido sería idéntico no obstante la falta cometida.

3. Contra la sentencia dictada en apelación no cabrá recurso alguno, sin perjuicio de lo establecido respecto de la revisión de sentencias firmes y de lo previsto en el artículo siguiente para la impugnación de sentencias firmes dictadas en ausencia del acusado. Los autos se devolverán al Juzgado a efectos de ejecución del fallo.

4. La sentencia se notificará a los ofendidos y perjudicados por el delito, aunque no se hayan mostrado parte en la causa.

Ikustaldia hasteko, hala denean, froga egingo da. Jarraian, alderdiek ahoz laburtuko dituzte froga horren emaitza eta euren uzien oinarria.

## 792. artikulua

1. Gora jotzeko epaia emango da ahozko ikustaldia egin eta hurrengo bost egunetan, edo audientziak jarduna jaso eta hurrengo hamar egunetan, ikustaldia egitea bidezko gertatu ez denean.

2. Gora jotako ebazpena deuseztatzen denean prozeduraren funtsezko formaren bat urratzeagatik, auzitegiak aginduko du, epaitzaren edukian sartu gabe, prozedura berriro jartzea falta egin zen uneko egoeran; horri kalterik egin gabe, faltarik gabe eduki bera izango luketen egintzek euren baliozkotasunari eutsiko diote.

3. Gora-jotzean emandako epaiaren aurka ezin izango da inolako errekurtsorik jarri, epai irmoen berrikuspenari kalterik egin gabe; halaber, ezin izango zaio kalterik egin hurrengo artikuluan ezarritakoari, akusatirik gabe emandako epai irmoen aurkaratzeaz denaz bezainbatean. Auzi-paperak epaitegiari itzuliko zaizkio, epaitza betearazteko ondoretarako.

4. Epaia jakinaraziko zaie delitua-  
ren ondoriozko ofenditu eta kalte-  
dunei, auzian alderdi gisa agertu ez arren.

**Artículo 793**

1. En cualquier momento en que comparezca o sea habido el que hubiere sido condenado en ausencia conforme a lo dispuesto en el párrafo segundo del apartado 1 del artículo 786, le será notificada la sentencia dictada en primera instancia o en apelación a efectos de cumplimiento de la pena aún no prescrita. Al notificársele la sentencia se le hará saber su derecho a interponer el recurso a que se refiere el apartado siguiente, con indicación del plazo para ello y del órgano competente.

2. La sentencia dictada en ausencia, haya sido o no apelada, es susceptible de ser recurrida en anulación por el condenado en el mismo plazo y con iguales requisitos y efectos que los establecidos en el recurso de apelación. El plazo se contará desde el momento en que se acredite que el condenado tuvo conocimiento de la sentencia.

## CAPÍTULO VII

**De la ejecución de sentencias****Artículo 794**

Tan pronto como sea firme la sentencia, se procederá a su ejecución por el Juez o por la Audiencia que la hubiere dictado, conforme a las disposiciones generales de la Ley, observándose las siguientes reglas:

1.<sup>a</sup> Si no se hubiere fijado en el fallo la cuantía indemnizatoria, cualquiera de las partes podrá instar, durante la ejecución de la sentencia, la práctica de

**793. artikulua**

1. Norbait kondenatua izan bada, bera absente dagoela, 786. artikulua 1. paragrafoko bigarren lerrokadan xedatutakoaren arabera, eta edozein unetan agertzen bada edo non dagoen aurkitzen bada, orduan lehenengo auzialdian edo gora-jotzean emandako epaia jakinaraziko zaio, oraindik preskribatu gabe dagoen zigorra bete dezan. Epaia jakinazpena egiten zaionean, hurrengo paragrafoan aipatu errekurtsua jartzeko eskubidea duela ere adieraziko zaio, horretarako epaia eta organo eskuduna zehaztuta.

2. Akusatua absente dagoela emandako epaiaren aurka, hori gora jo den ala ez aintzat hartu gabe, kondenatuak deuseztasun-errekurtsua jarri ahal izango du, gora jotzeko errekurtsuan ezarritako epe, betekizun eta ondore berberekin. Epearen zenbaketa hasiko da, kondenatuak epaiaren berri zuela egiaztatzen den unetik.

## VIII. KAPITULUA

**Epaia betearaztea****794. artikulua**

Epaia irmoa izan bezain laster, hori eman duen epaileak edo auzitegiak betearazi egingo du, legearen xedapen orokorren arabera, eta ondorengo erregelak beteta:

1) Epaitzan ez bada zehaztu kalte-ordainaren zenbatekoa, alderdietatik edozeinek epaiaren betearazpenean zehar eskatu ahal izango du zenbateko hori

las pruebas que estime oportunas para su precisa determinación. De esta pre-tensión se dará traslado a las demás para que, en el plazo común de diez días, pida-n por escrito lo que a su derecho con- venga. El Juez o Tribunal rechazará la práctica de pruebas que no se refieran a las bases fijadas en la sentencia.

Practicada la prueba, y oídas las partes por un plazo común de cinco días, se fijará mediante auto, en los cinco días siguientes, la cuantía de la responsabilidad civil. El auto dictado por el Juez de lo Penal será apelable ante la Audiencia respectiva.

2.ª En los casos en que se haya im- puesto la pena de privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclo- motores, se procederá a la inmediata retirada del permiso y licencia habili- tante, si tal medida no estuviera ya acordada, dejando unido el documento a los autos y remitiendo mandamiento a la Jefatura Central de Tráfico para que lo deje sin efecto y no expida otro nuevo hasta la extinción de la condena.

zehazteko egokitatz jotzen dituen fro- gak egitea. Uzi hori gainerakoei helara- ziko zaie, hamar eguneko epe erkidean euren eskubidearen arabera komeni zaie- na idatziz eska dezaten. Epaileak edo auzitegiak frogak baztertuko ditu frogok ez direnean epaian finkatu oinarriei buruzkoak.

Froga egin ondoren, eta behin alder- diak bost eguneko epe erkidean en- tzunda, erantzukizun zibilaren zenbate- koa auto bidez zehaztuko da hurrengo bost egunetan. Zigor-arloko epaileak emandako autoari gora jotzeko errekur- tosa jarri ahal izango zaio kasuan kasuko audientzian.

2) Zigorra ezarri bada eta zigor ho- riek ibilgailu motordunak eta ziklomo- trak gidatzeko eskubideaz gabetzea ba- dakar, berehala kenduko dira horretarako gaitzen duten baimena eta lizentzia, bal- din eta neurri hori oraindik hartu gabe badago; hala bada, agiria auzi-paperetara bilduko da, eta manamendua bidaliko zaio Trafikoko Burutza Zentralari, hori ondorerik gabe utz dezan eta kondena azkendu arte beste bat egin ez dezan.

### TÍTULO III

#### DEL PROCEDIMIENTO PARA EL ENJUICIAMIENTO RÁPIDO DE DETERMINADOS DELITOS

##### CAPÍTULO PRIMERO

##### Ámbito de aplicación

##### Artículo 795

1. Sin perjuicio de lo establecido para los demás procesos especiales, el

### III. TITULUA

#### DELITU JAKIN BATZUK AZKAR EPAITZEKO PROZEDURA

##### LEHENENGO KAPITULUA

##### Aplikazio-eremua

##### 795. artikulua

1. Gainerako prozesu berezientzat ezarritakoari kalterik egin gabe, titulu

procedimiento regulado en este Título se aplicará a la instrucción y al enjuiciamiento de delitos castigados con pena privativa de libertad que no exceda de cinco años, o con cualesquiera otras penas, bien sean únicas, conjuntas o alternativas, cuya duración no exceda de diez años, cualquiera que sea su cuantía, siempre que el proceso penal se incoe en virtud de un atestado policial y que la Policía Judicial haya detenido a una persona y la haya puesto a disposición del Juzgado de guardia o que, aun sin detenerla, la haya citado para comparecer ante el Juzgado de guardia por tener la calidad de denunciado en el atestado policial y, además, concorra cualquiera de las circunstancias siguientes:

1.<sup>a</sup> Que se trate de delitos flagrantes. A estos efectos, se considerará delito flagrante el que se estuviese cometiendo o se acabare de cometer cuando el delincuente sea sorprendido en el acto. Se entenderá sorprendido en el acto no sólo al delincuente que fuere detenido en el momento de estar cometiendo el delito, sino también al detenido o perseguido inmediatamente después de cometerlo, si la persecución durare o no se suspendiere mientras el delincuente no se ponga fuera del inmediato alcance de los que le persiguen. También se considerará delincuente in fraganti aquel a quien se sorprendiere inmediatamente después de cometido un delito con efectos, instrumentos o vestigios que permitan presumir su participación en él.

2.<sup>a</sup> Que se trate de alguno de los siguientes delitos:

honetan arautu prozedura aplikatuko zaie delituen instrukzioari eta epaitzeari, baldin eta delitu horien zigorrek askatasunaz gabetzen badute askoz jota bost urte arte, edo, delitu horien zigorrak beste batzuk izanik, bakarka, batera edo hautabidez, zigor horien iraupena askoz jota hamar urte artekoa bada, zenbatekoa edozein dela, betiere zigor-prozesua polizia-atestatuaren bidez hasi denean, eta polizia judicialak norbait atxilotu eta guardiako epaitegiaren esku jarri denean, edo, inor atxilotu gabe, norbait guardiako epaitegira bertaratzeko zitzioa egin dionean, polizia-atestatuan salatu gisa agertzeagatik, eta, horrez gain, hurrengo inguruabarretatik edozein gertatzeagatik:

1) Ageri-ageriko delituak izatea. Ondore horietarako, ageri-ageriko delitutzat joko da, delitugilea delitua egiten dagoela edo hori egin berri duela us tekabean harrapatzen denean. Ulertuko da delitugilea ustekabean harrapatua izan dela, delitua egiten ari den unean atxilotzen denean, baita delitu hori egin eta segidan atxilotzen denean edo pertsegitzen denean ere, baldin eta pertsekuzioak irauten badu edo ez bada eteten delitugilea bera pertsegitzen dutenen eremutik kanpo ez dagoen bitartean. Ageri-ageriko delitugiletzat joko da, orobat, delitua egin eta segidan efektuekin, tresnekin edo aztarnekin berehala ustekabean harrapatua izan dena, horiek ahalbidetzen badute delitu horretan parte hartu duela uste izatea.

2) Ondorengo delituetatik bat izatea:

a) Delitos de lesiones, coacciones, amenazas o violencia física o psíquica habitual, cometidos contra las personas a que se refiere el artículo 173.2 del Código Penal.

b) Delitos de hurto.

c) Delitos de robo.

d) Delitos de hurto y robo de uso de vehículos.

e) Delitos contra la seguridad del tráfico.

f) Delitos de daños referidos en el artículo 263 del Código Penal.

g) Delitos contra la salud pública previstos en el artículo 368, inciso segundo, del Código Penal.

h) Delitos flagrantes relativos a la propiedad intelectual e industrial previstos en los artículos 270, 273, 274 y 275 del Código Penal.

3.<sup>a</sup> Que se trate de un hecho punible cuya instrucción sea presumible que será sencilla.

2. El procedimiento regulado en este Título no será de aplicación a la investigación y enjuiciamiento de aquellos delitos que fueren conexos con otro u otros delitos no comprendidos en el apartado anterior.

3. No se aplicará este procedimiento en aquellos casos en que sea procedente acordar el secreto de las actuaciones conforme a lo establecido en el artículo 302.

4. En todo lo no previsto expresamente en el presente Título se aplica-

a) Lesioak, derrigortzeak, mehatxuak edo ohiko indarkeria fisikoa nahiz psikikoa, delitu horiek egin badira Zigor Kodearen 173.2 artikuluan aipatu pertsonen aurka.

b) Ebasketa-delituak.

c) Lapurreta-delituak.

d) Ibilgailua erabiltzeko lapurreta-eta ebasketa-delituak.

e) Trafiko-segurtasunaren aurkako delituak.

f) Zigor Kodearen 263. artikuluan aipatutako kalte-delituak.

g) Osasun publikoaren aurkako delituak, Zigor Kodearen 368. artikulua-  
ren bigarren tartekaduran ezarritakoak.

h) Jabetza intelektualari eta industria-jabetzari buruzko ageri-ageriko delituak, Zigor Kodearen 270, 273, 274 eta 275. artikuluetan ezarritakoak.

3) Egitate zigorgarria izatea, betiere horren instrukzioa ustez erraza izango denean.

2. Titulu honetan araututako prozedura ezin izango zaie aplikatu aurreko paragrafoan jasota ez dagoen delituen ikerketari eta epaitzeari, delituok lotuta badaude beste delitu batekin edo bartzuekin.

3. Prozedura hau ez da aplikatuko jardunaren sekretua erabakitzea bidezkoa denean, 302. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.

4. Titulu honetan beren beregi ezarri ez den orori ordezeko moduan aplika-

rán supletoriamente las normas del Título II de este mismo Libro, relativas al procedimiento abreviado.

## CAPÍTULO II

### De las actuaciones de la Policía Judicial

#### Artículo 796

1. Sin perjuicio de cuanto se establece en el Título III del Libro II y de las previsiones del capítulo II del Título II de este Libro, la Policía Judicial deberá practicar en el tiempo imprescindible y, en todo caso, durante el tiempo de la detención, las siguientes diligencias:

1.<sup>a</sup> Sin perjuicio de recabar los auxilios a que se refiere el ordinal 1.º del artículo 770, solicitará del facultativo o del personal sanitario que atendiere al ofendido copia del informe relativo a la asistencia prestada para su unión al atestado policial. Asimismo, solicitará la presencia del médico forense cuando la persona que tuviere que ser reconocida no pudiera desplazarse al Juzgado de guardia dentro del plazo previsto en el artículo 799.

2.<sup>a</sup> Informará a la persona a la que se atribuya el hecho, aun en el caso de no procederse a su detención, del derecho que le asiste de comparecer ante el Juzgado de guardia asistido de abogado. Si el interesado no manifestare expresamente su voluntad de comparecer asistido de abogado, la Policía Judicial recabará del Colegio de Abogados la designación de un letrado de oficio.

tuko zaizkio liburu honen II. tituluan prozedura laburtuari buruz jasotako arauak.

## II. KAPITULUA

### Polizia judizialaren jarduna

#### 796. artikulua

1. II. liburuaren III. tituluan ezarritako guztiari eta liburu honen II. tituluko II. kapituluaren aginduei kalterik egin gabe, polizia judizialak hurrengo eginbideak gauzatuko ditu, behar-beharrezkoa den denboran, eta, edozein kasutan ere, atxilotetak dirauen artean.

1) 770. artikulua 1. zenbakian aipatu laguntzak eskatzeari kalterik egin gabe, osasun-arloko adituari edo langileei eskatuko die, ofendituari laguntza eman diotenez gero, txostenaren kopia ematea, hori poliziaren atestatuari batu ahal izateko. Gisa berean, polizia judizialak eskatuko du mediku forentse bertan egotea, betiere aztertu beharreko pertsona ezin denean guardiako epaitegira joan 799. artikuluan ezarri epean.

2) Egitatea nori eratziki eta pertsona horri informazioa emango dio guardiako epaitegira abokatuaren laguntzarekin agertzeko duen eskubideari buruz, nahiz eta hura atxilotu ez. Interesdunak ez badu beren beregi adierazten abokatuaren laguntzarekin agertzeko borondatea, polizia judizialak Abokatuen Elkargoari eskatuko dio ofizioko letradua izenda dezan.



3.<sup>a</sup> Citará a la persona que resulte denunciada en el atestado policial para comparecer en el Juzgado de guardia en el día y hora que se le señale, cuando no se haya procedido a su detención. El citado será apercibido de las consecuencias de no comparecer a la citación policial ante el Juzgado de guardia.

4.<sup>a</sup> Citará también a los testigos para que comparezcan en el juzgado de guardia en el día y hora que se les indique, apercibiéndoles de las consecuencias de no comparecer a la citación policial en el juzgado de guardia. No será necesaria la citación de miembros de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad que hubieren intervenido en el atestado cuando su declaración conste en el mismo.

5.<sup>a</sup> Citará para el mismo día y hora a las entidades a que se refiere el artículo 117 del Código Penal, en el caso de que conste su identidad.

6.<sup>a</sup> Remitirá al Instituto de Toxicología, al Instituto de Medicina Legal o al laboratorio correspondiente las sustancias aprehendidas cuyo análisis resulte pertinente. Estas entidades procederán de inmediato al análisis solicitado y remitirán el resultado al Juzgado de guardia por el medio más rápido y, en todo caso, antes del día y hora en que se hayan citado a las personas indicadas en las reglas anteriores. Si no fuera posible la remisión del análisis en dicho plazo, la Policía Judicial podrá practicar por sí misma dicho análisis, sin perjuicio del debido control judicial del mismo.

3) Zitazioa egingo dio poliziaren atestatuan salatu den pertsonari, hori guardiako epaitegira ager dadin, zehaztutako egunean eta orduan, betiere hura atxilotu ez denean. Zitazioa jaso duenari ohartarazpena egingo zaio, polizia-zitazioaren arabera guardiako epaitegira ez agertzeak dituen ondorioei buruz.

